

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2011-09-26
ASTELEHENA
335. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Txapela Aresora, bigarrenez

Alustizak eraman du 'Ttiki' txakurrarekin | 29



Antonio Alustiza. | MAIDER ARREGI



Xabi Luis atleta oñatiarra seigarren Munduko Duatloi Txapelketan | 27

Biharko teknologia gaurko gazte ekintzaileen eskutik | 2



Faxismoaren biktimei egindako omenaldiak barruak astindu ditu | 4

Etorri eta joan dira

Bukatu dira Aretxabaletako San Migelak. Barikutik domekara bitartean jai giroa izan da nagusi eta balorazioa positiboa da | 12



Barrunba Kelele batukada Durana kaletik Herriko Plazara heltzen zapatu iluntzean, jendetza segika duela.

JOSETXO ARANTZABAL

Montilla eta Arrasate senidetzeko proposamena

Gurean batu dira EAE eta Kordobako andaluziarrak | 14



Andaluziar bikotea dantzan. | J.A.

Enrike Letona: "Presoak prozesuaren parte garrantzitsua dira" | 4

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

PRODUKTU SORTA




ETA ZURETAKO BADA?

► Zoaz 26. ORRIALDERA



ANTTON PEÑA

IGEX Ur-garraio berritzailea da. Kirola toki berrietan egiteko aukera emango du. Bere bateriadun turbina elektrikoak zaratarik gabe martxan aritzeko gai dira.



LEIRE KORTABARRIA

GLOB Urpekariendako ur-azpiko egoitza da. Goialdeko hoditik sartzen da, egongela dauka, ibilbideei buruzko informazioa ematen du eta oxigeno bonbonak dauzka.



LEIRE KORTABARRIA

CHANGOO Mendi-ibilbideak geuk sortzeko, lagunekin konpartitzeko edo geografikoki bilatzeko aukera emango duen sare sozial tematikoa da.



LEIRE KORTABARRIA

OXY Kostako klimaren eta itsasoaren gaineko informazioa eman, igerilariak elkarrekin konektatu eta larrialdietan laguntza lortzeko bidea emango du Oxy-k.



LEIRE KORTABARRIA

BIKEWASHER Euro bat sartu eta makinak bizikleta garbitu eta sikatu egingo du, higieina eta erosotasuna bermatuz. Birzikilatutako ura erabiliko du.



Kimu Berriko parte-hartzaileak eta sustatzaileak, eguaztenean, erakuts...

Biharko gazteendako teknologia, gaurko gazte ekintzaileen eskutik

- ▶ Kimu Berri ekintzailetasun programak gazteek asmatutako 24 proiektu erakusten ditu
- ▶ Oñatin izango dira ikusgai egitasmoak: denek etorkizuneko gazteen aisialdia dute ardatz

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Segurtasunez igeri edo surf egiteko gailuak, betiko portuetatik bezala salto egiteko plataformak, itsaso gainean –edo olatuen azpian– beste gazte batzuekin elkartzeko eta ondo pasatzeko leku berriak, bizikleta automobila balitz bezala garbitzen duen makina, kaletik gurutzatzen zaiGUN jendea ezagutzeko balio duten sare sozialak... Horiek dira gazte ekintzaileek Kimu Berri egitasmorara aurkeztu dituzten proiektuetako batzuk. Horrela, 24 batu arte, eta guztien xehetasunak jakiteko eta ikusteko aukera egongo da urriaren 5etik 7ra bitartean, Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza fakultatearen eraikinean, Oñatin. Han,

proiektuetako lau aurkeztu egingo dituzte, proiektuen gaineko panelen erakusketa egongo da eta gainera, hilaren 7an, inbertitzaileen azoka egingo dute, asmatzaile gazteek proiektua egia bihurtzeko bultzada bat jaso dezaten. Egunotan, Arrasateko Kulturaren egon da erakusketa hori.
Kimu Berri programa publiko-pribatu bat da, Debagoienean ekintzailetasuna lantzeko eta bultzatzeko helburuarekin, honako arlo zehatzetan: gazteria, aisialdia eta kirola. Honakoek sustatzen dute: Mondragon Unibertsitateak, Saiolanek, Athlonen, Iseak eta Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Agentziak.

Finlandian sortu zen ideia
Aritz Pagolak eta lagun batzuek Finlandian izan zuten euren proiektuaren ideia: bizikletak garbitzeko makina. Honela azaldu zuen

Aritzek Arrasate Irratian: "Elurrarekin, garbiketa falta zegoen, eta bizikletak herdoildu egiten ziren, kateetako koipea azkar joaten zen... Hor behar bat zegoen

la pentsatu genuen: ez zegoela bizikleta garbitzen duen makinarik". Ideia hori garatuta sortu zuen Bikewasher delako proiektua Enpresagintzako LEINN graduko ikasle horiek. Ekiten proiektu lehiaketan 1. saria irabazi zuten horrekin, eta aurreikuspen onak dituzte: "Bartzelonako enpresa batekin harremanetan gaude, eta prototipoa lantzen gabilta".
Prototipoa ia bukatuta duen beste talde bat Antton Peña aramaiorrena da. Industria Diseinuko eta Produktu Garapenerako Ingeniaritzako ikasle talde batek egin zuen. IgeX izeneko gailuaren proiektua aurkeztu zuten Kimu Berrira, eta prototipoa egiten ibili dira egunotan. Gazteriak Internetetikiko duen "lotura", gazteek

ESANAK

"Ekintzailetasuna ez da gazteen lehentasuna: %28ek ikusten dute bere burua ekintzaile gisa"

"Ekintzailetasuna sustatzeko, gazteei gai zehatzak eman dizkiegu: kirola eta aisialdia"

MIKEL OROBENGOA | ISEAKO ZUZENDARIA ETA KIMU BERRIKO SUSTATZAILEA



LEIRE KORTABARRIA

NAHI Portutik bezala salto egiteko plataforma. Bi gune ditu: baten, salto lehiaketa egiteko aukera egongo da; bestean, erlaxatzeko aukera, jacuzzi integratuarekin.



LEIRE KORTABARRIA

XURF Surfariendako belarritaerako tapoi bereziak dira. Otitis arazoak ekiditeaz gain, surfaria bere telefonora eta sare sozialetara komunikatuta egongo da, besteak beste.



LEIRE KORTABARRIA

WHORU Sare sozialak kalera zabaltzen dira. Lagunekin une oro hitz egin eta non dauden jakiteko aukera emango du, herriko eskaintzaren gaineko informazioa, eta gehiago.



sketa irekitzen. | MIRIAN BITERI

"kalera begira zituzten ekintzen" protagonismo galera eta kostaren "masifikazioa" aintzat hartuta, "ur-garraio berritzailea" izan nahi du Igex-ek.

Sare sozialak esplotatuz

Kimu Berrin aurkeztutako beste proiektu bat, Ekiten lehiaketa sariduna -3. saria, kasu honetan-, Informatika Ingeniaritza ikasle talde batek egin duen Whoru izenekoa da. Taldeko partaidea Alex Salorrek azaltzen digu zertan datzan eta zelan bururatu zitzaizen: "Telefonorako sare sozial bat da Whoru. Klaserako proiektu bat egin behar genuen, gai librearekin, eta pentsatzen hasi ginen zelan egin, teknologia berriekin, oraindik ez zegoen zerbaite".

Egileen esanetan, Whoru-rekin, sare sozialen orain arteko aukerak zabaltzeko egingo dira: "Zure inguruan topatu nahi duzuna edozein unetan topatu ahal izango duzu. Lagunekin berba egin ahal izango duzu, eta une oro non dauden jakin. Gurutzatzen zaren erabiltzaileekin harremanetan jarri ahal izango zara, eta zure zaletasun berberak dituzten pertsonak ezagutu".

Badago bi proiektu ere egin dituenak, Jon Padilla ikaslea bezala. Informatika Ingeniaritza ikasle horrek geolokalizazio proiektu baten (Team-up) eta mendi-martxan inguruko sare sozial bat sortzeko

beste baten (Changoo) parte hartu du. Bigarren horren gaineko panela izango da ikusgai Oñatin. "Sare sozial horrekin, mendi martxak lagunekin partekatu ahal izango dira", azaltzen du Padillak. Ibilbideak jaitsi eta GPS edo smartphone bidez haiek egiteko aukera ere ematen du.

Etorkizunerako proiektu horiek guztiek, orain, interesdun enpresa ausarten laguntza beharko dute egia bihurtzeko.

DATUAK

%31

GERTU DAUDE

Gazteen Behatokiaren galdeketa bati erantzunez, gizonen %31ek esan zuten gertu leudekeela euren enpresa sortzeko.

35

URTE

EAEko ikerketa baten arabera, bere negozioa abiaraztea planifikatzen hasten diren gehienek 35 eta 37 urte artean dituzte.



aek-k
hitza ematen dizu
euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu

eman izena

PERFIL GUZTIAK | MINTZA TALDEAK | ALFABETATZE | AUTOIKASKUNTZA

MATRIKULA zabalik, 2011-9-30era arte
11:00etatik 13:00etara - 18:00etatik 20:00etara
Bekak Arrasateko Udalaren eta HABEren laguntzaz!

DEBAGOIENAKO AEK EUSKALTEGIA ARRASATE
Garibai 14 • 943 77 03 69 • arrasate@aek.org

Gogoratu Guran: "Ez dira izen soilak, pertsonak dira eta argazkiak biltzeko laguntza behar dugu"

Oñatiko Santa Ana antzokia gainezka, faxismoaren biktimei egindako omenaldian; barruak mugitu ditu

A. MONEDERO/M. ARREGI | OÑATI
Faxismoaren biktimei hitza emateko, justizia bila, *Gerrako garrak Oñatin* dokumentala aurkeztu

dute. Gogoratu Guran taldeko Idoia Etxeberriak Oñatin bi aldeetako 121 hildako izan zirela gogorarazi zuen. Hain zuzen ere,

Oñati izan zen Gipuzkoan errepresio handiena jasan zuen herrietako bat: denera, 737 herritar zigortu zituzten era batera edo

bestera. Baina hildako askoren argazkiak falta dira. Horregatik eta izen bat baino gehiago pertsonak direlako, argazki horiek batzeko deia egin zuten atzo jendurrean. Omenaldian, jendearen izenez gain, euren argazkiak, aurpegiak ere ikusteak merezi duela azpimarratu zuen Etxeberriak.

Santa Ana aretoa gutxitan bezala beteta, jende asko pasilloan eserita edo zutik geratu zen; beste asko, berriz, kanpoan.

Liburua urte bukaerarako

Askotariko pentsaeretakoko 50 testigantza inguru batzen dituen liburuak urte amaieran ikusiko du argia. "Zigortu asko izan ziren, abertzaleak, ezkertiarak, errepublikarrak, anarkistak edo haien senide zirenak. Batzuk baztertuak geratu ziren eta besteak goratuak". 75 urteko isiltasuna asko dela adierazi eta herritarrek gertatutakoa jakiteko eskubidea dutela aldarrikatu zuen Etxeberriak. Atzoko aurkezpenean aurreratu zuten, liburuak, bereziki, emakumeek gerran egindako lan garrantzitsua azpimarratuko du.



Omenaldiei egindako lore eskaintza. | JOSETXO ARANTZABAL

Bederatzi hilabete barru iritsiko da txartel bakarra

MAIDER ARREGI | DEBAGOIENA

Larraitz Ugarte Bide Azpiegitura eta Mugikortasun diputatuak eman du jakitera: bederatzi hile barru martxan jarriko da txartel bakarra Gipuzkoan. Hala, EuskoTren, Renfe, DBus eta Lurraldebus zerbitzuak txartel bakarrarekin erabili ahaliko dira. "Gobernu aldatetarik atzeratu da proiektua, baina akordioa sinatuta dago. Gipuzkoarren dako une garrantzitsua da eta horregatik gogor ari gara lanean", azaldu du Ugartek.

Bestalde, eskualdeetako garraio publikoaren zazpi mapak aurkeztu dituzte. Horietan, lurralde bakoitzeko autobusen eta trenen ordutegiak eta ibilbideak jasotzen dira. Mapa guztiak webgune honetan kontsulta daitezke: www.mugipuzkoa.com.

Eguneko zentro baten itxaron zerrendan 1.200 gipuzkoar baino gehiago

MAIDER ARREGI | DEBAGOIENA

Gipuzkoako batz besteko itxaron aldia eguneko zentro edo zaharren egoitza baterako sei hilabetetako da (191 egun), baina kopuru hori ez bera eskualde denetan. Debagoieneko itxaron aldia 75 eguneko dela eman du jakitera Txelo Perez Aldundiko Dependentziaren Arreta Sailko zuzendariak.

Honen harira, Ander Rodriguez Gizarte Politikarako diputatuak adierazi berri du egungo ereduaz aztertu eta birplanteatu beharra dutela. "Zailtasun ekonomikoaren gaitetik, epe laburrean, itxaron zerrendaren arazoari aurre egitea da gure asmoa".

Bio nekazaritzaren onurak bultzatu asmoz

Euskal Herriko eta Brasilgo kontsumo taldeko ordezkariak izan dira topaketan

MAIDER ARREGI | ARAMAION

Barikuan eta zapatuan, Euskal Herriko kontsumo talde ezberdinek eta ekoizleek bat egin dute esperientziak eta hausnarketak elkar trukatzeko, Aramaion. Besteak beste, Portugalete, Donostia, Orozko, Urduña eta Laudiotik etorritako kontsumitzaileak eta ekoizleak hartu dute parte topaketan. Eta Brasilgo nekazari

txikien mugimenduko ordezkariak ere izan dira eurekin. Bizkaiko ekoizle elkarterako kideak bizitzeko modu bat dela azaldu zuen: "Haurren hezkuntzan ezinbestekoa, bizitzeko era bat da". Kepa Lizarralde Aramaioneko kontsumo taldeko kidearen arabera, "baserriaren bizitza piztu behar da; baserria produktore nagusia da. Jendea oso interesatuta dago eta

informazioa eman behar zaio euskal produktoreekin harreman bultzatzeko. Komunikazioa indartuko dugu aurrera egiteko eta jendea kontzientziatzeko". Jendearen arrera ona izan dela gaineratu zigun Lizarraldek eta inguruko herrietatik ere otzarak eskatu dizkietela. "Naturak markatzen du eta, sasoiako produktuen arabera, mugitzen dira kontsu-

mitzaileak. Ondo planifikatu behar da eta euren beharra zein den jakin".

'Marrazoan' aurrean, kezka

Topaketa hauetako gai eta kezka azpimarragarriena enpresa handien jarrera izan da. Kontsumo taldeen eredu gustatu egin zaie eta kopiatzen hasi direla azaldu zuen Nekasare taldeko koordinatzaileak. "Jendea oso argia da eta badaki marrazoen eskaintzen dutena zer den. Elikagaiak osasuntsuak eta naturalak badira horrek egingo du aurrera".

Enrike Letona | Preso ohia

"Presoak prozesuaren parte garrantzitsua dira eta zer esana dute aurrera egiteko"

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Atzo bete zen urtea hainbat eragile politiko, sindikal eta sozialek *Bakebidean aterabide demokratikoaren akordioa* sinatu zutenetik eta bi egun lehenago akordioarekin bat egin du Euskal Preso Politikoen Kolektiboak. Enrike Letona arrasatearrarekin izan gara. **Urrats honek gatazkaren konponbidea ekarriko du?**

Beste batzuk ere eman behar dute urratsa. Ezker abertzalea eta

beste eragile batzuk pausoak ematen ari dira etengabe prozesu hau martxan jarri zenetik. Orain denek onartzen dute prozesu hau aurrera joango dela, nahi edo ez. Izan ere, badirudi estatuari ez zaiola interesatzen prozesu hau aurrera ateratzea. Indarkeria zegoenean kexu ziren eta orain, ez dagoela, berdin jarraitzen dute; konponbiderik izatea ez dutela nahi dirudi. Presoak parte hartu behar dute pro-

zesu honetan, gehien sufritzen dutenak dira eta badute zer esana; lagungarriak dira prozesu aurrera eramateko.

Presoen eskubideez hitz egiten du Gernikako Akordioak.

Espetxe politikarekin apurte behar dela esaten du. Ez dugu ahaztu behar sakabanatuta daudela estatu osoan eta horrek zigor erantsia suposatzen duela: isolatuta, familiak milaka kilometro egiten, Parot doktrina...

Kolektiboak akordioa ez zuela osorik bere egingo iradoki zuten...

Komunikatua irakurtzen badugu argi dago bat egiten dutela osotasunean akordioarekin. Euren komunikabideak erabiltzen dituzte jendearen iritzia publikoan manipulatze eta ematen du ez dutela prozesuak aurrera egitea nahi.

Espainiako Gobernutik "urrats inportantea" dela esan dute.



Enrike Letona. | GOIENA

Orain ikusi behar dugu eurek zein urrats ematen duten. Ea nola ekartzen dituzten Langraitzeko kartzelara preso guztiak, gaixorik daudenak kaleratu... azken finean legea betetzea da. Jendeak horren kontzientzia hartu behar du. Estatuak ikusi behar du jendea kontra dagoela; kaletik presioa egin behar dugu presoak etxera etortzeko".

Maixol Iparragirrek bertan behera utzi du gose greba

Maixol Iparragirreraren gaineko euroagindua atzeratu egin dute. Hala, Iparragirre preso eskoriatzarrak, beste bost kiderekin batera, gose greba bertan behera uztea erabaki du. Kartzelako bizi baldintzak hobetzea ez dute lortu, baina bai euroagindua atzeratzea. Bestelako borrokekin jarraituko dutela gaineratu dute.

Inaxio Azkarraga-Urizar, Mankomunitateko presidente

Jesus Elortza izango da lehendakariordea; hilaren 28an gainerako ardurak banatuko dituzte

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Arrasateko alkate Inaxio Azkarraga-Urizar izendatu dute Mankomunitateko lehendakari. Lehendakariorde, berriz, Bergarako alkate Jesus Elortza izango da eta diruzaina, Oñatiko zinegotzi Leire Egaña.

Kargu berria "ilusioz" hartu duela esan du Azkarraga-Urizarrek, eta gehitu: "Beste erronka bat da. Orain, batzartzen hasi, gaiak aztertu eta erabakiak hartzen hasi beharra dago".

Zaborra batzeko atez ateko sistemaren gainean galdetuta,

aurreko gobernuak hartutako erabakiarekin aurrera egingo dutela azaldu du, eta datozen lau urteotan "nola garatzen" duten aztertzen hasiko direla. Ildo horretan, "Mankomunitatearendako ingurumenak garrantzi handia" duela azpimarratu du, eta horri emango diotela lehentasuna.

Hilaren 28an batzarra

Eguen arratsaldean eratu zuten Mankomunitateko Gobernu Batzar berria eta han aukeratu zuten Arrasateko alkatea Mankomunitateko presidente.

ESANAK

"Ingurumenak garrantzi handia du eta horri emango diogu lehentasuna"

INAXIO AZKARRAGA-URIZAR
MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIA

16:00etan hasi zuten Gobernu Batzarra eratzeke bilera bailarako zortzi Udaletako ordezkariak eta ordu erdi inguru iraun zuen. Datorren eguaztenean, irailak 28, 16 batzarkide berriek bilera egingo dute eta han erabaki eta banatuko dituzte batzordeak.



Mankomunitateko Gobernu Batzar berriko ordezkariak, eguneko batzarraren ondoren. | JOKIN BEREZIARTUA

Kooperatiben antolaketa diagnostikatzeko galdetegia prestatzen dihardu MUK

Sarean erantzuteko galdetegia da, kooperatiba txiki eta ertainendako

M.B. | BERGARA

MIK, Mondragon Unibersitateko ikerketa zentroa, Jaurilaritzako Gizarte Ekonomiako zuzendari-tzarendako proiektua garatzen ari da. Proiektuaren helburua da Internet bidez osatzen den galdetegi bat diseinatzea, eta kooperatiba txiki eta ertainei zuzenduta dago. Galdetegi horrek kooperatibei lagunduko die antolaketaren funtzionamendua, laneko klima eta printzipio kooperatiboen inguruan bazkideek dituzten pertzepzioen gaineko gaiak ezagutzen. Azken batean, MIK-en helburua da erabiltzeko erraza den diagnostikorako tresna bat sortzea, emaitzak oso azkar eman-garatu eta kostu baxukoa.

Jatorrizko galdetegia Kanda-dako kooperatibendako osatu zen eta han arrakasta handia izan zuen. Bada, MIKek euskal kooperatibetara egokituko du galdetegia.



Egubakoitz goizean batu ziren Enpresagintza Fakultatean. | GOIENA

Proiektua dagoeneko aurreratu dago eta fase horretan kooperatibismoaren alorrean lan egiten duten agenteei galdetegiaren edukiari buruz kontsulta egin diete. Hain justu, egubakoitzean batu ziren Enpresagintza Fakultatean, Jaurilaritzako Eko-

nomia Sozialeko zuzendaria, Kooperatiben Goren Kontseiluko idazkaria eta Nekazaritzako kooperatiben federazioa, GEZKI, Lanki eta hainbat kooperatibetako gerente edo arduradunek proiektua aztertzeke aukera izan zuten.



Arrate Bengoa. | GOIENA

Arrate Bengoa | Pediatra

"Zuzeneko harremana da zorriak kutsatzeko modurik egokiena"

Pedikulosiaren Informazio Zentroak zorrien gainean ohartarazi du eskolara itzuleran

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Udako oporretan zorriekin kutsatzen dira ume asko, eta, ondorioz, eskolara itzulerara sasoi kritikoa izaten da. Horren arrazoiak eta nola aurre egin azaldu digu Arrate Bengoa Bergarako anbulatorioko pediatriak Goiena telebistan.

Uda ostea sasoi egokia da zorriandako. Zergatik? Umeek igeritarako bainu-txanoak trukutzen dituztelako, toallak...?

Zuzeneko harremanez kutsatzen da gehiago txanoekin-eta baino: buru bat beste buru baten ondoan dagoenean arrisku handia dago kutsatzeko; hori da modu egokiena kutsatzeko. Ze gertatzen da udan? Gure bizimodua asko aldatzen da, erlaxatu egiten gara eta kalean gehiago egoten gara, kanpalekuetan... Zuzeneko harreman horiekin umeak kutsatu egiten dira, eta, gurasoak konturatu ezean, umeak eskolara bueltatzen dira zorriekin.

Hortaz, gomendagarria da umea eskolara bidali aurretik errepassoa egitea.

Ez da ideia txarra.

Posible da nagusiek ere izatea?

Bai, posible da, baina azal kontuengatik eta PHagatik errazagoa da nerabazarora arte izatea, baina arriskuan guztiok gaude.

Nola begiratu behar zaio umeari zorriak dituen edo ez jakiteko?

Ikasi egin behar da zorriak nola koak diren. Gurasoek askotan egiten dute kontsulta esaten umeak azkura duela, baina zorririk ez duela. Baina egon egoten dira. Argi ona behar da burua begiratzeko, eta denbora eta pazientzia. Izan ere, zorriak askotan ez dira erraz ikusten; ezkutatu egiten dira, edo gutxi daude eta ez dira antzematen. Baina bartzak, haien arrautzak, hobeto ikusten dira. Belarri ostean eta lepo aldean

egoten dira, eta argi on batekin nahiko ondo ikusten dira. Bartzak ez dira erraz kentzen, pega-pega eginda egoten dira eta hori da zikin zein azal zati batekin bereizteko modua. Tira egin behar da.

Umeak zorriak dituela konturatu gero, zer egin behar dugu?

Lehenik eta behin, ziurtatu egin behar dugu zorriak dituela umeak. Ez da komeni ezer botatzea burua soilik prebenitzeko asmoz. Zorria dagoenean, egokiena da orrazia ondo pasatzea, handiena kentzeko. Gero, erabaki egin behar da sistema mekanikoa bakarrik erabiltzen jarrailu nahi den, hau da, orraziaren bidea, edo kimikoa ere egin behar den. Kimikoaren kasuan, hipermetrina eta familiako likidoz gain, badaude silikonazko berriak. Horiek egiten dutena da burua estali eta zorria deshidratatu, eta hil egiten da. Gai kimikoak erabiltzen badira, sistema mekanikoa ere erabili behar da. Mekanikoa bakarrik erabiltzen bada, hau da, orraziarena, oso zorrotza izan behar da eta egunero egin; bestela, ez da eraginkorra. Errazena izaten da mistoa egitea: likidoa erabiltzea, baina orrazia ere pasatzea, oso inportantea da-eta. Bestalde, likidoaren kasuan, kontua ez da behin botatzea eta listo. Gutxienez, hilabetean egin behar da tratamendua; hau da, lau astean egitea komeni da, baina, normalean, behar izaten dira sei edo zortzi aste.

"Likidoen kasuan, gutxienez, lau astez egin behar da tratamendua"

Euskadiko Kutxak uste du 2012ra arte ez dela enplegurik sortuko

- ▶ Euskal ekonomia hazi egingo da aurten, baina "ez da nahikoa" izango lana sortzeko
- ▶ 2010 "gazi-geza" izan da ekonomian, eta "zor subiranoaren krisiaren" urtea ere bai

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Euskadiko Kutxaren iritziz, 2012. urtera arte Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia ez da haziko, eta ez du enplegurik sortuko. Entitateak aurreikusten du gaur egun langabezian dauden batzuek lana topatzea, baina kopuruak ez dira nahikoa izango, ardura-dunen iritziz, langabezia tasa txikitzeko.

Datu eta balorazio horiek jakinarazi zituzten Euskadiko Kutxako zuzendariordeak, Xabier Egibarrek, eta Ikerketa Zuzendariak, Joseba Madariagak, 2010e-

ko Euskal Ekonomiari buruzko Txostena aurkeztu zutenean.

Inflazioa, handiegia

Joseba Madariagaren hitzetan, "krisialdiaren amaiera urruti dago oraindik, eta 2012ra arte itxoin beharko dugu hazteko, enplegua sortzeko eta langabezia-tasa txikitzeko. Dena den, inflazioa handitzearen eta, bereziki, herrialdeen zorpetzearen inguruko zalantzek tinko jarraitzen dute, eragozpen gisa. Horregatik, ekonomiaren lehiakortasuna aldagai garrantzitsua da etorkizunari begira". Zen-

tzu horretan, gogorarazi zuen "ekonomia lehiakorra izateko eragile garrantzitsua dela produktibitatea", batetik, eta "giza kapitala, azpiegitura konplexuak eta erakundeak sortzen lagunduko duen egitura instituzional sendoa izatea", bestetik.

"Lan-merkatu narriatua"

Mondragon Korporazioko kreditu kooperatibaren iritziz, 2010. urtea historiara pasatuko da honako ezaugarrietatik: estatuak oso zorpetuta egon dira, eta horrek, zerga-gaietan egin den "ahalegin

handiari" batuta, Europako herrialde periferikoetan "zor subiranoaren krisia" sorrarazi du. Euskal ekonomiarendako urte "gazi-geza" izan da: "Ekonomia hazten hasi den arren, oso ahul jarraitzen du. Zalantzarik gabe, hori ez da nahikoa, krisialdiak utzi digun lan-merkatu narriatuaren erregistroak hobetzeko", esan zuen Xabier Egibarrek.

Euskadiko Kutxak aztergai dituen eremuak hazi egingo direla uste dute: %1,4 EAE, %1,6 Nafarroa eta %0,9 Espainia.

"Ez dugu fusiorik behar"

Bestalde, *Estrategia Empresarial* aldizkariaren arabera, Xabier Egibarrek esan zuen Euskadiko Kutxak ez duela bategite edo aliantza "beharririk", izan ere, "bere proiektua dauka, kaudimen handikoa" eta %11,5etik gorako *core capital*-a dauka; horrez gain, batez bestetik azpiko morositate tasa du, eta likidezian "oso ondo kokatuta" dago. Gaineratu zuenez, Euskadiko Kutxari Europako stress azterketak egin izan balio, "lidergo postuetan" irten izango zitekeen.

Abenduan, 4.000 lanpostu gutxiago

Euskadi uste baino gutxiago haziko da urte bukaerarako, eta enplegua ere txikitu egingo da: urte amaieran, 4.000 lanpostu gutxiago egongo dira. Horiek dira Confebaskek joan den astelehenean prentsa agerraldian eman zituen aurreikuspenak. Bilbon aurkeztu zuten Egoera Ekonomikoko Txosten batean, Confebaskek euskal ekonomiarentzat 2011. urtean hazkunde aurreikuspenak %0,8an murriztu ditu, hasieran pentsatzen zena baino 5 hamarren gutxiago. Hori enpleguan nabarmenduko da ere, %0,4ko murrizketarekin. Euskal ekonomia urtearen 2. hiruhilekoan moteldu egin dela nabarmentzen du.



Nuria Lopez de Gereñu, Miguel Angel Lujua (presidentea) eta Eduardo Aretxaga Confebaskeko kideak. | CONFEBASK

ESANAK

"Krisi amaiera urruti dago; 2012ra arte itxoin behar da"

JOSEBA MADARIAGA
IKERKETA ZUZENDARIA

DATUA

%1,4

HAZIKO DA

EAEko ekonomia %1,4 haziko da urte bukaerarako, Euskadiko Kutxaren arabera.

DBE enpleguarekin lotu behar dela uste dute herritarren %97ek

- ▶ Gizarte Gaietako Sailak 1.000 herritarri egindako inkesta bat aurkeztu du

L.K. | ARRASATE
Euskadiko herritarren %97ek uste dute Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) hartzaileek lanean hasteko borondatea erakutsi behar dutela. Inkesta bat egin du Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, 1.000 herritar baino gehiagori galdeketa eginez, eta horixe da emaitzetako bat. Gemma Zabaleta sailburuak eman zuen ikerlanaren emaitzen berri eguen goizean. "Gizarte-politikarik onena enplegua da, eta lege horri esker

subsidiotik enplegura igarotzea da helburua", gogorarazi zuen.

Inkestaren beste ondorio batzuk hauek dira: %95,5ek esan dute lanik eta baliabiderik gabe geratuz gero eta langabezia agortuz gero, Diru-sarrerak Bermatzeko prestazioa jasotzeko aukera nahiko luke; %97,2k uste dute erakundeek gizarte-prestazioak kontrolatu behar dituztela iruzurra eragozteko; eta %88,8en ustez, hartzaileak prestazioa galdu beharko luke, lan egiteko gaitasuna izanda, enplegu

-eskaintza egoki bati uko egin edo prestakuntza-ikastaro batera huts egiten badu.

Urtero 600 lagun diru barik

Gizarte Politikako diputatu Ander Rodriguezek berriki salatu duenez, "Gipuzkoan bakarrik 600 pertsona inguru geratuko dira urtero laguntza ekonomiko hau gabe", eta hau gaineratu du: "Argi dago murrizketa hauen atzean dagoen ideia: txiro eta migranteen kriminalizazio, eskusio eta jazarpena".

Merkataritza berritzeko programak 43 milioiko inbertsioa eragin du

Eusko Jaurlaritzak 4.153.693,96 euroko aurrekontu-hornidurarekin bultzatu duen Euskal Merkataritza modernizatze programak 43,4 milioi euroko inbertsioa eragin du 2011ko ekitaldian, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak aditzera eman duenez. 1.915 eskaera jaso dituzte (postaz bidalitakoak oraindik zenbatu gabe), iaz aurkeztutakoak baino ia %7 gehiago. Araban 156 bildu dira, Gipuzkoan 816 eta Bizkaian 943. Irailaren 16an itxitako programari esker %13,5 gehitu ahal izan da aurten saltokiek modernizatze egin duten inbertsioa.

Egun bateko soldata eskatzen du Caritasek langabeen alde

Caritas Gipuzkoak dei egin die herritarrei, lanik gabe geratu direnen alde egun bateko soldata eman dezaten. Horrela hasi du bere kanpaina berria, langabeei laguntzeko. Kanpaina horrekin, Caritas Gipuzkoaren helburua da "krisiak eta langabeziak jota dauden milaka eta milaka gipuzkoarrei erantzutea".

Era berean, dei egin diete erakundeek, "benetako eta egiazko politikak" egin ditzaitez, "enplegu duinaren" aldekoak eta "ez babes sozialak murriztuz, baizik eta haiek sustatuz eta baliabide berriak sortuz".



Jose Luis Gorrotxategi, eguaztenean Oñatiko kultura etxean egin zuen hitzaldiaren ostean. | IRATI GOITIA

Jose Luis Gorrotxategi | Aholkulari juridikoa eta espetxe pastoraleko idazkaria

"Ez da kriminalitate txikiagoa egongo kartzela gehiagorekin, hori okerra da"

- ▶ Azken bederatzi urteotan boluntario lanetan dabil Martuteneko kartzelan
- ▶ Uste du gizarte osoaren eginbeharra dela presoen birgizarteratzea

IRATI GOITIA | OÑATI

Jose Luis Gorrotxategi aholkulari juridikoa da, eta baita espetxe pastolareko idazkaria Donostiako elizbarrutian. Azken bederatzi urteotan boluntario lanetan ere badabil Martuteneko kartzelan. Hark dio beharrezkoa dela espetxeen inguruko klixek albo batera utzi eta errealtatea ezagutzea. Gaineratzen du presoaren birgizarteratzea gizarte osoaren eginbeharra dela.

Zertan datza birgizarteratze prozesua?

Birsozializazio prozesua, batetik, berriz heztea da, kultura eta hezkuntza aukera berak eskaintzea espetxe barruan dauden pertsonen eta libre daudenei. Bestetik, birgizarteratzea da presoaren eta gizartearen arteko harremanak bultzatzea. Eta, batez ere, kartzelak gizarteari zabaltzea, elkarte eta instituzioei bertara sartzeko posible eginda. Horretaz gain, bermatu behar da presoek laguntza publikoak jasotzen dituztela.

Beraz, presoek ez dute gizartetik bereizi behar, gizarteko parte aktibo izan behar dute.

Izan ere, badira. Espetxeke barne araudiak berak dio gizartearen parte direla. Gainera, eskubideak dituzte beste pertsona guztien

modura. Egia da hainbat eskubide murrizten zaizkiela, jasotako zigorraren ondorioz, esaterako: askatasuna, biltzeko eskubidea edo zirkulazio librerako eskubidea. Baina legalki eta konstituzionalki onartutako eskubideak dituzte.

Birgizarteratze prozesuan zein urrats egin behar dira?

Hiru etapa bereizi behar dira: prebentzioa, espetxean daudenean laguntza materiala eta pertsonala, eta kartzelatik irten ondorengo asistentzia. Behin espetxetik irten ostean, alternatibak eskaini behar zaizkio presoari, ez dadin inongo errekurso ekonomiko, laboral eta formatibo barik aurkitu. Aukerak eman behar zaizkio lanpostuak lortzeko eta harreman sozialak izateko.

Presoendako, laguntzarik ez izatea izango da zailena.

Euskarririk ez izatea da euren dako zailena, nori heldu ez izatea; lan eta hezkuntza aukerak eman go dizkien inor ez izatea. Izan ere, eurek ere guk bizi dugun gizarte latzari egin behar diote aurre, baina eurak desabantaila egoeran daude. Izan ere, kartzelan egon izanaren estigma handia da.

Preso bakoitzarendako plan indibiduala egiten da?

Bai, preso bakoitzaren egoera eta beharrak aztertzen dira, eta, horren arabera, hari dagokion tratamendu indibiduala zehazten zaio. Ez da gauza bera drogekin arazoak baditu edo genero indarkeriaren gatik zigortua izan bada.

Birgizarteratze prozesuaren helburua presoaren izaera aldatzea izaten da?

Presoek eurek eginiko hautua izan behar du. Pertsonak eskubidea du gaizki edo ondo egin duen hausnartzeko, eta, gaizki egin duela pentsatzen badu, berea da aldatzeko hautua. Baina funtsa ez da presoaren izaera aldatzea gizarteak nahi duen modukoa izan dadin; baizik eta bera zoriontsuagoa izatea eta maitatuagoa sentitzea.

Gizarteak zein ikuspegi du presoaren eta birgizarteratzearen gainean?

Nik uste dut orokorrean jende gehienarentzat arrotza dela espetxe mundua. Klixek eta topiko batzuk daude, eta, horien arabera, espetxean dagoen oro gaiztoa da. Baina egun kartzelan sartzeko ez da hain zaila; gero eta errazagoa da, adibidez, bide-segurtasunagatik. Nik uste dut ezjakintasun handia dagoela eta jendeak espetxe mundua alboratu nahi izaten duela.

Egia jakitea garrantzitsua da?
Ezinbestekoa da esparru hori eza-

gutzea. Eta onartu beharra dago norbait kartzelara joatearen arrazoia gizartearen bertan indarrean dauden bazterte mekanismoen ondorio dela. Mekanismoak eragiten dute pertsona batzuek delituak egitea. Beraz, gizarteak horren kargu egin behar du, bere erantzukizuna delako. Gizartearen eginbeharra da; ez da indar publikoen, funtzionarioen edo boluntarioen egitekoa bakarrik.

Sinisten da birgizarteratzean?

Autore penalen gehiengoak mito hutsa dela dio. Esaten dute praktikan ezin izan direla presoaren jarrera deliktiboak aldatu espetxe tratamenduaren bitartez.

"Egun, ez da hain zaila espetxean sartzeko; gero eta errazagoa da"

"Presoen eta gizartearen arteko harremanak bultzatu behar dira"

Zuk sinisten duzu?

Nik sinisten dut birgizarteratzean, eta baita Jainkoarenganako maitasunean ere. Jainkoak pertsona guztiak maite ditu gauza guztien gainetik, eta beti eskaintzen du beste aukera bat. Denok izaten dugu bigarren aukera bat eta eurek ere izan behar dute. Eurek bizi izandako egoera pertsonal, familiar edo sozial zailetan, zeinek daki nik neuk zer egingo nukeen. Guk bizi izan ez ditugun zailtasunak bizi izatea egokitu zaie eurei, eta hori kontuan izan behar dugu.

Birgizarteratzea ez da panazea, baina sistema penala humanizatzen lagundu du. Garrantzitsua da kartzela zigorrari alternatibak bilatzea, hala nola isun zigorra –aditu askok diote etorkizuneko zigorra izango dela– eta gizartearentzat lan egitea edo etengabeko lokalizazio sistema ezartzea. Hala ere, espetxean sartzeko galarazteko onena gizarte politikak indartzea da.

Horretan egin beharko litzateke ahalgin handiagoa?

Adibide bat: 1986an Finlandian 100 preso zeuden 100.000 biztanleko. 20 urtera zifra erdira jaitsi zen eta kriminalitateak ez zuen gora egin. Jendeak uste du zenbat eta espetxe gehiago egon, kriminalitate txikiagoa egongo dela. Hori izugarriko akatsa da. Kriminalitate txikiagoa izango da aukera bedintasun handiagoa badago eta prebentzio sozial eta penalen politika egokia egiten bada.

Uste duzu politika penala aldatu egin behar dela?

Legeak idatzita daude eta berdinak dira guztiontzat, baina agintean dauden politikariek zeresan handia izaten dute. Azken urteotan tratamendu penala asko humanizatu da, asko egin da aurrera lehen aipatutako neurri alternatiboetan. Uste dut hori dela jarraitu beharreko bidea eta indartu behar dena.

Presonizazioa ere bizi izan dezakete presoek.

Presonizazioa gertatzen da espetxeratuak aske bizi izateko ohitura eta kapacitatea galtzen duenean. Presondegian bizitza oso araututa dago: ordutegi zehatzak, hainbat gauza egiteko debekua... Presoa ez arriskatzera ohietzen da eta dituen segurtasunei heltzen die: janaria, ohea eta zenbat eta arazo gutxiago, hobeto. Gero, bizitza askera irtetzen denean, ohartzen da ez dagoela gertu horri aurre egiteko. Horregatik ireki behar zaizkio gizarteari kartzelak. Birgizarteratzea ez da espetxera mugatu behar, prebentzioan egin behar da lan, baita kartzelatik irten ostean ere.

"Delitua egitea gizarteko mekanismoek eragiten dute"

"Garrantzitsua da kartzela zigorrari alternatibak bilatzea"

ZABALIK

MAITE ARISTEGI
http://goiena.net/iritzia/



Jatekoarekin jolasik ez!

Hemen dugu udazkena, naturaren beste hainbat edertasunekin batera, baserrietako ortu eta soroetan jasotako jakirik goxoenen desfileaz gozatzeko aukera paregabearekin.

Izan ere, zenbait herritako azoka bereziek ikusgarritasunean Cibeleko moda pasarela dirudite. Baina, aukeran, ikusleak bai, baina erosleak gutxitxo, eta eurak, gainera, egun batekoak. Oraindik ez gara konturatzaren gure inguruan eta lurra errespetatuz lortutako produktuak egunero kontsumitzearen keinu horrek daukan garrantziaz. Zorionez, baina, gero eta gehiago dira produktuen jatorriaz eta produzitzeko eraz kezka agertzen dutenak, saltoki handien uniformizazio eta halamoduzko eskaintzaren aurrean gertuko eta konfiantzazko erosketara jotzen dutenak (azokak, denda txikiak, etxez etxekoa...).

Eta hortxe dago etorkizunaren gakoa; herri mordoxka batean sortzen ari diren kontsumo taldeetakoak ere frogatzen ari dira erosteko modu hori tresna politiko-ekonomiko oso garrantzitsua dela, baserriaren egoera negargarriari iraulia eman diezaiokena, euren osasunari laguntzeaz gain, hainbat baserriaren geroa ziurtatu eta lanpostu berriak sortuz. Argi dago administrazioen azken 30 urteetako politika beldurgarriak aldatzeko mila errebindikazio egin ditzakegula, baina gutariko bakoitzak egunerokotasunean ez badu ahal duena egiten, alferrik.

Duda barik, etxean zein kanpoan, egunero sano jatea oinarritzko eskubidea da, administrazioak bere esku dagoen guztian bermatu behar duena. Baina gizarte baten baloratuenak beharko luketenez, zaharrek eta umeek, zer jaten dute, egoitzetan, jangeletan? Badakizue ume bakoitzaren menua gastu guztiak barne 7 euro inguru bada ere, Jaurlearitzak baimendutako hiru catering enpresek 12ko dirulaguntza jasotzen dutela? Eta ikastetxeak berea bertakoarekin prestatzea eskatuz gero, ume eta inguruko denda eta baserriendako lekarkoen onura guztiarekin, laguntza ukatu egiten zaiola? Noiz amaituko da umeen jatekoarekin ere negozioa egite hori?

USTEAK USTE

MIRIAN BITERI | mbiteri@goiena.com

Elurra zapalduko ote dugu?

Urrirako eguraldi "ohikoa", azaro erdialderako tenperaturen beherakada nabarmena eta abendurako elurte "garrantzitsuak" iragarri ditu Espainiako Meteorologia Agentziak. Iraila oraindik amaitu barik eta abenduko negu gordinean pentsatzen jarri gaitu dagoeneko Margarita Martinek, agentziak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkariak. Negu gordinean eta hel daitezkeen elurte horiek eragin ditzaketan buruhausteetan pentsatzen, hain justu. Iragarpena egin bai, baina Martinek ez du azaldu zertan oinarritzen den elurte horien berri emateko. Eta esandako elurteak ez badira gertatzen? Iragarpenak zentzuz egin behar direlakoan nago.

KALE INKESTA

Zer iruditzen zaizu Kukutza eraisteko epailearen agindua?



BIXENTE ELORTZA
ARRASATE

"Uste dut akordio batera iritsi behar zirela; elkarrizketa behar zen alde aurretik adostasuna lortzeko auzotarrekin elkarlanean, batera".



JON ANDER MENDIETA
ARETXABALETA

"Ez zait ondo iruditzen. Gaztetxean ekintza mordo egiteko aukera zegoen. Ikusita zela sartu diren gaztetxe barrura... ez dira formak".



ARITZ ZABALETA
OÑATI

"Jendeak sekulako lana egin du gaztetxean eta auzoari bizitza ematen zion. Jarrera zakarra izan dute; beste era batera egin behar ziren gauzak".



ANDONI ASTUDILLO
OÑATI

"Gazteak egoteko lekua zen. Oñatin ere lan handia eginda, azkenean bota egin zuten. Sekulako pena ematen dizu; esfortzu guztia pikutara".

HANDIK ETA HEMENDIK

Autogestioa

Mikel Larreategi
http://eibar.org/blogak/erral/

Azkenaldian askotan entzun dut "autogestioa" hitza, baina zer da "autogestioa"?

Azkenaldian gaztetxeen inguruko kontuak azaltzen direnean behin eta berriz entzun dut hitz hori.

Baina zer da "autogestionatua" izatea?

Bere burua kudeatzen duen zerbaite?

Kanpoko laguntzarik gabe egiten den zerbaite?

Bere burua kanpoko laguntza gabe kudeatzen duen zerbaite?

Definizio-purua horixe izango litzateke ezta?

Baina "autogestioa" esaten denean ez dute hori esan nahi nere ustez, baizik eta "udaletxearen, kultura-etxearen, diputazioaren, eta oro har botere publikoen laguntza gabe kudeatzen den zerbaite".

A, kontxo!

Gaiztoen laguntza gabekoa denean autogestioa da, beste guztia ez da autogestioa?

Eta Kitto ez da autogestionatua?

Edo Arrate Kultur

Elkartea?

Edo Klub Deportiboa?
Ala horiek *gaiztoen* laguntza jasotzen duten momentutik ez dira autogestionatuak?

Eta nire anaiak lagunekin duen lokalean egiten dena "autogestioa" da?

Eta Eibarren dauden hainbat eta hainbat soziedadeak?

Eta bestalde, nola ez da, ba, gaztetxeen mugimendua *autogestionatua* izango?

Ia definizioz edozein laguntza publiko ukatu edo laguntza-eza salatzen badu?

Autogestio diruzlagundu eta interbentzio-gabea nahi duzue?

Bai, dena nik esan dut, zeintzuk diren gaiztoak, zein diren definizioak, eta abar.

Onartzen dut, agian ez dut arrazoirik izango.

Zer da orduan autogestioa?

Humanismoa

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Gaztetan, barra-barra entzuten eta erabiltzen genuen humanismo hitza.

Karlos Santamaria, adibidez, kriseilu baten gisako erreferente argitsua zen euskaldun askorentzat.

Humanista zela esaten genuen.

Haren izena eman diote Euskal Unibertsitateko zentro inportante bati.

Humanismoa zer den?

"Gizakia eta giza balioak gainontzeko guztien gainetik jartzen dituen jarrera filosofia", dio hiztegiaren definizioak.

Hitz hori gabe, ezin da azken mendeotako Europa ulertu.

Azkenaldian, ordea, guztiz desagertu da gure bizitzatik.

Thomas Mannek bere editorearekin izandako solastxo bat jasotzen du bere egunkarian.

Garaiko politikari aleman peto-peto batez ari dira.

Editoreak diotso: "Gizon hori ez da europarra".

Esaldiari zorrotzegia iritzirik, Mannek kargua hartzen dio.

Editoreak, ordea, berean segitzen du: "Ez, ez da europarra, ez baitu tutik ere ulertzen humanismoaz".

Gaur bizi izango balitz, Europa europarririk gabe gelditu dela diagnostikatuko luke.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Eredaktore burua Monika Belastegi
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Goiatz Arana
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekarria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurlearitzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ingelesa, alemana, frantsesa...



Aktiba zaitez MONDRAGON LINGUArekin

Eskola malguenak aktiba itzazu, ordutegien, helburuen, trebetasunen... arabera.

Eskola eraginkorrenak aktiba itzazu, tutore pertsonalizatuarekin eta banan-banako planifikazioarekin.

Berrikuntza aktiba ezazu, teknologia aurreratuenarekin, baita norberaren ordenagailutik eroso egonda ere.

Zure ikasketa aktiba ezazu, gazteenentzako bideojoko didaktikoekin.



**Adin guztiak
Maila guztiak**

%80ek gainditzen dituzte Cambridgeko azterketak

Urriaren 7a baino lehen matrikulatzen diren ikasle helduek **e-book** edo **iPad2** zoragarria jasoko dute opari.



www.mondragonlingua.com

ARRASATE
Araba etorbidea 4 Tel. 943 71 20 55

ONATI
Motxon kalea Tel. 943 71 60 00

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Gregorio Plazaola | HBko zinegotzia Bergaran (1979-1983)

- ▶ Demokraziako lehen udalbatzako kide izan zen
- ▶ 1979an, HBk 5 zinegotzi lortu zituen Bergaran
- ▶ Jose Antonio Zabala (EAJ) zen alkate

"Itxaropen handiak genituen, dena zegoen egiteko eta lanerako gogotsu ginen 1979an"

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Demokraziako lehen hauteskundeak gertu-gertutik ezagutu zituen. 30 urte zituen HBko zinegotzi aukeratu zutenean. Oroitzapen onak ditu sasoi hartakoak. "Lan asko egin genuen denok" dio.

Zela gogoratzen dituzu demokrazia garaiko lehen urte haiek eta lehen hauteskundeak. Zelakoak izan ziren?

Oso giro eta testuinguru berezian egin ziren. Herria batuago zegoen, abertzaletasuna indartsu. Bestalde, guretako gauza berria zen. Pentsa, mitin berba entzun eta geure buruari, "eta zer da hori?", zela egiten dira mitinak?". Gurasoei eta zaharrei galdetu genien zer ote zen. Bestalde, gure zerrendako guztioi argazki bana atera zigun Argazki dendako Pedro Luis Ormazabalek eta panel batzuk egin genituen. Dendetako erakusleihoetan jarri genituen, Herri Batasuna izenburupean.

Ze emaitza espero zenuten?

Berriak ginen. Herri Batasuna sortu berria zen. Eta, bestalde, EAJ indartsu zegoen, artean zati barik, eta jendarte masa handia zuen. Haiek zaharrak zituzten. Guk ez. Orain gazte premian daude EAJkoak...

Bete ziren aurreikuspenak?

Espero baino emaitza hobek lortu

genituela esango nuke. Bost zinegotzi lortu genituen. Oso emaitza onak. EAJk, 9; eta PSOEek, EEK eta EMKk, bana.

Agintaldiko ze oroitzapen daukazu?

Oso ona. Dena zegoen egiteko. Itxaropen handiak genituen. Lanerako gogotsu ginen eta, uste dut, lan asko egin genuela. Udalbatza osoak. Ze, han ez baitzeuden gobernu eta oposizioa, orain bezala. Denak lanean. Jose Antonio Zabala alkateak denak jarri gintuen lanean.

Zabala alkatea (EAJ) zelakoa zen?

Gizon handia; gizon ona. Lan egin eta eragin egiten zuena.

Zu zeu zein arlotan egon zinen?

Osasun arloa neraman; baina, gure beste zinegotzi batek, Hirigintza arloaren ardura zeukan. Pentsa, Hirigintza. Gerora hartu duen garrantziarekin... Javier Suduperen ardura zen hura.

Agintaldi hartako lorpenik garrantzitsu edo entzutetsuenak?

Bergarako saihebidetza agintaldi hartan egin eta inauguratu zen. Hiltegia itxi eta zubia egin zen Herrilagunak kalean, baita San Lorentzo eta poligonoa lotzekoa ere, edota herritik saihebidetza irteko zubi nagusia ere, Torrekuana. Bestalde, Irizar jauregia orduan erosi zen eta baita Arrizuri jauregia ere. Liburutegia egin nahi zen han, baina Ertzaintzaren



Irizar jauregiaren aurrean. Zinegotzi zela erosi zuen Udalak. | ENEKO AZKARATE

komisaria jarri zuten, gure kontrako iritziarekin. Gabiria dorrea ere orduan erosi zuen Udalak.

Eta Usondo?

Baita hura ere. Etxeaundiko jabeek erosi genien Guardia Zibilaren kuartela zegoen orubearren truke —gaur egungo Oxirondo plaza— eta

han etxeak egiteko baimenaren truke. Gero, herriko parke publiko nagusia bihurtuko zen Usondo.

Mizpirualde egoitza ere sasoi hartakoa da?

Ospitalea zegoen lehen han eta hura egokitu eta zaharren egoitza jartzeko proiektuari oniritzia eman zitzaion. Egoitza egiteko aurrekontua zen 117 milioi pezeta.

Bergara izena ere orduan aldatu zenuen, ezta?

Bai, hala da. Vergara izatetik Bergara izatera pasa zen, 1979ko uztailaren 10ean hartu zen erabaki hura.

Eta 1981ean Estatu kolpea...

Kortazarren ginen txikito batzuk hartzen eta lagun bat etorri zitzaidan esatera militarrek Espainiako Kongresuan sartu zirela eta gau hartan etxetik kanpo egiteko lo. Hala egin nuen. Zorionez, hurrengo egunean dena bere onera etorri zen. Beldurra pasa genuen.



Orduko Udalbatza. Plazaola, atzean, ezkerretik hirugarrena. | BUA, ARGAZKI DENDA.

"Sasoi hartan egin ziren saihebidetza, Usondo parkea, zubi nagusiak..."

"Herriaren deitura aldatu genuen: Vergara izatetik Bergara izatera"

MONZONEN PASTORALA

GOIENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA

IRAILAK 26, 15:15

BABESLEA: ARKAUZ ALTZARIAK



HERRIAK



Carmen Martin aldare-mahaia eraberritzen parrokiako klaustroan. | MIREIA BIKUÑA



Mahai txikieta bat Arrasateko tailerrean. | MIREIA BIKUÑA

OÑATI

Jatorrizko mahaia ipiniko dute parrokiako aldare nagusian

- ▶ Arrasateko Carmen Martinen tailerrean eraberritu dute, uztaila ezkerro
- ▶ 1963. urtean Vatikanoko II. kontzilioan hartutako erabakien ondoren kendu zuten

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko parrokiako aldareak jatorrizko mahaia berreskuratu du. Erretaularekin eta orain arte han egon diren bi mahai txikiagoekin ondo ematen duen aldare-mahaia bihar, martitzena, ipiniko dute.

Aldarea dotore gera dadin, Jainkoaren hitza irakurtzeko erabiltzeko, atril berria egin dute. Aldare-mahaiak duen dekorazioa oinarri hartuta pieza berria egin du Jesus Etxezarreta oñatiarrak. "Gaztainondoa erabili dut. Pieza zatika egin dut eta bukaeran zizelkatu egin dut. Bi hilabeteko lana izan da, baina ordu asko sartuta", esan digu egileak.

Egur berriarekin egindako pieza horri, zaharragoek duten itxura emateko, uztaila ezkerro Carmen Martin arrasatearraren eskuetan egon da. Aldareko mahai txikiak tailerrean berritu dituzte. Aldare-mahai nagusia, aldiz, parrokiako klaustroan konpondu dute.

Lau piezek polikromia aldetik itxura bera izateko, hainbat bertze lan egin ditu Carmen Martin zaharberritzaileak: "Mahai nagusia eta bi mahai txikiak garbitu egin ditugu. Egurra, gaztainondoa, egoera onean zegoen. Leku batzuetan zituen kolpeak konpondu egin ditugu, baina, funtsean, garbitu egin ditugu, atzean duten marroi kolorea eta erliebearen urre kolorea agerian uzteko. Nahiko zikin zeuden, baina egoera onean".

Aldiz, pieza berriari antzintasun kutsua eman diote eta jatorrizko piezen koloreak erabili dituzte. "Urre kolorea eta polikromia bera eman diegu. Urrezko laminak erabili ditugu erliebetan. Ondoren, agata harriarekin urre kolorea landu dugu, jatorrizko piezen antza hartzeko", dio Martinek.

Bihar aldarean ipiniko duten mahaiari sakonera handiagoa eman diote. "Oso estua zen, eta

egurrezko pieza ipini diegu zabalagoa izan dadin", esan digu Joxan Larrañaga parrokoak.

Haren ideia izan da parrokiako aldarean jatorrizko mahaia ipintzea. "Oñatira heldu aurretik, beste parrokia baten egon nintzen, eta halako zerbait egin genuen. Hemen konturatu nintzen aldareko mahaiak ez zuela zerikusirik erretaularekin eta bi mahai txikiekin", esan digu.

Kristo gurutziltzatuaren azpian

1963. urte bukaeran Vatikanoko II. kontzilioa egin zuen Elizak. Munduko gotzain guztiak elkartu ziren, eta Eliza Katolikoarendako hainbat erabaki hartu zituzten; besteak beste, meza emateko modua aldatu zuten. Ordura arte elizkizunak latinez ematen zituzten, eta apaizak bizkarra ematen zion herriari. Aldarea erretaulari itsatsita zegoen. Baita Oñatikoa ere. "Erabaki haren atzetik, mahaia erretaulatik kendu eta aldare erdian ipini zuten. Oñatiren kasuan, jatorrizko mahai kendu eta berria egin zuten", esan digu parrokoak.

Mahai hori parrokiaren egon da. Hildakoak sartzen diren atearen parean dagoen Kristo gurutziltzatuaren azpian. "Mahaia ikusi nuenean, berriro aldarera igotzeko proposamena egin nuen parrokiako kontseiluan. Orduan erabaki zuten mahaiak garbitu eta irakurgaietarako pieza berria egitea", dio parrokoak.

Korkostegi alkate zenekoa

23 urtez Oñatiko alkate izandako Reyes Korkostegik hainbat lan egin zituen parrokiaren 1954tik 1961era arte; besteak beste, organoa lekuz aldatu zuen: Doloretako kaperaren alboan zegoen, eta goiko solairura, egun dagoen lekura eroan zuen.

Vatikanoko II. kontzilioa gertatu zenean, hura zen alkate, eta hark erabaki zuen aldarerako mahai berria egitea. "Askok uste

dute Lezoko ebanista batek egindakoa dela, baina Korkostegiren lagun arkitekto batek egin zuen diseinua. Donostiarra zen. Zirriborro haiekin Deogracias Ugarte Igartuak oñatiarrak egin zuen. Frisoa mahaiarekin ondo emateko egin zuten", kontatu digu Carlos Agirrebengoak.

Bihar kenduko duten aldare-mahaia Kristo gurutziltzatuaren azpian dagoen lekuan ipiniko dute.

ESANAK

"Pieza berria egiteko gaztainondoa erabili dut"

JESUS ETXEZARRETA | ESKULTURGILEA

"Vatikanoko II. kontzilioaren ondoren kendu zen mahaia"

JOXAN LARRAÑAGA | PARROKOA

"Funtsean, jatorrizko piezak garbitu egin ditugu"

CARMEN MARTIN | ZAHARBERRITZAILEA



Etxezarretak egindako pieza berriari polikromia ematen. | MIREIA BIKUÑA



Mutikoa harrituta, joaldunari begira. | J.A.



Artisau bat egurra lantzen. | J.A.



Eskaintza zabala izan zen ferian. | J.A.



Eraldoi eta buruhandiak ohikoak diren arren, neska-mutikoen artean zirrara eragiten jarraitzen dute. | JOSETXO ARANTZABAL



Motozerrarekin saioa borobiltzen. | G.A.



Rallyko parte-hartzaileak, lanean. | J.A.



Durana kaleak zuen itxura zapatu eguerdian. | J.A.



San Migelen kontzertua, aurtengo jaietako hitzori

ARETXABALETA

Zapatu gaueko jendetza eta giroarekin goia jo zuten Sanmigelek

Eguerdian aurreko urteetan baino jende gutxiago ibili bazen ere, herria bete egin zen gauerako

GOIATZ ARANA | ARETXABALETA

Bariku arratsaldean, hanka onarekin hasi ziren San Migel jaiak Aretxabaletan. Lunch, dantzaldi, erraldoi, buruhandi eta ikuskizun, ekintza denek izan zuten harre-
ra ona, batez ere, Eidabe taldeak Herriko Plazan eskainitako Kan-

panolue saioak: berbena estiloko emanaldiak arrakasta izan zuen. Eta behin gauean sartuta, musika, herriko taldeen kontu: Gazte Iraultza, The Crackers eta No Hope taldeek eskaini zituzten kontzertuak, Arlutz taberna osteko plazatxoan.

Gisa horretan motorrak berotuta, zapatuan, goizean goiz jantzi zuen jaietako soinekoa herriak: baserritar eta artisauak Durana kalea hartu zuten; trikitilari, txalapartari eta joaldunek musika eta kolorea jarri zizkioten ospakizunari; eta, herritarrek,

festarako gogoia eta humore ona. Lehen orduko euri zaparradak goiztiarrenak harrapatu zituen arren, atertu eta jasotzera egin zuen gero.

Saltokietan denetariko produktuak zeuden: jakiak, bitxiak, jantziak... eta baita artisau bat

baino gehiago tokian bertan lanean ere: larruzko oinetakoak josten eta erroskilak frijitzen, adibidez. Eta salmentak nola zihoazen galdetuta, "nahiko ondo" erantzun zituzten.

Baserritar jantzita

Udalak balkoi eta leihoetan ikurrina jartzeko egindako deialdiak erantzun ona izan zuen eta baita baserritar jantzita joateko eskakizunak ere: herritar asko jantzi zen modu horretan, kaleko arroparekin etorritako bisitarien artean hainbeste zirela ez zirudien arren. Herri bazkarian, euskal gona, alkandora, zapi eta txapelak ziren nagusi, mahai denetan; orduantxe ikusi genuen garbi



ANTONIO ARANA
ARRASATE

"Azoka ikusiz, buelta bat ematera etorri naiz. Baserrian bizi naiz eta etxean badugu nahikoa produktu, baina beti dator ondo besteek zer egiten duten ikustea".



MARI KARMEN FERRERA
HERNANI

"Hernanikoa naiz, baina Aretxabaletako koadrila dut eta egun pasa etorri naiz, baserritar jantzita eta guzti! Orain artekoa oso ondo doa, giro polita dago".



JESUSA SAEZ DE ZAITEGI
ARETXABALETA

"Baserritar jantzirik ez dut eta nire adinarekin erosteko asmorik ere ez! Artoa erosi dut ferian, esnearekin hartzeko. Buelta bat emanda, nahiko; eguerdirako, etxera".



MARIAN MAYO
LAUDIO (ARTISAU)

"Artilea egiten ari naiz galtzeditarako... eta ondo etorri da: goizean euria hasi duenean, batzuk atera ditugu estualditik! Urteak daramatzagu Aretxabaletara etortzen".



DORLETA, ITZIAR, MIKEL ETA NIEVES
ARETXABALETA

"Oso ondo doa Sanmigela. Zapatua ederki aprobetxatu genuen eta herri kirolak ikusten ari gara orain; gerizpea topatu dugu eta primeran gaude! Gustatzen zaizkigu horrelako erakustaldiak; gizon eta emakume, interesgarri dago. Arratsaldean kontzertu berezia izango da eta hortxe izango gara gu ere".



du garrantzitsuenetakoa. | J.A.



Iturrigorri pilotalekua beteta, bazkalorduan. | G.A.

aretxabaletarrek ohitura zaharra mantentzearen alde egin zutela. Iturrigorri pilotalekuan egin zuten bazkaria eta 450 lagun batu ziren. Patatak errioxar erara, oilaskoa patatekin eta tiramisua izozkia-ekin jan zituzten. Bozgorailuetatik, Bizardunak taldearen musika, adibidez; eta zerbitzariak, dantzan.

Arratsalde-iluntze partean, Burrumba Kelele batukadak ederki girotu zituen kaleak. Eskoriatzako jende asko joan zen eurekin Aretxabaletara eta gauerako jendetza batu zen herrian; Bide Batez musika taldearekin, goraino bete zen plaza 01:30 inguruan.

Domeka goizean herri kirol erakustaldia izan zen: Karlos

Aretxabaleta, Ana Berasategi -emakume bakarra-, Alex Txikon, eta Bihurri eta Rodriguez aita-semeak lastoa altxatzen, aizkoran, txingetan edo motozerrarekin. Bero egiten zuen eta eguzki betean aritu ziren lanean. Iluntzean, kontzertu berezia izan zen Herriko Plazan, Leizarra musika eskolaren 25. urteurrenaren aitxakian. Herritarrek ez zuten galdu gura izan.

I. Argazki Rallya

Aurtengo nobedadeetako bat izan da. 11 lagunek parte hartu dute eta hilaren 30ean ezagutaraziko dituzte irabazleak. Ateratako argazkiak Aretxabaletako Artxiboaren parte izatera pasako dira.



IBAN SANDONIS
DEUSTU

"Taloa jan berri, ederki nago oraintxe! Tripa beteta, azoka ikusiko dut orain eta gero herri bazkaria; uste dut, gainera, jatea ez ezik lan egitea ere tokatuko zaidala. Bertan pasako dut eguna".



RAKEL ARENAZA
ARRASATE (BASERRITARRA)

"Ondo doaz salmentak: eguerdi aldera jendea ikusmiran ibili da, baina goizeko lehen orduetan nahiko ondo saldu dugu. Kalabaza lehen aldiz ekarri dut eta patatarekin ere hasi gara".



ESKORIATZA

JOSETXO ARANTZÁBAL

Omenaldia herriko nagusiei

Atzo egun polita igaro zuten Eskoriatzako erretiratuek. 200 lagun inguru batu ziren 65 urtetik gorakoei egindako omenaldian. Urtero egiten duten legez, bazkaria joandako nagusiei oparitxoak egin zieten: Beñat Herce alkateak lore sorta oparitu zion Maria Madinabeitiari eta Ongizate zinegotziak, ostera, txapela jarri zion Bernabe Errastiri. Bazkariaren ondoren dantzaldia izan zuten, eta opariak ere zozketatu zituzten.

BERGARA

Ortuko produktuak dastatzen

Ortuko produktuak erakutsi, saldu eta dastatu zituzten atzo eguerdian, Bergarako San Juan auzoan. Duela hiru hilabete ortu lehiaketa egin zuten, baina garai hartan genero askorik ez zegoela-eta, orduan ereindako hazien fruituak erakutsi gura izan dituzte orain. Auzotarrak eta kaletik etorritakoak batu zituen ekimenak eta baseritarrek ekarritakoak erosi ez ezik, azokan bertan prestatutako plater gozo askoa ere dastatu zuten. Datorren urtean berriz eta, ahal bada, hobeto.



JEXLUX AGIRRE



OÑATI

JOSETXO ARANTZÁBAL

300 lagun Ulmako bazkarian

Ulmak kooperatibaren 50. urteurreneko ospakizunekin jarraitzen du; zapatuan, bazkaria egin zuten, kiroldegiko kantxan. Langile, bazkide eta erretiratu, 300 lagun baino gehiago batu ziren, giro ezin hobean. Otxote batek kantuan egin zuen; eta Oihan Vegak, animazio lanak. Hainbat sari zozkatu zituzten eta Ulma Piping-eko Xalbador Urizarrek eraman zuen nagusia: bi lagunentzako asteburua Parisen.



Barakaldoko Malaka dantza taldearen emanaldia domeka eguerdian. | JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE

Euskadiko andaluziarrak gustura Arrasaten

Montilla eta Arrasate senidetzeko proposamena egin dio Montillako alkateordeak Arrasateko Udalari

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE
Jaki goxoen artean dantzan eta kantuan eman dituzte hiru egun. Euskadiko andaluziarren festa izan da, baina festa irekia egin dute eta antolatzaileen esanetan asko izan dira ospakizunetan eurekin bat egin duten arrasatearrak. "Lan talde bikaina izan dugu lagun: Al-Andalus elkarte-kideak. Lan bikaina egin dute", adierazi du Euskadiko andaluziar etxeen elkarteko presidente Juan Graciak.

Euskadi osoko 12 andaluziar etxek izan dute ordezkari-tza Laubide plazako karpan, baita Kor-

dobako Montilla herriak ere. "Montillako gozoak, ardoa, kupel fabrikazioa eta eskaintza turistikoa ekarri ditugu", adierazi du Montillako alkateorde Jose Repisok. "Zur eta lur geratu gara Euskadiko andaluziarrek egiten duten lanarekin, eta Andaluziarrekiko sentitzen eta erakusten duten loturarekin".

Senidetze proposamena
Domeka eguerdian egindako harrera ekitaldi nagusian ordezkari politiko ugari elkartu ziren. Alderdi sozialistatik Jose Antonio Pastor, Paco Gartzia eta Ariz

Arrieta; alderdi popularretik, berriz, Itziar Lamarain. Aurrekuarekin zabaldu zuten ekitaldia eta hitzaldien txandan Montillako alkateordeak Montilla eta Arrasate senidetzeko proposamena egin zion Arrasateko udalari. Arrasateko alkateorde Amaia Larrañagak erantzun zuen gaia aztertuko dutela. "Pentsatuko dugu, izan ere, eztabaidatzeko kontua da. Herri askok eskatu digute senidetzea eta zaila izaten da batzuei baietz esatea eta besteiei ezetz". Andaluziarren eta euskaldunen arteko elkarbizitza nabarmendu zuten denek.



Arrasateko Al-Andalus elkarteko kideak urdaiazpikoa zatitzen. | J.A.

**RAFAEL GOMEZ**
ARRASATEKO AL-ANDALUS

"Primeran joan da dena. Zapatuko afaria eta domekako meza errozieroa izan dira niretzat bi ekitaldi hunkigarrienak. Ez naiz oso fededuna, baina meza oso berezia izan da. Afarian, berriz, 500 arrasatear bildu ginen".

**AMAIA LARRAÑAGA**
ARRASATEKO ALKATEORDEA

"Jende askok hartu du parte eta giro bikaina egon da; ikusten da arrasatearrok Andaluziako jendearekin izugarriko integrazioa dugula eta haiek gurekin. Horrelako gauzak gero eta gehiago egin behar direla uste dut".

**JOSE REPISO**
MONTILLAKO ALKATEORDEA

"Harrera bikaina izan da eta askotan hunkitu naiz; malkoak ikusi dizkiot ni agutzera etorritako Euskadiko andaluziar bati eta ikusi dut euskara irakasle bat *sevillan* ni baino hobeto dantzatzan".

**JUAN GRACIA**
FARAE-KO PRESIDENTEA

"Egun zoragarriak izan dira. Arrasatearrak eta Arrasateko Udala ondoan izan ditugu uneoro eta oso eskertuta gaude. Al-Andaluseko lan taldeari, berriz, nire eskerrik beroenak. Lan handia egin dute".



OÑATI

MAIDER ARREGI



OÑATI

MAIDER ARREGI

Umeen danborrada, ilusioz betea

Astetan gogor entseatu ostean, emaitza borobila izan zen zapatu arratsaldekoa. Danbor-jotzaile, sukaldari, gastadore, barrilero, elkarteetako banderadun eta iñude papera primeran bete zuten haurren danborradan parte hartu zuten Oñatiko 150 gaztetxok. Ilusio eta urduritasun artean, ume eta guraso guztiek zuten irribarre ederra aurpegian marraztuta. Aurten, zaldi gainean Txantxiku Ikastolako ikasleei tokatu zaie joatea. Hala, Asier Igartuak eta Leire Barrenak gidatu zituzten ume guztiak kalerik kale. *San Migel* ereserkiak lagunduta, danbor hots indartsuek jaiei hasiera polita eman zieten zapatu arratsaldean.

Bizitza, biodantzaren bitartez

Domeka goizean, 10:30ean hasita, Biodantza tailerra egin zuten Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Euskadiko Biodantza eskolak antolatuta, Carlos Orellana eta Raket Ampudia irakasleek *bizipen ikastaroa* eskaini zuten sarrera gisa. Ondoren, biodantzaren onurez ikasteko aukera izan zuten bertan izan ziren hamabost bat lagunek; haur, gazte eta helduek elkarrekin dantza egin zuten.

250 bat kilo buzkantza aurten Garagartzako Sanmigeletan

Eguenetik domekara arteko egitarauan, musika jaialdia da nobedade nagusia

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Garagartzako Sanmigelak datoz aste bukaeran. Eguenetik domekara arte luzatuko dira jaiak. Igor Orobengoa auzo alkatearen arabera, nobedadea da gazteen dako musika jaialdia: "Aurreko urte batzuetan egin izan dira kontzertuak eta aurten berreskuratu egingo ditugu. Gazte jendea erakartzea da helburua".

Jaialdia ere, 'Buzkanta Rock' Buzkantzak dira Garagartzako jaien bereizgarri. Hainbat dira egubakoitz eta zapatuan auzoetxe-

ra *-Patxisenea-* Agirre Etxe eta Otamendi harategiek prestatutako buzkantza goxoak dastatzera joaten direnak. Hala, buzkantzak auzoko jaietan duten pisuaren adierazle da egubakoitzeko musika jaialdia. *Buzkanta Rock* izenarekin bataiatu dute: agertokietan debuta egingo duen Garraxi, The Magnificents, jaialdirako propio sortu den Mango Baltzak eta Kañeria 13 taldeek joko dute. Arrasatekoak guztiak eta auzokoak musikari gehienak.

Buzkanta kopuruari dagokionez, Agirre-Etxeko Iker Agi-

rreurreta harakinaren arabera, 250 bat kilo prestatu dituzte aurten: "Iaz baino zertxobait gutxiago prestatu dugu, auzotarrek hala eskatuta. Urtero moduan, ardi odolaz egindakoak izango dira, goxo-goxoak". Izan ere, iaz 300 kilo egin zituzten Garagartzako baina auzo alkateak dioenez, soberan izan zituzten: "Zapatuko eguraldi txarragatik uste baino buzkantza gutxiago jan ziren".

Aurten, beraz, maila apur bat jaitsi dute baina izan dira urteak auzorako zein bi harategietarako 1.000 kilo egin dituztela.



Egubakoitz eta zapatuan buzkantzak izango dira auzoetxean. | ARTXIBOA

Beranduen jota urriko lehen astean amaituko dituzte Amaia antzokiko lanak

Zoladura "oso aurreratuta" dago eta astean berdeguneak egokituko dituzte

J.B. | ARRASATE

Amaia antzokiko ataria egokitzeko obrak martxa onean joan badira ere, Obra Sailak jakinarazi duenez, posible da amaiera epea baino astebete beranduago amaitzea. Egubakoitzarako, hilak 30, edo urriko lehen asterako amaituta egongo dira lanak: "Zoladura oso aurreratuta dago dagoneko eta falta diren lanik garrantzitsuenak dira berdeguneak egokitzea. Astelehenean [gaur] hasiko dira lan horiek egiten".

Lanen helburua da antzokiaren ataria "kuriosoago" jartzea. Hau da, sarrera ageriago jartzea eta bertaratzeko irisgarritasuna hobetzea. Sarrera erosoagoa jarri gura dute, oinezkoendako lehen-tasuna emanaz. Izan ere, orain arte aste bukaeretan aparkaleku moduan erabili izan denez, autoek sarrera oztopatzen zuten.



Zoladura amaitzear dago; irudian, langile bat egubakoitzean. | J.B.

Abuztuko oporren eragina

Uztailean zinema Monterron parkera eramango zutela aprobetxatuz, obrak uztailearen 11n hasi ziren. Lanek bi hilabete eta erdi irautea aurreikusitako zuten Udalak

eta abuztuan bi astez lanak eten izanak atzeratu du azken uanean obren amaiera.

Bergarako Artzamendi enpresa dabil lanok egiten eta aurrekontua izan da 167.610 eurokoa.

Emakume Txokoak hasi du ikasturte berria

J.B. | ARRASATE

Emakume Txokoak ere eman dio hasiera ikasturte berriari, aurkeztu du irailetik abendura arteko egitaraua. Ohi moduan, eskaintza zabala da nagusi ikastaro eta tailerretan; argazkilaritza ikastaro batetik hasi eta dantza libre tailer batera arte.

Gaur irekiko dute izenematea eta azken eguna da hilaren 30a. Izena emateko eta argibide gehiagorako Emakume Txokora bertara jo daiteke; astelehenean eguenera 10:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara, eta egubakoitzetan 10:00etatik 14:00etara. Telefonoz (943 79 41 39) eta e-postaz emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net ere eman daiteke izena.

'Martin Larralde' lana aurkeztuko dute eguenean gaztetxean

Martin Larralde liburu-diskoa aurkeztuko dute gaztetxean, hilaren 29an (20:00). 2008an hasitako proiektu bat da, Eneko Barberenaren testuak, Mikel Ocejaren irudi eta diseinua eta hainbat musikariren lanak uztartzen dituena. Kolaboratzaileen artean, honakoak: Gose, Ain_1, Petti, Pirritx eta Porrotx, Manex Agirre, Enaitz Alustiza, Xabi Strubel...

Kaxa flamenkoa eta kustomizazioa, Gazte Bulegoaren eskutik

Gazte Bulegoak bi ikastaro antolatu ditu, urrian hasteko: kaxa flamenkoa eta kustomizazioa. Lehena Periko Raez perkusionistak emango du eta bigarrena, berriz, Itsaso del Rey diseinatzaileak. Izena emateko eta argibide gehiagorako, Gazte Bulegora jo edo 943 25 20 65 telefonora deitu.

Paris ezagutzeko ederto ibili dira 68 lagun

Zigarrolako auzo alkatetzaren ekimenez, 68 lagunek bidaiari egin zuten Frantzia aldera, irailaren 7tik 13ra. Bidai antolatua izan zen eta besteak beste, Versailles eta Bordele ezagutu zituzten. Hala ere, Parisko txoko garrantzitsuenak bisitatzera joan ziren: "Ederto ibili gara, giro paregabean, eta oso leku politak ikusi ditugu. Noski, ezin ahaztu hamarratekoak", esan digu bidaiarietako batek. Hurrengo bidairako hasi dira pentsatzen; Kroazia da aukera gehien dituen.



JOSE LUIS AZKARATE



Aurreko ikasturtean esperientzia eskolan jardundako lagun taldea. | LEIRE KORTABARRIA

Esperientzia eskola: zahartze aktiboaren bitartez bizitza kalitatea hobetzea helburu

Bigarren urtez antolatu dute 50 urtetik gorakoei zuzendutako eskola; kultur formaziorako hainbat gai jorratuko dituzte aurtengo ikasturtean

EDU MENDIBIL | BERGARA

Esperientzia eskolan izena emateko epea zabalik dago urriaren 14ra arte. 50 urtetik gorakoei zuzendutako eskola da eta helburu nagusia zera da: zahartze aktiboaren bitartez, pertsonen bizitza kalitatea hobetzea. Horretarako kultur formazioa eta informazio aukerak sustatuko dituzte antolatzaileek. Bigarren aldiz antolatu dute Bizikasik eta Mugabek, Udalaren laguntzaz, esperientzia eskola. Iazko harrerarekin pozik azaldu dira antolatzaileak zein

esperientzia eskolan jardun zuten ikasle veteranoak. Hain zuzen ere, diplomak jasoko dituzte iazko ikasleek aurtengo ikasturtearen hasieran.

Eskolak martitzen, eguazten eta eguenetan izango dira, goizez, eta aurtengo deialdian jorratuko dituzten gaien artean, honako hauek: osasunaren mantentzea eta sustatzea; giza erlazioak; komunikazioa; informatika; literatura; filosofia; psikologia; bioetika; artearen historia... Era berean hitzaldiak, ibilaldiak,

kultur irteerak edota beste eskola batzuekin elkartrukeak egingo dituzte.

Matrikula, urriaren 14ra arte

Matrikularen zenbatekoa 230 eurokoa da eta, esan bezala, izena emateko epea urriaren 14ra arte dago zabalik. Izena emateko edo argibideak jasotzeko Miguel Altunako Bizikasi zerbitzura jo dezakete interesatuek. E-mailez, info@bizikasi.com eta telefonotik deitu nahi izanez gero, 943 76 93 94 (Miren).

Jostailu bilketa Jardun elkartean, eguenera arte

E.M. | BERGARA

Jostailuekin ematen den gehiegizko kontsumoa murrizteko eta jostailuen berrerabilera bultzatzeko asmoz, jostailuen bilketa egiten ari da Jardun euskara elkarte. Umeek erabiltzen ez dituzten eta egoera onean dauden jostailuak eraman dituztenei, txartel bat emango zaie eta ondoren txartel bakoitza beste edozein jostailugatik aldatzeko aukera izan dute.

Bilketari dagokionez, eguenera arte (hilak 29) egingo dute, Jardun elkartearen bulegoan, Errotalde jauregian, 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Edozein argibidearako 943 76 08 19 telefonora jo dezakezue edo e-mailez ondoko helbidean: jardunkultura@topagunea.com.

Truke azoka asteburuan

Asteburuan, berriz, jostailuen truke azoka izango da: egubakoitzean, irailak 30, 17:00etatik 20:00etara Arrizuriaga jauregian, Espolioan; eta zapatuan, toki berean, goizez bakarrik, 11:00etatik 13:00etara.

Jardunek arduradunek argitu dutenez, ez dira onartuko sexu bereizketa edo indarkeriaren aldeko jarrerak erakusten duten jostailurik. Era berean, erosketak egitekoan, euskal jostailuen ekoizleak kontuan izatea eskatzen dute Jarduneko arduradunek.

Pintura lanak eta Monzonen gaineko erakusketa udaletxean

San Martin jaien egitarauaren barruan egindako pintura lehiaketako lanak udaletxean daude ikusgai, urriaren 2ra arte. Aste barruan 18:00etatik 21:00etara ikusi ahal izango dira lanak eta aste bukaeran, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. 32 artista izan ziren lehian eta lehen saria Raimundo Argos bilbotarrak eraman zuen.

Bestalde, Telesforo Monzonen gaineko erakusketa ere urriaren 2ra arte izango da zabalik, osoko bilkuren aretoan. Monzonen gaineko hiru panel handi eta sei bat bitrina daude, haren ibilbidearen gaineko objektu eta idatziekin.

'Sentitzen animaliek bezala' erakusketa Zabalotegin

Sentitzen animaliek bezala erakusketa ibiltaria ikusgai dago Zabalotegiko pilotalekuan, eguaztenera arte, 9:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Hiru jaima jarri dituzte Zabalotegin. Erakusketako hiru guneetan bisitariak fauna eta haren problematika gertutik ezagutzeko aukera izango dute. Kontzientziarazioa piztea da helburua. Faureco europar proiektuaren baitan kokatzen da erakusketa Debagoienean Bergaran bakarrik ikusi ahal izango da. Ikasleendako bisita gidatuak antolatu dituzte. Josu Gofii bergarar gaztea dabil gida lanean.



GOIENA

Herrixa dantzan, Bergarara

Atzo ekin zioten Elgetan Herrixa dantzan ekimenari berriz. Aurten Bergarara ere etorriko da, hileko bigarren domekan, hain zuzen. Patxi Monteroren eskutik Zabalotegiko aretoan izango dira saioak; dantza tradizionalen bidez disfrutatzea da helburua. Parte hartzea zabalik dago eta dantza zaleei dei berezia egin diete antolatzaileek. Lehen hitzordua urriaren 9an, 18:00etan hasita.



EDU MENDIBIL

Odol ateratzeak anbulatorioan

Egoitza berriaren zain, Bergarako odol emaleek odola ateratzeko bigarren saioa egin zuten anbulatorioan joan zen eguaztenez; 38 lagun joan ziren odola ematera. Abuztuko oporren osteko lehendabiziko odol ateratzean, berriz, 52 lagun joan ziren anbulatorioa. Elkartetik eskerrak eman nahi dizkiete odola emandako guztiei eta emaile izatearen garrantzia azpimarratu dute, beste behin. Hurrengo odol ateratzea urriaren 5ean –eguaztenez– egingo dute Bergarako anbulatorioan atzera ere, seietatik zortzi t'erdietara.

Patxi Larrañaga | Ikerlaria

"Gure arbasoen, baserritarren bizimodua aztertu nahi izan dut"

- ▶ Bergarako baserri eta auzoen gaineko lana egin du Larrañagak
- ▶ Erdi Aroan hasi eta XX. mendera arteko datuak batu ditu azken urteotan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Azken urteotan buru-belarri dabil Patxi Larrañaga (62 urte) hango eta hemengo artxiboak arakatzeko. Bergarako auzo eta baserrien historia batzeari ekin zion duela hamar bat urte eta dagoeneko lana amaitzen ari da, nahiz eta, hark dioenez: "Horrelakoetan, beti dago gehiago sakontzea, eta horretan dihardut".

Nola hasi zinen herriko baserrien inguruko historia batzen?

Ni, izatez, plazentziarra naiz, eta, ezkondukakoan Bergarara etorri eta gero, orain dela 35 urte inguru, Bergarari buruz gehiago jakin nahian, auzoak eta baserriak hasi nintzen ezagutzen, baita argazkiak ateratzen ere, betiere interesatu zaizkidalako historia eta genealogia, batez ere gure arbasoek egindakoak gure gaurko bizitzan duen eraginagatik. Azken baten, gaur garena haiei zor diegu, neurri handi baten. Ondoren, lana zela-eta utzi egin nion ikertzeari, eta, osasun arazoengatik lanetik erretiratu behar izan nuenean, orain dela hamar bat urte, berriro heldu nion ikerketari.

Zeintzuk izan dira zure informazio iturriak eta zein urtetakoak dira lehenbiziko datuak?

Lehenbiziko datuak 1350. urtearen ingurukoak dira (orduan integratu ziren Bergarako eta Antzuolako baserritarrak Bergarako Udalean, herri barruan) eta azkenak, 1930. urtekoak. Nolabaiteko muga jarri nahi izan dut, hortik aurrerako datuen kasuan interesatuen intimitatea babesteko. XVI. mendea mugarriztat jo daiteke, orduan hasi ziren-eta notario-aktak eta Udalekoak jasotzen. Ordura arte eskribauek egiten zuten lan hori eta benetan gauza ederrak topa daitezke. Informazio iturriak dagokienez, idatzizko iturrien artean Auñamendi entziklopedia oso baliagarria gertatu



Patxi Larrañaga, Bergarako Udal Artxiboan ateratako argazkian. | E.M.

zait, eta Bergarako Udal Artxiboan ere bai. Gure artxiboa inguruko onenetakoa da eta eskerrak eman nahi dizkiet bertako langileei, eskaini didaten laguntzagatik. Elgetako Artxiboan ere ibili naiz (Angiozar eta Ubera 1928an integratu ziren Bergaran eta ordura arteko datu gehienak Elgetan dituzte), Elizako Artxiboan, Oñatiko Protokoloetako Artxiboan eta, azkenik, zenbait partikularren artxiboak ere aztertu ditut, haien eskuzabaltasunari esker.

Nola antolatatu dituzu jasotako datuak? Badago asmorik material hori guztiori argitaratzeko?

"Jaso ditudan lehenbiziko datuak 1350. urtearen ingurukoak dira"

Baserri bakoitzaren argazkiarekin batera, baserriaren kokapena, historia (ordena kronologikoan), deskripzioa eta dagokion izendapena dator. Gauza bera egin dut herriko auzoekin. Nahiz eta historian zehar aldaketak izan diren, 17 auzo aztertu ditut. Hainbat auzotan, nolabait esateko, *auzordeak* daude; Angiozarrek, esaterako, sei auzo ditu. 1.300 orrialde inguru dira guztira eta ikusteko dago Udalak zer egiten duen material horrekin.

Zenbat baserri dira aztertu dituzunak?

460 bat, ermitak eta errotak bar-

"XVII. eta XVIII. mendeetan errentarako baserri asko egin ziren"

ne. Hainbat kasutan baserri izendapena zalantzarazkoa da; 400 bat baserri egon daitezke. XVII. eta XVIII. mendeetan errenta esplotaziorako baserri asko eraiki ziren. Garai baten, jendeak Ameriketara egin zuen dirua, eta, altzairuaren krisiaren ondorioz, jauntxoek lursailetan eta errentetan inbertitu zuten, eta badira errentan lau familia izatera iritsi ziren baserriak ere. Zortzi bat familia ziren aberatsenak eta haietako bakoitzak hamar baserri izango zituen. Bestalde, ez pentsa baserritarrak gizajoak zirenik. "Nahiz eta dirurik ez

"Baserrietan, artearen ikuspegitik, altxor asko dago Bergaran"

izan zu bezain kaparea naiz", esaten zieten jauntxoek askotan. Azken baten, odol garbitzat zeukaten euren burua eta horri eusten zioten euren kaparetasuna aldarrikatzeko. Horrelako kontu asko dago agiri zaharretan. Basetik, bitxikeria moduan, Bergaran 13 baserri dira 600 urteren ondoren baserriko abizenari eusten diotenak: Aldai Azpikoa, Garitano Erdikoa, Garitano Barrenengoa, Orbe Aundi, Loidi, Zuloea Gainekoa, Lamarain Dorre, Gantxegi Goiti, Arando, Irazabalbeitia, Irazabal Aundi, Olañeta eta Idarraga Azpikoa.

Esan bezala, baserritarren bizimodua nolako zen islatzen ahalegindu naiz, betiko galderei erantzuten, alegia: nolakoak ziren, non bizi ziren, zer-nolako lana egiten zuten. Gure arbasoen bizimodua ezagutu nahi izan dut.

Orain arte egin gabe zegoen lana eta oso baliagarria gerta daitekeena.

Nire asmoa beti izan da lan hau guztiau Udalaren esku uztea, nahi duenak edozein kontsulta egin nahi izanez gero, horretarako aukera izan dezan.

Dagoeneko jendea joan zaizu kontsultak egitera.

Bai, kontuan izan erregistro ofiziala 1890. urtearen inguruan sortu zutela, eta horren aurretiko dokumentuak aztertze eskribauen agirieta jo beharra dago. Baserrien inguruko auziak eta baserriko kontratuak haiek jaso zituzten eta izan ziren salerosketak edo jabetzak argitzeko, adibidez, ezinbestekoak dira. Horrez gain, bataioak, jaunartzeak, zorrak eta bestelakoak ere antzinako agiritan jasota daude. Erdi Aroan hasi eta XX. mendera arte dator jasotako informazioa. Ikerketa lanetako zein herritar guztiendako (berezi baserriko jendearendako) interesgarria gerta daiteke.

Baserririk aipagarrienak?

Bergara oso aberatsa da alde horretatik. 35 baserrik daukate armarrria eta 135 dira jatorrizko abizena duten oinetxeak. Artearen ikuspegitik altxor asko dago: Agirre baserria, Albitxu, Eduegi, Lamarain, Arane Erdikoa... Elementu bereizgarriak dituztenak ere bai: Agurlaeta Goikua (arko gotikoarekin), Artzamendi (jaurregi itxurakoa), Irigoien Zabala (barroko estiloko armarrria), Arregi eta Lamarian dorreak, Monasteriobide edo Garitano Erdikoa. Ikaragarria da herrian duguna.

OHARRAK

1942AN JAIOTAKOAK

Urriaren 1ean bazkaria Azpeitxi jatetxean, 14:30ean. Urtero bezala, aurretik argazkia aterako dute. Izena emateko azken eguna irailaren 26a, Azpeitxin (20 euro).

1961EAN JAIOTAKOAK

Urriaren 8an bazkaria Lasa jatetxean, 50 urte egiten dituztela ospatzeko. Izen-ematea Nahikari (943 76 57 71) edo Dixula tabernan (943 76 44 95) egin daiteke.

1941EKO BERGARARRAK

1941. urtean jaiotako emakume eta gizon bergararrek bazkaria egingo dute urriaren 15ean Tartufon, 14:30ean. Ordu erdi lehenago, 14:00etan, Santa Marina aurreko bus geltokian elkartuko dira autobusez igotzeko San Juana. Mahaiaren bueltan eseri aurretik, argazkia aterako dute. Lazkano oinetako-dendan eman behar da izena, 20 euro ordainduta, urriaren 11 baino lehen.

1944AN JAIOTAKOAK

Urriaren 22an bazkaria Zumelagan. 13:00etarako egin dute hitzordua Irala kalean. Izen-ematea, urriaren 15era arte: 943 76 21 86 (Ana Mari), 943 76 23 70 (Sanchez ile-apaindegia) edo 943 76 10 32 (Florita).

KATEKESI ESKOLAK

Santa Marina eta San Pedro parrokiaren deia: katekesia hasi nahi dutenendako batzarra izango da gaur, astelehena, eta bihar eta etzi,

hilak 27 eta 28, 17:00etatik 18:00tara, Komenio kaleko lokaletan.

UDALAREN OHARRA

2011ko ekonomia jardueren gaineko zergaren erreziiboak ordaintzeko borondatezko epea urriaren 1etik azaroaren 10era arte izango da zabalik. Borondatezko epea amaitu ondoren, errekarquaz kobratuko dute. Erreziiboan ordainketa banketxeren baten helbideratuta duten zergadunei, banke-

txearen bidez bidali eta kobratuko zaie. Besteek etxean jasoko dute ordainketa egiteko agiria urriaren 31 baino lehen. Horrela izango ez balitz, Kontu-hartzailetzara jo beharko dute.

UDAL EUSKALTEGIA

2011-12 ikasturteko matrikula zabalik dago Bergarako Udal Euskaltegian. Maila guztiak eskaintzen dituzte. Argibideak Irizar jauregian (943 76 44 53).

Joxean Iñarra | Defentsa pertsonaleko instruktorea

"Teknikak bai, baina faktore psikologikoa ere landuko dugu"

- ▶ Aloña Mendiko karate sailak defentsa pertsonaleko ikastaroa egingo du
- ▶ Urtebetekoa izango da eta bereziki emakumeei dago zuzenduta

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendi elkarteko karate sailak defentsa pertsonaleko ikastaroa egiteko deialdia egin du emakumeen artean. Urte osoko ikastaroa da, eta Joxean Iñarra bergararra izango da irakaslea. Harekin egin dugu berba ikastaroan landuko dutenaz.

Zergatik mota horretako ikastaro bat?

Ba, Oñatiko kasuan izan da herriko hainbat emakumek egindako eskaerari erantzuteko. Aloña Mendiko karate sailekoekin hartu-emanetan ipini ziren defentsa pertsonaleko ikastaroren bat antolatzeke asmoa zuten galdeztzeko.

Deialdia emakumeen artean egin duzue.

Bai, hala da. Emakumeendako ikastaroa da. Adinari dagokionez, normalean, 16 urtetik gorakoak animatzen dira. Gehienek ez dute erasorik jasan, baina badaude batzuk baietz.

Parte-hartzaileek ez dute arte martzialetan esperientziarik izan behar. Oinarrizko ikastaroa izango da. Erasoen aurrean defendatzen ikasteko.

Nolako ikastaroa izango da?

Teorian faktore psikologikoa lantzen dugu eta alde praktikoa lau zatitan dago sailkatuta: defentsa teknikak, ondo jotzen jakitea, lotuta gaudela askatzea eta lurrean gaudela irtetea.

Zergatik urtebeteko ikastaroa?

Maiatzean egin genuen defentsa pertsonaleko ikastaro laburragoa. Urtebeteko ikastaroa izanik, konzeptuak sakonago lantzeko auke-



Joxean Iñarra, irakaslea. | GOIENA

"Oinarrizko defentsa pertsonal ikastaroa izango da"

ra ematen digu. Praktika egiteko askoz denbora luzeagoa izango dugu. Dena den, saio bakarra egingo dugu astero: martitzenetan, 19:00etatik 20:30era, Zubikoa kiroldegian.

"Poltsetako objektuekin aurre egin diezaiokegu eraso bati"

Zenbat teknika daude?

Asko daude, baina guk erakusten ditugunak ez dira horrenbeste. Bost edo sei oinarrizko teknika jakitea nahikoa da eraso bati aurre egin ahal izateko.

Emakumeek poltsan eroaten ditugun objektuak nahiko dira eraso bati aurre egiteko?

Bai, horixe. Emakumeek poltsan eroaten dituzten gauzak baliagarriak dira; besteak beste, etxeko giltzak, betaurrekoak, telefonoa eta boligrafoa. Horrelako tresnak nola erabili erakutsiko dugu ikastaroan. Kafe koilara batekin, esaterako, gauza asko egin daitezke: gorputzaren presio puntuetan sakatu edo saihestu-erretan sartu eta min egin. Horrekin lurrean utz dezakegu erasotzailea. Bestalde, zapaten takoiarekin oin gainean zapaltzeko min handia ematen du.

Nire ikasleei esaten diet ikasitakoa praktikan ipini behar dutela, baina, ahal bada, biolentzia barik. Halako ikastaroak egin ditugu Tolosan eta Bergaran, eta emakume guztiei esaten diet gauza bera.

Halako ikastaroak behar-beharrezkoak dira?

Zoritxarrez, bai. Emakumeen kontrako eraso eta bortxaketa kopurua geroz eta handiagoa da. Gizartea jabetzen da arazo larria dela, baina muga ipintzea oso zaila da.

Oinarrizko teknika batzuk menderatuta aurre egin diezaiokegu eraso bati. Orain dela gutxi arte, halako erasoak Euskal Herrikan kanpo gertatzen ziren. Urrutiko kontuak ziren guretako. Baina, azkenaldian, geroz eta gertuago ditugu erasoak. Kontua ez da emakumeen artean alarma sortzea, baina halako ikastaroak beharrezkoak dira.

Eraso sexistak atzitzeko zerbitzua

M.B. | OÑATI

San Migel jaiak direla-eta, eraso sexistak artatzeko zerbitzua ipini du martxan Berdintasun batzordeak. Jaietan telefonoa 24 orduz egongo da martxan eta indarkeria jasan dutenek aukera izango dute deitu eta atzituak izateko. Laguntza juridiko eta psikologikoa eskainiko dute. Aholkularitza eman eta zalantzak argitzeke ere balioko du.

Jaigunean informazio puntua ipiniko dute eta telefonoa eskuratzeko aukera egongo da.

Gaian aditua den profesional taldea egongo da. Psikologian eta indarkeria kasuak jasaten dituzten emakumeak artatzen adituak diren eta feministak diren pertsonak.

San Lorentzoko batzordea sortzeko deia

M.B. | OÑATI

Udaleko Parte-hartze, Komunikazio eta Barne Antolamendu batzordeak dei berezia egin die San Lorentzoko bizilagunei. Helburua da auzotarren artean batzorde bat sortzea, batzorde iraunkor bat osatzea. Deialdia auzoko behebarru guztietan ipini dute: batzarra bihar, martitzena, egingo dute, kultura etxean, 18:30ean.

Behin batzordea sortuta, asmoa da eurek zehaztea zeintzuk diren auzoak dituen hirigintza eta zerbitzu gabeziak. San Lorentzo auzoa eraberritzeko planak 21 zati ditu, eta asteon hasiko dute bigarrena ermitaren inguruan. Udalak aintzat hartuko ditu auzotarren iritzia.



MIREN ARREGI

'Anexiñua oñatiarrez' antzezlanaren prestatzen

Olaiturri elkartekoak gogotsu dabilta *Anexiñua oñatiarrez* herri antzerkia prestatzen. Eguenetan eta zapatuetan entseguak egiten dituzte Santa Ana antzokian. II. Karlistaldi ondorengo giroa erakutsiko dute Oñatiko plazan hilaren 29an, 18:00etan. 1845ean Oñati Gipuzkoara sartu zeneko gorabeherak eta oñatiarrek egindako eskaerak kontatuko dituzte.

OHARRAK

HERRI EGUNA

Herri Egunekei bazkarirako txartelak salgai daude Izarraitz, Arrano, Antton, Umerez eta Olakua tabernetan. 19 euroren truke eros daitezke. Zubikoa kiroldegiko kantxan egingo duten bazkariko menua izango da: patatak errioxar erara, arku-mea txilindron erara, hostopil tarta piñarekin, kafea eta kopa.

JAIETAKO ZAPIAK

Jaietako zapiak euro baten eros daitezke herriko hainbat tabernatan eta dendatan eta kultura etxean.

TXOSNAKO BAZKARIA

Txosna batzordeak paella-jana egingo du Errosaixo egunean,

urriaren 2an. Txartelak salgai daude zortzi eurotan Bogan, Onan eta Arranon.

PILOTARAKO SARRERAK

Urriaren 2an kiroldegian jokatuko dituzten profesional mailako partiduetarako sarrerak leihatilan salduko dituzte bost eurotan. Aurretik San Migel txapelketako finalak jokatuko dituzte.

BASERRIETAKO PLASTIKOA

Baserrietako plastiko zuriak eta beltzak batuko dituzte hilaren 27an. Oñatin lau lekutan utz daitezke: Murgian, Asentzio ermitaren ondoan; Zañartun, Zuazolan; Olabarrietako autobus geltokian; eta ETEO atzealdean.



Iaz uztailean antzezlanaren estreinatuta zuten Amuska taldekoek; antzerki tailerra izango dute aurten. | MIRIAN BITERI

ESKORIATZA

Perkusioa, pintura eta antzerkia, urrian egiteko

Bihar amaituko da helduendako pintura ikastaroan izena emateko epea

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aspertzeko astirik ez da egongo Eskoriatzan urrian, askotariko ekintzak antolatu dituzte-eta. Batetik, Eskoriatzako Udalak antolatuta, perkusio ikastaroa izango da urriaren 6an, 14an, 21ean eta 28an, 19:00etatik 21:00etara. Udaletik jakinarazi dute oinarriko ikastaro horretan perkusioarekin lehen harremana izango dutela parte-hartzaileek: pultsua, erritmoa, taldea, neurketa eta perkusio motak aztertu dituzte, besteak beste.

Interesa dutenek urriaren 4a baino lehen eman behar dute izena kultura etxean. Prezioa 15 euro da eta ikastaro horretarako plaza mugatuak dira.

Bestetik, Olazar erretiratuen elkarteak hitzaldiak eta tailerrak gertatu ditu. Urriaren 10ean, eli-

kagaien segurtasunaren gaineko hitzaldia izango da kultura etxean, 17:00etan; eta hurrengo egunean, ordu eta toki berean, gai berari buruzko tailerra egingo dute. Urriaren 13an, ostera, dendetatik kanpoko salmentak eta mirari-produktuez jardungo dute 17:00etan hasiko den hitzaldi eta ondorengo tailerrean.

Olazartik azaldu dute ekintza horiek gaztelaniaz izango direla eta parte hartu gura dutenek urriaren 4tik 6ra bitartean apuntatu behar dutela elkartearen egoitzan, 11:00etatik 12:30era.

Pintura, urritik ekainera

Bestalde, oraindik zabalik dago urteroko helduendako pintura tailerrean izena emateko epea; bihar itxiko dute hori eta interesa dutenek kultura etxeokoin

jarri behar dute harremanetan. Aurreko urteetan bezala, urritik ekainera bitarteko zapatuetan egingo da, kultura etxean, 14:30etik 17:30era; zapatuan, urriak 1, hasiko dira eskolak. Ikastaro horren prezioa 40 euro izango da hiru hilabeteko.

Horretaz gainera, Amuska emakumeen elkarteak ere askotariko ikastaroak antolatu ditu. Horieta asko urterokoak dira, urritik otsailera bitartean egiten direnak; esaterako, ehoziri-lanak eta bainika, olio-pintura, patchworka eta askotariko eskulanak egiteko eskolak izango dituzte astero behin.

Bada, horretaz gainera, antzerki tailerra egiteko asmoa ere badute emakumeek. Hileko lehen eta azken zapatuetan izango lirateke saio horiek.

Olaetako mendi-hegalean pinuak kendu dituzte, lur-jausiak ekiditeko



Zuhaitzak moztuta, Olaeta ingurunean. | ESKORIATZAKO UDALA

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Olaeta mendi-hegalean lur-jausiak ekiditeko neurriak hartu dituzte. Team ingeniariak enpresak horren harira egindako txostenaren ondotik, ingurune horretan pinuak kendu dituzte egunotan.

Udalak esandako enpresari eskatu zion lur-jausia gertatzeko arriskuaren gainean txostena egiteko. Zundaketa inklinometrikoa egin da; mendi-hegala hodi batekin monitorizatu dute sei hilabetez eta neurketak egin dira hileroko. Emaitzen arabera, ez dago mendi-hegalean lur-jausia gertatzeko arriskurik.

Dena dela, zenbait neurri hartzea gomendatu dute inongo ezegonkortasunik ez gertatzeko; hainbat zuhaitz kentzea proposatzen zuten txostenak, eta horrelaxe egin da.

ARETXABALETA

Kanpaien gaineko jardunaldiak urrian Aretxabaletan

M.B. | ARETXABALETA

Arientzako Kanpai Jole Eskolak antolatuta, *Atxabaltan kanpaiek die* izeneko jardunaldiak egingo dituzte urrian zehar. Urriaren 3an hasiko dira ekimenak, Aretxabaletako Arkupe kultura etxean egingo den inaugurazio ekitaldiarekin eta hilabete osoan ikusgai egongo den *Kanpaiekin* erakusketa irekiarekin. Sagardo dastatzea egingo dute ekitaldi berean.

Urriaren 4an, Antxon Agirre Sorondok *Orígenes y curiosidades en torno a las campanas* hitzaldia egingo du eta urriaren 6an, Juan Mari Beltranek *Txalaparta, laneko erritmoetatik, musikara* berbaldua. 19:00etan izango dira biak, Arkupen.

Bada, jardunaldien egun potoloena urriaren 8an izango

da. 10:00etan, Francesc Llops i Bayok *El toque de campanas. Aprendizaje de las diferencias*; eta 10:45ean Francisco Fernandez de Jauregik *Lo que dicen las campanas* hitzaldiak egingo dituzte. 11:30ean, hamaiketako izango da, eta ordu erdi geroago, kanpai jole eskolen topaketa hasiko da Arkupen.

Joaldi koordinatua

Jarraian, Ariantza bisitatuko dute, eta han oroigarri banaketa egingo dute. Larrinon bazkaldu ostean, *Kanpai hots han hemen* joaldi koordinatua egingo dute, 18:00ak arte. Bestalde, urriaren 22an, Andrei Rublev filma ikusteko aukera egongo da Arkupen, 18:00etan; eta urriaren 29an, 22:00etan, Txalaparta ikuskizuna




MIRARI ALTUBE

Twister, ludotekako ate irekietan

Ate irekiak egiten dabilta Algara ludotekan. Gaur, Haur Hezkuntzako lehen mailakoendako egongo da ludoteka zabalik; bihar, mahai jolasen lehiaketa egingo dute toki berean, 17:00etan; eta etzi, karaokea izango da. Hilaren 29an eta 30ean, joko erraldoiak jarriko dituzte plazan. Irudian, umeak, eguaztanean jarritako Twister jokoan jolasean.

Osoko bilkura dago gaur arratsaldean Aretxabaletan

Aretxabaletako Udalak osoko bilkura egingo du gaur, astelehena. Bi puntu bakarrik landuko dituzte esandako batzarrean: hain justu ere, aurreko osoko bilkuren gaineko akten onartzea eta galdera eta eskaerak. Ohikoa den moduan, 18:00etan hasiko da bilkura.



Hirusta
Jateetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

Leo Bassi *Utopia* ikuskizunean. | LEO BASSI**ELGETA**

Leo Bassik zabalduko du Espaloia kafe antzokiaren denboraldi berria

Ruper Ordorika, Zea Mays, Esne beltza eta *Errautsak* antzezlanaren azken emanaldia nabarmentzen dira abendura bitarteko programazioan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Lau antzezlan eta lau musika emanaldi aurreikusten dituzte Espaloia kafe antzokian hiru hilero honetarako.

Leo Bassiren *Utopia* lanak estreinatuko du ikasturtea irailaren 30ean, barikua. Pailazoz jantzita bizi dugun krisi ekonomikoaren gaineko bere irakurketa eskainiko digu Bassik. Matxinadara deituko gaitu, etorkizuna amesteko eskubidea aldarrikatuko du, eta Estatuen lider-tza falta salatuko du. Sarrerak salgai daude dagoeneko; prezioa 13 euro da, 10 euro bazkideendako.

Oso gomendagarria, baita ere, Ander Lipus tarteko duen *Errautsak* antzezlan. Harrera oso ona izan duen ikuskizuna da, eta Espaloioa azken emanaldia izango dute azaroaren 26an.

Kartelerako beste proposamenen artean aurkitzen dira Juanlu Escuderoren *Trainspotting* ikuskizuna urriaren 14rako, eta Txalo konpainiaren *Baginaren bakarrizketak* abenduaren 16rako.

Musika talde entzutetsuak

Lau musika emanaldi izango dira Espaloian hurrengo hilabeteotan. Urriaren 9an, Salbador hirukoteak *Lilurarik ez, Mikel Laboarekin solasean* izeneko muntaia eskainiko du. Iñaki Salbadorren firma duen ikuskizuna da eta Mikel Laboari eskainitako omenaldia da.

Urriaren 21ean Zea Mays eta Split 77 taldeak izango dira Espaloian. Pop-rock gaua izango da. Oso bestelako proposamena da Esne Beltza taldeko mutilek azaroaren 4an ekarriko dutena.

Azkenik, abenduaren 11an disko berria aurkeztuko du Ruper Ordorika oñatiarrak Espaloian. Labetik atera berritako kantutak eskainiko ditu Ordorikak Elgetan.

Herrixa dantzan berritua

Orain arteko arrakasta ikusirik jarraipena izango du Espaloian Herrixa dantzan ekimenak. Atzo, domeka, egin zuten udako ete-naldiaren osteko lehenengo saioa eta berrikuntza nabarmenak izan zituen. Bi atal izan zituen dantza saio irekiak; Patxi Monterok gidatutako taldeko dantza saioa eta Adolfo Jainaga trikitilariak egindako erromeria. Formatu berri honen bitartez adin tarte zabalago batera iritsi nahiko lukete antolatzaileek. Ikustera etortzen diren pertsona helduak dantzan ikusi nahi dituzte.

ARAMAIO

Herriko kontsumo taldea kontsumitzaile berriei ateak zabaldu guran dabil

Hornitzailez aldatu dute eta jende berria erakarri gura dute; herrikoei emango zaie lehentasuna

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Euskal Herri osotik etorritako kontsumo taldeek topaketa egin dute asteburuan Aramaion. Ikasgaia izan dira jardunaldiak bertako kontsumo taldearendako. Izan ere, Aramaioa aurtien hasi da funtzionatzen, urtarrilean. Martitzenero elkartzen dira udaletxe azpian eta base-rritarrek ekarritako produktuak kontsumitzaileen artean banatzen dituzte astero.

Bere esperientzia kontatu digu Judith Arriolabengoa taldeko kideak: "Urtarril hasieran sortu zen taldea eta ni hasieratik nago. Astero etortzen naiz eta gustura nabil. Gainera, normalean kontsumitzen ditugun barazkiez gain, berriak sartu

dira otzaretan eta barazki berri horiek prestatzen hasteko ikastaro bat egin dugu".

Izena emateko udaletxera jo

Arriolabengoaren arabera, martxa onean doa Aramaioko kontsumo taldea: "Taldea moduan sortu ginen baina elkarrekin sortzea pentsatzen gabiltza. Taldea jende berriari zabaldu gura diogu; orain bertan 13 kide gara eta hornitzaile berria dugunez, ea lortzen dugun jende berria sartzea". Taldeko kide egiteko udaletxera jo behar da; hori bai, ateak edonori zabalik badaude ere, aramioarrei emango zaie lehentasuna. Egun taldean badago, esaterako, Arrasate edo Legutioko jendea.



Martitzenero biltzen dira udaletxe azpian; irudian, azken hitzordua. | J. B.

ANTZUOLA

Armarria aldatzeko ideia lehiaketa martxan da

Urriaren 17 arteko epea dago lanak aurkezteko; Antzuolako udaletxean entregatu behar dira

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Joan den eguenean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Antzuolako etorkizuneko armarria-sinboloa egiteko ideia lehiaketarako deialdia. Urriaren 17 arteko epea dago lanak aurkezteko. 800 euroko saria egongo da aukeratuarendako.

Armarria-sinboloa egiteko Kudeatuz prozesuan zehaztu zituzten balioak hartu behar dira kontuan. Hauexek dira: euskara eta herri euskara; antzuolartasuna; alardea; herri sentimendua; elkartasuna herri mailan; boluntarioria; gertutasuna; ekintzailetasuna; herriko jaien zaleak; solidaritatea; herri langilea; natura; generazio arteko gertutasuna; sorgin-dantza; ohi-tura zaharrak erreperatu; makila txiki dantza.

Idea hobetsiko da

Lanean marrazki bat aurkeztu beharko da. Aurkeztu den marrazkiarekin batera, beste orri baten, marrazkiaren azalpen bat emango da. Teknika libre izango da. Hala ere, diseinuari ez zaio emango berebiziko garrantzirik. Garrantzi handiagoa emango zaio ideari berari. Lanak Antzuolako Udalean aurkeztu behar dira.

Antzuolako Udaleko alkatea izango da epaimahaiburua eta hauek osatuko dute epaimahaia: Udaleko hiru zinegotzik, Udalen egituraren sentsibilitate desberdinak barneratzen dituztenak; Kudeatuz prozesuan parte hartu duen pertsona batek (zozketa bidez); eta aditu batek, alkateak izendatuta. Jone Larrañaga Kultura teknikaria izango da idazkaria.

LEINTZ GATZAGA

Gatzagako ehiza postuen zozketak egiten urriaren 7an hasiko dira

Arrasateko Eroskiko tabernan egingo dituzte egubakoitzetan, eta ez Aretxabaletan

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Ehiza denboraldia urriaren 1ean hasiko dute ehiztariak –postuetan bakarrik–. Urriaren 12tik aurrera eta urtarrilaren 31 bitartean postuetatik kanpo ere ehizatu ahal izango da. Hala zehaztu zuen Gipuzkoako Aldundiak uztailearen 19an argitaratutako aldizkari ofizialean, eta 2011-2012 denbo-

rdirako ezarritako araudiaren berri eman: ehiza egunak eta orduak; ehiza daitezkeen espezieak; debekuak; baimen eta neurri bereziak...

65 posturen zozketa

Gatzagako baso inguruetan dauden ehiza postuak ehiztarien oso gustuko dira, eta aurtien ere tiro

hots ugari entzungo da Gatzagain inguruan. Herritarrek 18 postu dituzte, eta gainerakoak, 65 bat Gipuzkoako Ehiza Federazioaren ardurapean daude. Postu horiek zozketa bidez izendatzen dituzte eta urrian hasita egunero elkartuko dira astelehenetik egubakoitzera; zozketak hilaren 7an hasiko dituzte. Azken urteotan Aretxabaletako Aretz tabernan elkartu izan badira ere horretarako, aurtien Arrasateko Eroskiko tabernan izango dira (19:00).

Iazko ehiza denboraldia ez zen batere ona izan ehiztarien esanetan, eta aurtien hobe izatea gurako lukete: "Horretarako hego haizea behar dugu".



TWITTER kontu bana, herri eta gai bakoitzeko

Goiena Komunikazio Taldea: @goiena

Kontu horretan Goienaren inguruko berriak, telebistako programazioa, azken ordukoak... jasoko dituzu.

HERRIAK

- Antzuola: @antzuolagoiena
- Aramaio: @aramaiogoiena
- Aretxabaleta: @aretxagoiena
- Arrasate: @arrasategoiena
- Bergara: @bergaragoiena
- Elgeta: @elgetagoiena
- Eskoriatza: @eskogoiena
- Oñati: @oinatigoiena

GAIAK

- Ekonomia: @ekonomiagoiena
- Hezkuntza: @hezkuntzagoiena
- Kirolak: @kirolakgoiena
- Kultura: @kulturagoiena
- Osasuna: @osasunagoiena
- Teknologia berriak: @teknonetgoiena
- Goiena Kluba: @goienakluba

Egin zaitez jarraitzaile!

KIROLA



Macho, Urolako atzelari Zufiriarekin lehia. | JOSETXO ARANTZABAL



GOIENA

ELOY CRESPO
ERDILARIA

"Taldearen jarrera ona izan da; 0-2koarekin lehiari buelta emateko prest geunden"

Eloy Crespo Bergarako bigarren kapitaina da. Partidu amaieran, tartetxoa hartu zuen gurekin egoteko: jokalarien jarrera ona izan zela azaldu zuen, baita gaizki ulertu asko egon zirela aitortu ere.

Nolako partidua izan da?

Oso ondo hasi dugu lehia; lehenengo 20 minutuetan ondo ibili gara, baina bi gol sartu dizkigute. Lehenengo zati amaieran, gola egin dugunean, ondo ikusi dut taldea. Baina bigarren zatian, beste bi gol egin dizkigute eta hankaz gora jarri da taldea.

Golak gaizki ulertuen ondorio izan dira.

Bai, lehenengo bigoletan ez gara atzean ondo konpondu.

Nolako jarrera izan du taldeak?

Jarrera ona izan da. 0-2koarekin partiduari buelta emateko prest geunden; baina, azkenean, bat gutxiagorekin eta 1-4koarekin, taldea behera etorri da eta partidua noiz bukatuko zain geunden.

Joan zen astean lortutako puntua balio gabe geratu dela esan daiteke?

UDAren aurkako puntua ona izateko, gaur, etxean, irabazi egin behar genuen. Kanpoan puntu bakarra lortu ezker, etxean irabazi egin behar da. Agorrosinen sendoak izan behar dugu.

FUTBOLA

Atzealdean motel ibili ziren etxekoak eta lau gol jaso zituzten ondorioz

- ▶ Hiru jardunaldi jokatu dituzte ligan; Bergarak puntu bakarra lortu du
- ▶ Datorren astean Mondraren aurkako derbia izango dute Mojategin

EMAITZA

BERGARA

1-4

UROLA

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Liga hasiera kaskarra egiten dabil Bergara. Zapatuan, etxean, galdu egin zuten Urolaren aurka; hala, joan zen astean Aretxabalaren kontra lortutako puntua balio barik utzi zuten mahone-roek.

Partiduko lehenengo minutuak Neka Galanen mutilendako izan ziren; lehiakor irten ziren eta baloiaren jabetza eurena izan zen. Hala, bosgarren minutuan, markagailuan aurretik jartzeko aukera izan zuten. Urolako atezaina eta atzelariak ez ziren ondo ulertu eta, ondorioz, Machok baloia kendu zien. Atearen aurrean bakarrik geratu zen Bergarako aurrelaria baina, ordurako, epaileak falta adierazia zuen. Baloia sareetara bota zuen arren, balio barik geratu zen gola.

Atzean, lokartuta

Behin hasierako hogeita minutuak pasata, etxeko jokalariek intentsitatea jaitsi egin zuten. 26. minutuan, Urolak falta bat aprobetxatu zuen lehenengo gola egi-

teko. Urolako jokalaria bizi ibili ziren: bergararren moteltasuna aprobetxatu, falta agudo atera eta gola egin zuten, ezkerreko hegaletik erdiratuta.

Bigarren gola hiru minutu geroago etorri zen: zelai erdian baloia lapurtu eta ezkerreko hegaletik barneratuta egin zuen gola Paniagua hegalekoak.

Bergarako jokalarien gaizki ulertu edo moteltasunaren ondorio izan ziren bi golak.

Atsedenen aurretik gola

36. minutuan egin zuen Bergarak partiduko gol bakarra. Korner baten ondoren izan zen; erdiraketa urrunduko egin zuen Urolak baina alderatzea Balzategik aprobetxatu zuen gola egiteko. Urolako jokalariek area barruan baloia eskuarekin ukitu zutela protestatu zuten.

1-2koarekin, Bergarako jokalaria indartu egin ziren; hala, berdinketa egiteko gauza zirela ematen zuen. Baina, atsedendiaren ondoren, hankaz gora jarri zen lehia berriro ere. 71. minu-

tuan, atzelarien eta atezainaren gaizki ulertu baten ondorioz, penaltia adierazi zuen epaileak: Arizmendik 1-3koa egin zuen. Hamar minutu geroago, Urolaren laugarrena iritsi zen.

Emaita horrekin, partidua erabakita zegoen. Gainera, azken minutuetan, etxekoak hamar lagunekin geratu ziren.



Fernandez, baloia kontrolpean duela. | JOSETXO ARANTZABAL

FITXA TEKNIKOA

Bergara: Lopez, Urrutia, Arruti, Elorriaga (Ugarte, 65. min.), Arazkonaga, Balzategi, Crespo, Oregi (Perez, 79. min.), Macho (Aiud, 88. min.), Fernandez (Plazaola, 73. min.) eta Cavanillas (Ugalde, 71. min.).

Urola: Gomez, Badiola, Zufria, Nuñez (Fernandez, 90. min.), Arizemendi (Zabaltza, 88. min.), Avila, Urtzelai (Pagola, 84. min.), Orosagasti, Imaz, Alejandro (Aseginolaza, 75. min.) eta Paniagua (Nuñez, 66. min.).

Epailea: Robles, Vargas eta Ramon.



Domekan Mondrako neskek Lezaman: hasierako hamaikakoa eta Andoni Eskurra eta Jon Zuloaga entrenatzaileak. | MAITANE GALLASTEGI

EMAKUMEZKOEN BIGARREN MAILA

Talde indartsuenaren aurka irudi ona eman zuten Mondrako neskek

3-1 galdu zuten Lezaman Athletic B-ren aurka Arrasateko neskek

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Maila berria estreinatzeko partidu "zailena" egokitu zaie Mondrako neskei. Lezaman, Athletic B-ren aurka jokatu zuten atzo mondragoetarrek eta esku hutsik bueltatu ziren. Emaizta txarra aurreikuspenen barruan zegoen; horregatik, kontuan hartu behar dena da taldeak Lezaman egin zuten lana.

Parez pare jokatu zuten

Mondra indartsu irten zen zelaira eta, batez ere, lehenengo zatian

kikildu barik jokatu zuten, aurrez aurre. 20. minutuan, baina, zalan-tzazko jokaldi baten ondoren, penaltia adierazi zuten epaileak. Bilbotarrak 1-0 aurreratu ziren. Hurrengo jokaldian, Mondrak izan zuen gola egiteko aukera. 30. minutu inguruan, falta baten ondoren sartu zuten bilbotarrek bigarrena. Mondrako jokalarien hutsegite edo kontzentrazio faltaren ondorio izan zen gola. Hurrengo minutuetan gora egin zuten mondragoetarrek, baina ez zuten aukera garbirik sortu.

Maitane Roaren gola

Bigarren zati hasieran iritsi zen Mondraren gola. Zelai erdian baloia lapurtu zuten arrasatearrek, pase sakona egin eta Maitane Roa bakarrik geratu zen atezainaren aurrean. Roak 2-lekoa jarri zuen markagailuan.

Lehia berdintzeko aukera garbiak izan zituzten arrasatearrek, batez ere, korner baten ondoren langa jo zutenean. Baina arrasatearrek ezin izan zuten bigarren gola egin eta, gainera, indarrez justu iritsi ziren azke-

neko minutuetara. Hala, partidua amaitzeko zortzi minutu falta zirela, Athletic-ek hirugarren eta azken gola egin zuen. Modu horretan, lehia erabakita utzi zuten bizkaitarrek.

Zaleen babesa izan zuten

Mondrako entrenatzaileak pozik zeuden taldeak partiduan egin zuen lanarekin eta izan zuen jarrerarekin. "Kontuan hartu behar da Athletic-ek Bizkaiko jokalaria onenak dituela, selekzio bat da", azaldu zuen Andoni Eskurra entrenatzaileak. Gainera, nabarmendu zuen Arrasateetik jende asko joan zela Lezamara.

Aurtengo denboraldiari begira Mondrak fitxatu dituen lau jokalar berriek debuta egin zuten atzokoan. Dagoeneko taldera moldatu direla esan du entrenatzaileak, "lehenengo egunetik", gaineratu du.

OHOREZKO ERREGIONALA

Goiko postuei begira jarraitzen du UDAk Elgoibarren irabazita

Aretxabaletarrek jaietako biharamunari eta bero handiari aurre egin eta 0-1 irabazi zuten Elgoibarren. Iker Sanchezek egin zuen gola bigarren zatiko 7. minutuan. UDAko entrenatzaileak azaldu du aurreikusitako bezala Elgoibar atzean sartuta irten zela, berdinketaren bila. Pozik dago taldearen lanarekin eta erakutsitako konfiantzarekin.

OHOREZKO ERREGIONALA

Mondrak 2-1 galdu zuen Hondarribiaren aurka atzo, domeka

Mondrak partidurik irabazi barik jarraitzen du oraindik. Atzo, Hondarribiaren zelaian jokatu zuen ligako hirugarren jardunaldia eta 2-lekoarekin itzuli zen Arrasatera. Oraindik puntu bakarra lortu du Mondrak-Trintxerperen aurkako berdinketa. Datorren astean norgehiagoka polita izango du: Bergararen aurkako derbia.

ARETO FUTBOLA

Bertan behera geratu zen Eskoriatzaren norgehiagoka

Eskoriatzak Intxaurtxuetan hasi behar zuen liga zapatuan, Reformatlux taldearen aurka. Baina lehia bertan behera geratu zen Reformatlux ez zelako norgehiagokara agertu -ezkontza bat zutela azaldu zuten-. Hasiera batean lehia etxeokendako da (3-0); Patxi Nevado entrenatzaileak, baina, azaldu du helegitea aurkez dezaketela aurkariek.



JOSETXO ARANTZABAL

GAZTEEN EUSKAL LIGA

UDAk galdu egin du etxean (1-2)

Euskal ligako gazteek galdu egin zuten zapatuan etxean jokaturako norgehiagoka. Eibartarrak 1-2 nagusitu ziren aretxabaletarren aurrean. Hala, hiru puntuak eraman zituzten Ibarra futbol zelaitik. Ligako hirugarren jardunaldia da eta oraindik ez dute partidurik irabazi Aretxabaletako gazteek. Danok Baten aurka 0-0 egin zuten; eta joan zen astean Beasainen aurka, 2-2.

OHOREZKO ERREGIONALA

Joko ona egin arren Aloña Mendik ez du garaipena ezagutu oraindik

Roberto Idigorasek egindako golarekin aurreratu egin ziren oñatiarrak

A.E. | ARRASATE

Aloña Mendik joko ona egin zuen zapatuan Pasaian eta irudi ona eman zuen; hala ere, esku hutsik itzuli zen Pasaiatik.

Gola 20. minutuan

Lehenengo zatian oñatiarrak egin ziren baloiaren jabetzarekin eta partiduen kontrola izan zuten; hala, 20. minutuan Roberto Idigorasek gola egin zuen. Ondoren, pare bat aukera garbi izan zituzten oñatiarrek bigarren gola egiteko, baina ez zuten baloia sareetan sartzea lortu.

Atsedena gainean zela Pasaiak 1-lekoa egin zuen; eta bigarren zatian, falta baten ondoren, 2-1 aurreratu ziren pasaiatarrak. Azken minutura arte borrokatu zuten oñatiarrek: Asier Ugartek aukera garbia izan zuen, baina langa jo zuen.



Aloña jokalariek Ondarroakoekin lehia, joan zen asteko partiduan | J.A.

EUSKADIKO TXAPELKETA

Bergarak irabazi egin du, baina landu beharrekoak ere agerian utzi ditu

- ▶ Azken 15 minutuetan partidua galtzeko arriskuan egon ziren Muniategiren mutilak
- ▶ Partidu bakoitza final bat izango dela aurreikusten dute; lehenengoa horrela izan da

EMAITZA

SORALUCE BKE
29-27
USURBIL

FITXA TEKNIKOA

Soraluce BKE: Kapelastegi, Uribe (3), A. Lenisoro, Ugarte, Martinez, Eguren, H. Lenisoro (5), Orgaz (7), Sevillano (2), Urbina (1), Plazaola (3), Agirre (5), Manuel (3).

Usurbil: Montes, Chamorro, Toledo (1), Izagirre (4), I. Orena (3), Holgado, Iradi, A. Orena (1), Aisa, Alzaga (4), Bengoetxea (5), Perez (5), Irazusta (4).

Markagailua bost minuturo: 2-2, 4-5, 6-8, 9-8, 12-8, 16-12, 19-13, 21-14, 23-16, 24-18, 26-23 eta 29-27.



Hodei Lenisoro ate aurreko jokaldi batean. | JOSETXO ARANTZABAL

aldaketa gutxi egitearen ondorioz nekatuta iritsi zaretelako partidua amaierara. Alde nabaria izan dugu markagailuan eta ez dugu mantentzen jakin".

Joko ona ere bai

Sentsazio gazi-gozoa utzi zuen zapatuko norgehiagokak Bergaran, baina aitortu behar da minutu onak ere ikusi genituela. Lehenengo zatiko bigarren laurdena eta bigarren zatiko lehenengoa onak izan ziren. Errenta interesgarri bat atera zuten markagailuan eta Muniategiren mutilak joko ona eta bizkorra egiten ikusi genituen. Datorren astean Gasteizen jokatu dute bergarrek Corazonistas taldearen aurka.

JOSETXO MUNIATEGI | ENTRENATZAILEA

"Denboraldi honetan partidua bakoitza final bat izango da guretako; hil ala bizikoa"

Denboraldi gogorra aurreikusten du Soraluce BKE taldeko entrenatzaileak. Argi du helburua maila mantentzea izango dela.

Pozik, lehenengo emaitza honekin?

Bai, azken finean irabazi egin dugu, baina akats handiak egin ditugu, batez ere, azken 15 minutuetan.

Talde gaztea duzue aurten.

Bai, gazteegia maila honetarako. Bost baja izan ditugu aurten eta bi jokalaria gazte igo ditugu. Gaurko deialdian,

bestalde, gazte mailako hiru jokalaria genituen 12ko taldea aurkeztu ahal izateko.

Nolako denboraldia espero duzu?

Gogorra, oso gogorra. Ez da izango puntu askoko denboraldia. Partidu bakoitza final bat izango da guretako, hil ala bizikoa, eta asko kostako zaigu puntu bakoitza ateratzea.

Gaurkoan eskuratu dituzue.

Bai, eta oso pozik gaude. Egia da akats batzuk egin ditugula, baina zenbait tartetan oso ondo jokatu dugu eta hori



Josetxo Muniategi. | L.Z.

baloratu egin behar da. Denboraldi-aurrea oso txarra egin dugu, jendea falta izan dugu, entrenamendu onak gutxi izan dira... Denboraldi-aurreko partidua ikusita, gaur oso ondo jokatu dugu.

LARRAITZ ZEBERIO | BERGARA

Denboraldiko lehenengo norgehiagoka irabazi egin du Bergarako Soraluce BKE taldeak, baina partidua amaieran nekeak eragindako haserrea nagusitu zen jokalarien artean. Azken minutuetan, garaipenak ihes egiteko aukera erreala zela ikusi zuten eta Josetxo Muniategi entrenatzaileak argi hitzegin zien: "Gaizki, oso gaizki jokatu dugu azken ordu laurdenean. Bakarka jokatu dugu eta erabaki okerrak hartu ditugu. Lehen akatsa nirea, defentsara jokatu dudalako eta

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ford Mugarrik mendean hartu du aurkaria txapelketako lehen partiduan

Arrasatearrek 34-26 irabazi zieten zapatuan La Bacaladera-Hondarribia taldeko mutilei

L.Z. | ARRASATE

Pozik da Ford Mugarri Arrasateko entrenatzaile Ane Herrero. "Lehenengo zatian bigarren baina hobeto aritu ginen, baina partidua txukuna egin genuen", adierazi du. "Ondo aritu ginen, bai defentsan bai erasoan, eta atean ere lan ona egin genuen".

Hasieratik jarri ziren aurretik Arrasatekoak eta atsedendian markagailua 18-10ekoa zen.

Amaiera zailagoa

Hondarribiarrek talde gaztea ekarri zuten eta gutxi etorri ziren, baina partidua salbatzen saiatu ziren. Bigarren zatian txartel gorria ikusi zuten Arrasatekoek eta kanporatzeak ere egon ziren. "Intentsitatean jaitsi egin ginen eta gol aukera nahiko argiak kale egiten hasi ginen", dio Herrero. Aurretik ateratako errenta ondo etorri zitzaion.



Iker Zubiaurre, atera jaurtiketa egiteko gertu. | J.A.

Arrasateko jokalariai *mele* batean baloia eskuratu ostean. | JOSETXO ARANTZABAL

Arrasateko errugbi taldeak itxura ona eman du lehenengo partiduan

- ▶ Uni-Bilbao taldeko jokalariai markagailua estreinatu barik itzuli ziren etxera
- ▶ Sei entsegu eta lau transformazio egin zituen Igor Isasiren taldeak

EMAITZA

KANPANZAR-ARRASATE

38-0

UNI-BILBAO

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Hasieran kosta egin zaigu euren kanpora sartzea, baina hobetzen joan gara eta azken minutuetan hobeto ibili gara, gogo gehiagorekin", adierazten zuten Kanpanzar-Arrasate taldeko mutilek norgehiagoka amaieran. Akaso Arrasatekoen garaierak zerikusia izan du Bilbokoen ezinarekin,

baina markagailuak argi hitzegtzen du; 38-0.

Mojategiko harmailetan bilutako jendeak ere eskertu zien egindako lana. Txalo zaparradarrekin agurtu zituzten norgehiagoka amaieran. Izan ere, aurten denboraldia oso polita izan daiteke Arrasateko errugbizaileendako. Azken denboraldietan taldeak zailtasun dezente izan ditu, larrienak jende faltagatik. Iaz Durangorekin lortutako akordioak ez du jarraipenik izango eta aurrera egin nahi badu taldeak etxeko jokalariekin egin beharko du. Taldean baikor dira; jende gaztea sartu da eta errugbia lagata zuen jendea itzuli da.

Sei entsegu

Sei entsegu eta lau transformazio egin zituzten arrasatearrek zapatuko norgehiagokan. Lehenengo zatiko entseguak hiru izan ziren. Carlos Lazkanok, Aitzol Azkarragak eta Beñat Salaberriak egin zituzten. Transformazioak bi izan ziren. Hala, atsedenean markagailua 23-0koa izan zen.

Bigarren zatian ere oso ondo aritu ziren etxeko jokalariai. Beste hiru entsegu eta bi transformazio egin zituzten. Bi entsegu Andoni Altunak egin zituen eta azkena Andy Wosniak.

Ezer gutxi egiteko aukera izan zuten bizkaitarrek. Saiatu arren, zailtasun handiak izan zituzten euren joko aurrera eramateko eta ez zuten markagailua estreinatzea lortu.

Denboraldi-aurrea giltzarri

Denboraldi-aurrea ona egin dute Igor Isasiren mutilek. Talde gogorak izan dituzte aurrez aurre eta hori oso entrenamendu interesgarria da. Jende aldetik ere ondo ibili dira; Isasik 30 jokalaritik gora izan ditu bere aginduetara denboraldi-aurrea.

Irungo taldearen aurka jokatuko dute hurrengo norgehiagoka, denboraldiko bigarrena. Lehenengo garaipen honek indarra eman die Arrasateko mutilei eta gogoz zelairatuko dira Irunen ere.

ANDY WOSNIAK ERRASTI | TALDEKO KAPITAINA

"Errugbia lagata zuen jendea itzuli izana oso garrantzitsua da taldearendako"

Gaztea da Arrasateko errugbi taldeko kapitaina. Zapatuan berak egin zuen azken entsegu. Denboraldi berriaren inguruan galdetuta, baikor azaldu da: jendea gogoz ikusten du eta sentsazio onak ditu. Jokalaria ohiak taldera itzuli izana garrantzitsua deritza. Bere ustez, jokalaria horien esperientziak asko emango die taldeari.

Gustura, lehenengo emaitzarekin?

Bai, nahiko gustura. Jende berria daukagu taldean, baina errugbia utzita zuen jendea ere itzuli egin da aurten eta asko nabaritzen da haien esperientzia.

Nola ikusten duzue denboraldi berria?

Nahiko sentsazio onak ditugu. Aurreko urteetan larri ibili gara, ez genuen nahikoa jende, baina aurten nabari da jendea gogoz dagoela. Entrenamenduetan ere gehiago elkartzen gara.

Neguan egiten da gogorren entrenatzera etortzea, ezta?

Bai. Eguraldi txarra denean eta hotz dagoenean, jende gutxiago etortzen da. Zailagoa da eta gogo falta nagusitzen da.

Jendea ere etorri da harmailetatik animoak ematera?

Bai. Normalean ez da jende asko etor-



Andy Wosniak Errasti. | L.Z.

tzen eta gaur jendez ondo ibili gara. Etorri egin dira eta, gainera, portatu egin dira.

Arerio gogorrena zein izango da aurten?

Gogorrena seguruenik Hernani izango da. Txikitatik hasten dira errugbian eta maila handia izan ohi dute.

Zein duzue hurrengo arerioa?

Irundarren aurka jokatuko dugu hurrengo partidua. Gogo handiz joango gara, partidua irabazteko prest.



Arrasateko taldea jokaldia egiteko prest. | JOSETXO ARANTZABAL



Zapatu goizean euria egin zuen arren, fin aritu ziren jokoan. | JOSETXO ARANTZABAL



Parte hartzaile bat, pilota zuloan sartzen. | JA

**JABI BALZATEGI**
OÑATI

"Ia 30 urte daramatzat golfean jokatzeko; AEBetan hasi nintzen eta gero Larrabeen ere jokatu nuen. Oñatiko golf eskolara jende asko etortzen da; normalean jendea astean birritan etortzen da eta baita zapatu eta domeketan ere".

**ARMANDO JIMENEZ**
ARRASATE

"Orain dela bost urte hasi nintzen golfean jokatzeko. Normalean Errioxara joaten naiz golfean egitera, baina Oñatiko Irelore golf eskolara ere etortzen naiz. Nire ustez, lagunekin egoteko aukera eskaintzen duen kirola da eta, gainera, gustura pasatzen dut denbora hemen".

**ANDONI GARTZIA**
OÑATI

"Sei bat urte dira kirol honetan hasi nintzela. Normalean Ireloren ibiltzen naiz eta baita Larrabeen edo Euskal Herriko beste eskola batzuetan ere. Jende asko ezagutzeko aukera eskaintzen du golfak, anaitasun handia dagoela esango nuke. Ez da jendeak uste duen bezain garestia".

GOLFA

San Migel golf txapelketak balio izan du ikusteko Debagoieneran ere badaudela golf zaletuak

- ▶ Luis Arregi, Miren Arkauz eta Ander Biain izan dira bederatzigarren txapelketa honetako onenak
- ▶ 2002an estreinatu zuten Irelore eskola; gaur egun 260 bazkide dituzte, herri askotakoak

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

San Migel golf txapelketa jokatu dute aste bukaeran Oñatiko Irelore golf eskolan eta, helduen eta gaztetxoaren mailetan banatuta, 65 jokalarik parte hartu dute.

Nagusietan, Luis Arregi arrasatearra izan da gizonezko onena; emakumezko onena, oster, Miren Arkauz oñatiarra izan da. Gaztetxoaren mailan, Ander Biain oñatiarra nagusitu da.

260 bazkide ditu eskolak

2002 urtean inauguratu zuten Irelore golf eskola. Urte guzti hauetan 500 lagun inguruk atera dute *handicap*-a Ireloren -golfean jokatzeko gaitasuna-.

Golf eskolak 260 bazkide ditu gaur egun, gizonezkoak gehiago emakumezkoak baino. Jabi Balzategi eskolako arduradunak azaldu du adin tarte guztietako jokalariek dituztela: "Gutxi gora behera, 25 urtetik aurrera hasten da jendea golfean jokatzeko; gazteagoak etortzea zaila da". Irelore eskolako kuota da 175 euro urtekoa. "Kuota horrekin zelaira etortzeko aukera dago, hemen jaurtiketarako praktikatzerara", dio.

Izan ere, Ireloren gaur egun ezin da jaurtiketarako praktikatzea eta zelaietan jokatu batera egin. Aurrerantzean biak egin ahal izateko zulo gehiago egiten dabilta. Orain

sei zulo daude eta etorkizunean bederatzizko izatea da asmoa.

Urtean bi txapelketa antolatzen dituzte Oñatin: San Migeletakoa eta Udaberrikoa. Iaz, gainera,

Ipar eskualdeko *Pitch & Putt* zirkuitua ere egin zuten Oñatin. Ireloren Debagoieneko jendea dabil batik bat; baina baita Eibar, Legazpi eta Donostiakoa ere.

IRAILEKO SARIEN IRABAZLEAK

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Debagoiena ezagutzen

Izen-abizenak:
Gotzon
Agirre Arregi
Herria: Arrasate

Izen-abizenak:
Nerea Arregi
Uribeetxeberria
Herria: Oñati

Izen-abizenak:
Maribi Visitacion
Zabaleta
Herria: Bergara



JAKIÑ
www.jakion.es

Jakionek emandako
Produktu sorta*
* 50 eurotan baloratutako sorta.

**ZORIONAK,
GUZTIOI!**

Saskibaloit taldeek ez dute emaitza onik lortu oraingoan

Gipuzkoa mailako senior gizonezkoetan Mondragon Unibertsitateak irabazi du

A.E. | ARRASATE

Gureko taldeak ez dira oso fin ibili saskibaloitari dagokionez. Denetariko emaitzak lortu dituzte. Senior gizonezkoen mailan, esaterako, Mondragon Unibertsitateak 61-58 irabazi zion Bos-

teko taldeari; datorren astean Santo Tomas Lizeoaren aurka jokatu dute.

Gipuzkoako bigarren mailan, Aloña Mendik 82-78 galdu zuen DKS taldearen aurka. Datorren astean Cafes Aitona taldearen

aurka jokatu beharko dute oñatiarrek.

Kadete maila

Oraindik hainbat mailetan ez dute liga hasi. Ointxe elkarteari dagokionez, kadete gizonezkoak dagoeneko hasi dira denboraldiarekin. Oraingo aste bukaeran etxean jokatu dute eta porrot handia jasan dute gainera. Easo 96 Haitza taldearen aurka 29-58 galdu dute arrasatearrek.

Datorren aste bukaeran Heranirenen aurka neurtuko dituzte indarrak gaztetxoek.

Laura Saez AKE taldekoa aurten ere bigarren mailako Espainiako squash txapeladuna da

A.E. | ARRASATE

Atzo, domeka, jokatu zuten finala Iruñan. Ana Buizanen aurka jokatu zuen Laura Saezek eta, 3-0 irabazita, Espainiako txapelketa lortu zuen. Bigarren urtea da Saez Espainiako bigarren mailako txapeladuna dena.

Aurten beste urte batzuetan baino neska gutxiagok hartu dute parte txapelketan. Lau

jokalaritza dira lehian; lehenengo ligaxka moduko bat jokatu dute, eta, herenegun, zapatua, finalerdiak jokatu zituzten.

Maila oneko kirolaria

Saez gasteiztarra da jaiotzez baina Eskoriatzan bizi da eta, gaur egun, AKE taldean jokatu du. Inaki Uribeetxeberriak dio zaila dela "bere mailako aurkariak" bilatzea nesketan.

DUATLOIA

Xabi Luis | Atleta

"Ez nuen espero hain ondo ibiliko nintzenik, sorpresa izan da seigarren postuan geratzea"

- ▶ Zapatuan eta domekan Munduko duatloi txapelketak jokatu dituzte Asturiasen
- ▶ Xabi Luis oñatiarrak seigarren egin du 20 eta 24 urte bitartekoen mailan

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

23 urte ditu Xabi Luis atleta oñatiarrak; eta, urtebete besterik ez dabil duatloien munduan. Aste bukaeran Gijonen izan da, Munduko txapelketa jokatzeko. Familia guztiaren laguntza izan du oñatiarrak Asturiasen.

Zorionak! Munduko seigarrena zara!

Uste baino emaitza hobea izan da. Lehenengo 10 kilometroetan gustura ibili naiz, gogor. Gero, bizikletan lasai joan naiz eta azkeneko 5 kilometroak gogorak izan dira.

Lasterketa hasieran atzeko postuetan irten dut eta pentsatzen nuen azkena iritsiko nintzela. Anaiak esaten zidan laugarren nindoala, eta azkenean seigarren postuan amaitu dut.

Nolako lasterketa izan da?

Lehenengo 10 kilometro korrika egin ditugu, hondartza inguruan. Bizikletan 40 kilometro egin ditugu, hondartza ondoan eta inguruan dagoen mendate batean; eta, amaitzeko, bost kilometro korrika.

Egubakoitz goizean bizikletako tartea ikusten ibili nintzen, eta zapatu goizean korrikako ibilbidea.

Zer esan gura du zuretako horrelako mailako lasterketa batean parte hartzeak?

Handia da halako aukera izatea. Gainera, ez nuen espero eta espero ez duzunean...

Noiz jakin zenuen Munduko lasterketan parte hartzeko aukera izango zenuela?

Apirileko bigarren aste bukaeran Espainiako txapelketa jokatu nuen. Han, batzar bat izan genuen eta esan ziguten hamarren barruan egiten genuenok Munduko txapelketa jokatu genuela. Zortzigarren geratu nintzen eta horregatik zuzenean sailkatu nintzen Gijongo Munduko txapelketa jokatzeko.

Munduko txapelketa jokatu zenuela zenekienetik nola entrenatu duzu? Zelako uda izan da?

Apirilean jakin nuen; ondoren, beste lasterketa batzuk jokatu nituen eta gero hilabetez geldi egon nintzen. Uztaila eta abuztuan, ostera, gogor entrenatu dut.

Irailean lasaixeago ibili naiz, hainbat kros egin ditut baina ez gogorak. Uztaila eta abuztua izan dira gogorrenak.

Entrenamenduak zure aldetik egin dituzu?

Bai, nire kabuz ibili naiz. Lanetik irtererakoan eguraldiaren arabera bizikleta hartu dut edo korrika egitera irten dut. Nire kabuz ibili naiz.



Xabi Luis Munduko txapelketara joan aurretik, Oñatin. | ARANTZAZU EZKIBEL

Zuretako zer da samurragoa bizikletan ibiltzea edo antxintxika egitea?

Nik uste dut hobeto moldatzen naizela bizikletan. Azken finean bizikletan 17 urte nituela hasi nintzen, eta antxintxika, ostera, iaz hasi nintzen.

Kilometro gehiago egin ditut bizikletan eta hobeto moldatzen naiz.

Zure taldean, 20-24 urte bitartekoak, zu zara hemengo bakarra.

Nire taldean ni naiz Euskal Herriar bakarra; gainerako adin taldeetan nafar bat eta Ermuko bat

"Nik uste dut hobeto moldatzen naizela bizikletan antxintxika baino"

"Espainiako txapelketa, Mundukoa... zer gehiago eskatu?"

badaude, eta profesioletan baita Mundakako bat ere.

Orain dela urtebete hasi zinen duatloiak egiten. Zerk bultzatuta?

Esan dudan bezala bizikletan ibiltzen nintzen; txapelketaren batean parte hartzea gura nuen, eta Oñatin duatloia egiten denez izena ematea erabaki nuen. Probatzea erabaki nuen eta gustura geratu nintzen.

Lehenengo duatloi hartako emaitza ez zen ona izan, baina ondoren beste batzuk egin nituen. Aurten, berriz, denboraldi guztia egin dut.

Duatloietan trantsizioak oso garrantzitsuak izaten dira. Bereziki entrenatu dituzu?

Ez, denboraldian zehar metodologia edo orden bat hartzen da eta hala moldatzen naiz.

Egia da, aurreko astean entrenamendu txiki bat egin nuela etxeko garajearen. Bizikleta kanpoan utzi nuen eta korrika itzuli bat egin ostean bizikleta hartu nuen.

Garrantzitsuak dira trantsizioak ondo egitea denbora ez galtzeko.

Bai, baina egia esan denbora galtzea baino gehiago gerta daitekeena da trantsizioa gaizki eginez gero zu zoazen taldetxoak ihes egitea.

Orain arte egin duzun lasterketatik zein duzu gustukoena?

Amorebietakoa asko gustatu zitzaidan. Azkenetarikoa izan da, eta hamargarren geratu nintzen. Iaz ere ondo ibili nintzen lasterketa horretan.

Amorebietan, ia lasterketa guztia seigarren postuan ibili nintzen, eta azken kilometroan 10. tokira jaitsi nintzen.

Oñatin ere egiten da duatloia. Berezia da herrian jokatzeko?

Bai, eta gainera Oñatikoa lehenengo duatloia izan zen. Berezia da ibilbidea ezaguna delako alde batetik, baina bestetik lagunak eta familia artekoak ere inguruan egoteak animatu egiten du.

Esan behar da fama handia hartzen dabilela Oñatikoa duatloia. Euskaldun onenek parte hartzen dute eta kanpotik ere etortzen dira bai frantsesak, baita Australiarren bat ere...

Atzoko lasterketarekin amaitutzat eman duzu denboraldia?

Bai, duatloien denboraldia bai. Orain hilabetez atsedendia hartuko dut eta azaroa inguruan berriro ere hasiko naiz entrenamenduekin.

Noiz hasiko dira lasterketak?

Otsaila edo martxoa inguruan hasten dira duatloiak.

Hortaz, beste denboraldi bat has-teko gertu zaude!

Bai, lesioek errespetatuz gero bai. Orain arte ez dut minik hartu, baina lesio handiren bat izanez gero... horrelakoetan, agian urte erdi geldi egon behar duzu. Hortaz, minik ez hartzea garrantzitsua izango da.

Baduzu helbururik?

Aurtengo denboraldiko emaitzak hobetzea izango helburua. Euskadiko txapelketako ia lasterketa guztiak egin ditut; baita, Espainiako txapelketa ere; eta, orain, Mundukoa. Zer gehiago eska dezaket!

74 haur, Arrasaten dagoen umeen obesitate eta nutrizio klinikan

Familia osoaren inplikazioa ezinbestekoa da haurren loditasun arazoei aurre egiteko

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE
Gizarte aurreratueta epidemia bat da haur loditasuna. Tratamendu oso zaila dauka, izan ere umeen elikadura ohiturak aldatzea eskatzen du. "Gehienbat gurasoen bidez jasotzen dituzte elikadura ohitura txar horiek", dio Arrasateko klinikako dietista Laura Alutizek.

Osakidetzak eskaintzen duen zerbitzua da Arrasateko loditasun klinika eta uneotan 74 haur artatzen dituzte bertan; "4-14 urte bitarteko neska-mutikoak dira eta pediatrik guregana bidalita iristen zaizkigu", azaldu du Alutizek. Hala, errutinazko kontrol batean pediatria konturatzen bada ume bat perzentiletatik irten egiten dela erabaki dezake programa horretan sartzea.

Jarraipen zorrotza

Umea programan onartua denean azterketa sakon bat egiten zaio. Neurriak hartzen zaizkio eta, besteak beste, gantz-konpartimentua neurtzen zaio. Gurasoei, bestalde, umeak jaten duen guztia apuntatzeko eskatzen zaie, baita egiten duen ariketa fisikoa ere. Informazio hori guztia klinikako dietista-

rengana iristen da, eta horrek dieta pertsonalizatu bat prestatzen du umearendako. "Argaltzea baino elikadura ohitura onak erakustea da gure helburua", dio Alutizek. "Umeari ez diogu sekula dieta hitza aipatzen".

Pediatrik egiten du programaren jarraipena. Umeak hileroko egiten dio bisita eta neurketa guztiak egin ostean konturatzen bada gantz-konpartimentua ez dela behar beste jaisten umea klinikara itzultzen da. Bertan gurasoekin batzartu ostean arazoa zein den identifikatzen saiatzen dira eta beharrezkoa bada dietistak dieta berria ipintzen diote.

Familia osoaren konpromisoa

Familia osoaren esku-hartzea ezinbestekoa da; umeek gurasoengandik hartzen dituzte elikadura ohitura onak zein txarrak. Epe luzeko tratamendua da, baina umearen osasuna dago jokoan. Laburpen gisa, adituek gozokiak neurtzeko, barazki, leka eta fruitu gehiago eskaintzeko eta jarduera fisikoa egiteko ohitura erakusteko gomendatzen dute.



Gazte bat litxarrerria denda baten atarian. | GOIENA

Uda ostean zorriak edukitzeko arriskua handitu egiten da

Abuztuan eta irailean saltzen da zorrien aurkako botika gehien farmazietan

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Zorriak ditugulako lotsatzeak ez du zentzurik. Okerreko ustea da, halaber zikintasunak erakartzen dituela zorriak. Zorrien arazoaren inguruan lan egiten duen SEPEAP elkarteak berriki ezagutzera eman duen inkesta baten emaitzek jasotzen dutenez EAE-an hamar umetik seik zorriak izan ditu. Beste datu bat; soilik %15-ak jo du sendagilearen edo botikariarengana aholku eske.

Adituak saiatzen dira uste okerrak nabarmentzen; "Zorriak ez dira zikintasunarekin hedatzen, nahigo dute ile garbia, eta pertsonen edo familien maila sozioekonomikoa ez da erabakigarria". Haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan ematen dira kasu gehien; "Ikasturte hasiera oso sasoi aproposa da zorriak ugaritzeko. Ume asko elkartzen dira eta zorriak buru batetik bestera pasatzen dira oso erraz".

Okerreko usteak

Ilea mozteak ez da nahikoa zorriak guztiz desagerrarazteko. Guztiz eraginkorrak izateko ile guztia kendu behar da eta hori oso neurri bortitza da, umearen autoes-



Umeari zorrien aurkako produktua ematen. | SEPEAP

timazioan eragina izan dezakeena. Garrantzia da baita ere kutsatutako pertsonak erabilitako arropa guztia ondo garbitzea; 60 gradutan, hain zuzen ere. Eta inguruko umeek zein nagusiek zorrien prebentziorako tratamendua egin beharko lukete. "Produktu horiek pelikula babesle bat sortzen dute buruan eta zorriak iristen direnean antenak saturatu egiten zaizkie. Hala, ezin dute buru horretan jarraitu eta alde egiten dute".

Argi eduki behar dugu, bestalde, ozpina bartzak — zorrien arrautzak — iletik askatzeko erabiltzen dugula, ez da eragin korra zorriak kentzeko.

Ikastetxean abisu eman

Seme-alabaren batek zorriak dituela atzematen badugu garrantzitsua da ikastetxean abisua ematea. Tratamenduarekin hastea nahikoa da, umeak ez du zertan etxean gelditu behar. Argibide gehiago; infopiojos.com.

Gure txikiei ere garaian garaiko produktuak eskaini

Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak hiru errezeta interesgarri eskaintzen dizkigu

L.Z. | ARRASATE

Udara bukatzen ari den arren, Amaia Diaz de Monasterioguren nekogorazten digu gure merkatu eta ortuetan barazki eta fruta barietate izugarria dagoela. Urtaro honetako produktuekin gure txikiei eskaintzeko moduko

hiru proposamen egiten dizkigu Guraso.com webgunean; kalabazin krema gaztarekin, entsalada eta udako fruta egosiak. Nola prestatu azaltzeaz gain aholku dietetikoak ere eskaintzen dizkigu. Kalabaza, esaterako, oso aberatsa da bitamina eta mineraletan

eta digeritzen erraza. Entsaladako barazki gordinek ere onura handiak ekartzen dituzte.

Sasoiko frutak egosita

Mahatsa, sagarra, melokotoia, madaria eta platanoa gomendatu dizkigu dietistak. Meriendarako edo postrerako oso egokiak omen dira. Zatitu, 12-15 minutuz egosi eta freskatzen uztea proposatzen du. "Mahatsa interesgarria da idorria sufritzen duten umeentzat, platanoa fruta energetikoa da, melokotoiak bitamina A ugari dauka, eta sagarra laxantea da", adierazi du.

Ume jaio-berriendako egindako lehen audifonoa

Widex enpresak eskaintzen du; laster zabalduko dute egoitza berria Donostian

L.Z. | ARRASATE

Bultzatzaileen esanetan ume jaio-berriendako bereziki egindakoa den audifono bakarra da munduan; Widex Baby440 audifonoa, hain zuzen ere. Entzumen arazoak

umeak 4-5 hilabete dituenan atzeman daitezke adituen esanetan. Widex enpresak azaroaren 22an egingo du aurkezpen ekitaldia Donostiako Okendo kultur zentroan. Saio horretan audifonoa

aurkezteaz gain entzumen arazoaren inguruan sensibilizatzeko ikus-entzunezko bat ere aurkeztuko dute.

'Vidas sonoras' dokumentala

Albert Solé zuzendariak egin du *Vidas Sonoras* lana. Lau lagun bizenak jasotzen ditu ikus-entzunezkoak, tartean jaiotzatik gorra den Ignasi Ortuño mutikoarenak. Umearen eta beste lau lagun egunerokoa ezagutzeko aukera ematen du ikus-entzunezkoak.



KULTURA



Marcel Uhalde-bigarrena, Antonio Alustiza eta Juan Paul Cuelle hirugarrena. | MAIDER ARREGI



MAIDER ARREGI

ANTONIO ALUSTIZA
LEHIAKETAKO TXAPELDUNA

"Nire lana da; egunero joaten naiz txakurrekin arditara"

Aurten bi txakurrekin sailkatu da Alustiza. Berarendako eguneroko lana, etxeko lana dela kontatu digu.

Fin portatzen da Ttiki? Etxeko lanak ondo egiten ditu?

Etxean hobeto egiten du bere lana! Etxean moduan eginez gero txapelketan, egunero aterako nuke txapela Ttiki-rekin.

Bi txakurrekin aurkeztu zara aurten txapelketara.

Aurten *Bat* txakurrarekin ere etorri naiz. Lehen aldia izateko nahiko gustura nago. Bi urte dauzka, gaztea da. Lanean badaki, baina esperientzia falta duela ikusten zaio horrelako tokietan.

Polita, euskal arrazako txakurrak irabazi izana Nazioarteko txapelketan.

Ni beti izan naiz hemengo arrazaren aldekoa eta beti egiten dut hemengo txakurrekin lan. Borde Collie-i ez diet ezer kentzen, langileak dira, baina azkar ibiltzen dira eta hori kontrolatzea ez da erraza. Nik nahiago dut lasaigo ibili eta erakutsi.

Egunero entrenatzen dituzu.

Nire lana da, egunero joaten naiz arditara; etxeko lanak dira. Gero, banderekin ere irakatsi behar zaie txapelketarako prestatzeko. Orduak derrigor sartu behar dira.

Ttiki-ri zenbat txapelketa geratzen zaizkio?

Zazpi urte dauzka. Bederatzirekin entzumena izorratzen hasten zaiela esaten dute. Oraindik oso ondo dago, baina ikusi egin behar.

'Ttiki' eta Alustizarendako bigarrenenez Oñatiko garaipena

- ▶ Agirre Balzategi saria Joxe Mari Bengoarendako izan da aurten
- ▶ Plazaola arrasatearrak bosgarren postua eskuratu du 'Gure' txakurraz

MAIDER ARREGI | OÑATI

Urte askoan etorri da Antonio Alustiza Oñatiko Nazioarteko Txapelketara. Beti aurreneko postuetan ibilita, iaz, lehen aldiz, txapela jantzi zuen. Eta aurten, bigarren urtez jarraian eskuratu du garaipena 2010eko Nafarroako txapeldunak. Erraza ez den arren,

aurten bi txakurrekin aurkeztu da: *Ttiki* eta honen alaba *Bat* ekarri ditu. Garaipena, baina, *Ttiki*-rekin eskuratu du. Lan azkarra eta garbia eginda, eskortan berehala sartu zituen ardiak bigarren proban. "Nahiko ikararuta nentorren, frantsesak oso indartsu zetozen-eta", aitortu

zizun txapela buruan zuela. Epaimahaia nahiko zorrotza izan ote zenaren susmoa zuela kontatu zigun Joxe Mari Bengoa antolatzailleak: "Bero galantagatik ardiak terkoago dabilta eta txakurrek hozka egiten diete. Epaimahaia hori ere kontuan izan beharko luke". Hozkada dezente eta, horie-

kin, deskalifikazioak etorri ziren lehen proban. Mallorcakoa eta kataluniarrak ez ziren pasa bigarren probara. "Arraroa da, sekulako txakurrak dituzte-eta. Boder Collie arrazakoei ardiek aurre egiten diete, ordea, eta hozkadak ikusi ditugu. Pena izan da".

Agirre Balzategi saria

Aurtengo omenaldia 25 urte antolakuntza lanetan eta txakurrarekin erakustaldiak egiten ibili den Joxe Mari Bengoa oñatiarrari egin diote; Oñatiko alkate Mikel Biainen eskutik jaso zuen Bengoak Agirre Balzategi saria. Mallorcan, Katalunian, Andorran eta Euskal Herrian barrena egin ditu ordezkari lanak. "Udal honen freskotasuna asko gustatu zait eta komentatu diet ea gazteak bultzatu eta animatzen ditugun honi jarraipena emateko; segitzeak merezi duen aztertzeke". Balorazio positiboa egin arren, jende "gutxitxo" izan zela gaineratu zuen omenduak.



Border Collie arrazako txakurra ardiari hozka egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

SAILKAPENA

1. *Ttiki*, Antonio Alustiza (Nafarroa); 324 puntu.
2. *Ttiko*, Marcel Uhalde (Behe Nafarroa); 303 puntu.
3. *Julia*, Jean Paul Cuelle (Bordele); 291 puntu.
4. *Azke*, Ion Suazo (Araba); 265 puntu.
5. *Gure*, Jesus Mari Plazaola (Arrasate); 125 puntu.

Ez dago norbere buruaz barre egitea baino umore hoberik

Organik dantza eta antzerki taldeak nork bere manietan oinarritutako 'Maniatic@s' antzezlanaren ekarri zuen zapatuan Arrasateko Amaia Antzokira

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Dantza, antzerkia eta umorea izan ziren zapatu iluntzean Arrasateko Amaia Antzokian. *Maniatic@s* antzezlanean, eguneroko bizitzan ditugun maniez barre egiteko, egoera komikoez baliatzen da Organik dantza eta antzerki konpainia. Besteak beste, ohera joaterako orduan, etxea garbitzerakoan edo telefonoz hitz egiterakoan egiten ditugun zentzugabeko keinu edota mugimenduz barre egin eta horietaz konturatzeara da antzezlanaren helburua.

Antzezlanaren nola ez, aktore askok duten mania batekin hasi zuten: Amaia Antzokiko eserlekuetara jaitsi eta publikoa eurek nahi zuten erara antolatzen saiatu ziren, pasilloko argiak itzaltzeko eskatu zuten... Horrela, publikoa ia konturatu gabe, barrezka hasi eta istorioan sartzea lortu zuten.

Eszenatokira igo ziren gero. Bertan, hiru antzezleek nork bere maniez hitz egin eta horien inguruan landuriko dantzekin euren ohitura txarren burugabekeriak erakutsi zituzten. Lehenengo

dantzaldia bukatzerakoan, antzezleek bakarrik hasi eta trajea jantzi zuten. Kostatu egin zitzaizkien trajea ondo sartzeara, baina horren ostean, euren nortasuna azter-

tzeko gai sentitu ziren. Ez hori bakarrik, musikarekin bat egin zuten eta, dantzatzeaz gain, musikak fusionatu zituzten: trikitia, rapa edo Nafarroako jotak nahas-

tu zituzten. Argi geratu zen rapa eta Nafarroako jotak nahastea ez dela musika estilo berri bat, antzezlearen manietako bat baizik.

Publikoarekin bat eginda

Maniatikoez, antzezlanean, identifikazioa erabiltzen dute publikoarekin bat egiteko. Horretarako, norbanakoen maniak naturaltzat jo eta albokoek dituztenen zentzugabekeria nabarmentzen dute. Publikoak euren maniekin bat egin eta euren buruaz barre egin zuen zapatu iluntzean.



Maniatikoez trajea jantzi zuten euren obsesioetaz hitz egiko. | ANDER MONEDERO

'Zuzen-Zuzenean' ekimenaren hirugarren edizioa abian

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Eguaztenean, hilaren 28an, aurtengo 'Zuzen-Zuzenean' ekimenak antolatutako kontzertu eta horien egutegiaren berri emango du. Bertako musika sektorea eta jardueraren dinamizatzea du helburu zuzeneko musika zirkuitu honek. Hala, Euskal Herriko taldeek bertako aretoetan kontzertu gehiago egitea indartu nahi du. Elgetako Espaloia Antzokian, esaterako, pare bat zuzeneko lotu dituzte.

2009. urtean eman zitzaion hasiera zirkuituari Jaurlaritzako Kultura Sailaren -Euskadiko Soinuaren bitartez- eta musika areto pribatuen elkarrekin, *Kultura Live*-en, elkarrekin esker. Edizio bakoitzean 80 bat euskal taldek hartu dute parte eta 50 kontzertu inguru antolatu dira.

Ikusleak parte hartzea gonbidatuta daude. Horretarako, kontzertuen argazkiak eta komentarioak www.facebook.com/ZuzenZuzenean orrian utzi ditzakete eta sariak lortu: doako sarrerak, diskoak eta artista gustukoarekin egonaldia!

Anton Urrestik irabazi du Oñatiko pintura lehiaketa

16 margolarik parte hartu zuten Oñatiko arte taldeak antolatutako pintura lehiaketan

A.M. | OÑATI

Aurreko urteetan baino parte-hartzaile gutxiago izan ditu Oñatiko pintura lehiaketaren 9. edizioak. Hala ere, antolatzailerak pozik agertu dira izandako harrerarekin eta baita erakutsitako mailarekin ere.

Bi lehiaketa antolatu zituzten Oñart Oñatiko arte taldeak: nagusia, 16 urtetik gorakoena; eta gazteena, 16 urtetik beharokoena. Nagusien lehiaketan 11 margolarik eman zuten ize-

na eta, epaimahaiaren ustez, Anton Urrestiren margoa izan zen onena. Egindako lanarengatik Urrestik 600 euroko saria jaso zuen. Gazteetan, berriz, Ines Uriartek margotutako pintura izan zen onena.

Lanekin erakusketa

Atzoko lehiaketan aurkeztutako hamasei lanekin Oñartek erakusketa egingo du. Urriaren 7tik 19ra bitartean izango da kultura etxean.



Parte hartzaile bat unibertsitatearen aurrean margotzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Xarma taldeak urrian egingo du 'Karenka' lanaren aurkezpen ofiziala Eskoriatzan

Urriaren 28an, Inkernu tabernan eskainiko du diskoa aurkezteko kontzertua

M.A. | ARRASATE

Abesti landu, indartsu eta gogoragoak batzen ditu disko berriak. Abuztu erdialdean hasi ziren grabatzen Arrasateko Shot! estudioan Danbakako laugarren edizioa irabazleak. *Karenka* jarri diote bigarren lan honi izena. "Karenkak aurrez aurre esan gura du", kontatu digute Xarmako Jon Kirru Iparragirrek eta Itsaso Gutierrezek.

12 kantuz osatutako diskoa da, guztiak euskaraz. "Diskoko abesti ia guztiak guk sortutakoak dira, bat izan ezik; hori Ondarroako RKS taldearen bertsoa izango da", gaineratu digu Iparragirrek.

Jendaurreko aurkezpena

Urriaren 28an, barikuan, Eskoriatzako Inkernu tabernan aurkeztuko dute jendaurrean bigarren lana. "Soinu indartsuagoa egin nahi izan dugu; guk nabaritu dugu aldea eta uste dugu entzuleek ere nabaritu dutela aldaketa", azaldu digu Gutierrezek.

Bertara gerturatzen direnendako, 19:00etan, luntxa egingo dute eta diskoa entzungai izango da bien bitartean tabernan. Kontzertuaz gozatzeko aukera, berriz,



Itsaso Gutierrez eta Jon Kirru Iparragirre Shot! estudioan. | GOIENA

23:00etatik aurrera egingo da. Diskoa Durangoko Azokarako kalean izatea zen asmoa eta hala ere izango da.

Gainera, perla txiki pare bat, bi omenaldi xume ere jasotzen

ditu azken lanak: *Ixiltasun hautsia* kantua, Intxorta 1937 kultura elkartearendako egindakoa batetik; eta bestetik, aurtengo Ikasle Abertzaleendako sortutakoa, *Libre* izenekoa.



UDAKO ARGAZKIEN VII. GOIENA LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: goiena.net/blogak/argazkiak



ARROILA HANDIA. 2011ko maiatzak 30ean Coloradoren Arroila Handian ateratako argazkia. /Argazkia: Ekane Osa / Aretxabaleta



IRAKURTZEN. Lisboako ibaian emakume bat egun eguzkitxu hartaz gozaten. /Argazkia: Imaite Santa Cruz / Bergara



THE TEMPLE BAR PUB. Dublinen (Irlanda) historiko eta ezaguna den Temple Bar Pub sarreraren argazkia. /Argazkia: Joseba Zubia Urkiola / Oñati



IZAN ZORIONTSU GUZTIAREN GAINETIK. Eta barreneko ezin-negonak ez tarritik gora egiten zuen indarrez, mundura irten nahian, ura, lurra... guztiaren gainetik, beti ere zoriontsu izanik. 2010ko irailean, Landako urtegiaren egindako argazkia da, arratsalde eder batean.. /Argazkia: Maier Errasti / Aretxabaleta



URETANLO. Duela hiru urteko San Juanetan Palestinan izan ginen gure lagun baten ezkontzan, ta ezkontza bezperan Itsaso Hillera eramantuen gure lagun Aiman-ek. Bertan uretan "sartu", ta hara!, ezin sartu! Urak daukan gatz kontzentrazioagatik posible zen uretan lo hartzea, niri ia pasa zitzaidan moduan. /Argazkia: Aimar Elortza / Arrasate



LEIHOTIK BEGIRA. Aurtengo udan Bergaran bertan lagun bat leihotik begira zegoen bitartean ateratako argazkia. /Argazkia: Aitor Cengotitabengoa Iraegi / Bergara



DORRETXEA. Aurtengo Spliten (Croazia) ateratako argazkia. Bertan Dioclecianoren jauregiaren dorretxea ikus daiteke. /Argazkia: Aitor Zurutuza / Oñati



BORABORAAIRETIK. Egazkitetik aterato argazkia. Bertan Bora Bora (Polinesia Frantsesa) ur gaineko hotelak ikus daitezke eta atzekaldean inguruko mendirik garaiena. /Argazkia: Oskar Martinez Remedios Aretxabaleta

Oinarriak:

- Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta nongoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: irailaren 16a.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).

- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otolara Lizentziaduna 31. BERGARA: Ibarra kalea 6 ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua, edo Basabe poligonoa E-0-5.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.

Sariak:

- 1. saria:** Panasonic LUMIX DMC G10 argazki kamera digitala eta KB Photoestudiok eskaintzen dituen ikastaroetako batean, %50eko deskontu bonoa Bergarako KB Photoestudio argazki dendararen eskutik.
- 2. saria:** Cantabriar bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaia-en eskutik.
- 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



ANTOLATZAILEA: **goiena**

BABESLEA:



Laguntzaileak:





UDA KO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan:



SANTURTZIKO PORTUA. Santurtziko portuan ateratako argazkia. Bertan, itsasontzia eta garabiak ikusten dira. /Argazkia: Asier Tena / Arrasate



ITSASOKO ETA MENDIKO UREN ELKARGUNE. 2011ko abuztuan ateratakoa, Mallorcan. Torrent De Pareis agertzen da argazkian, itsasoko ura eta mendiko ura elkartzen diren lekua. Abuztua zenez, ez zegoen ur askorik. /Argazkia: Asier Urta Martin / Arrasate



EGUNSENTIA. Rio de la Plata ibaia zeharkatzen duen itsasontzia; lau orduko bidaiaren ostean, goizeko lehen argi izpiak ikusten dira. Bertan, Uruguako bandera, beste itsasontzi bat eta gizon bat agertzen dira. /Argazkia: Itsaso Erdabide / Bergara



GAZTELUGATXE. Bizkaiko kosta eta atzeko planoan San Juan de Gaztelugatxe ikusten dira. /Argazkia: Javier Perez Omeñaca



GAMELUAN. Argazkia Marokoko Fez hiritik gertu atera genuen. Uztail hasieran ateratakoa. Argazkian, neskalaguna eta lagun batzuk agertzen dira. /Argazkia: Eneko Odriozola Fornell / Bergara



ARROSA. Nire aitaren etxean, Nafarroan, arrosa bati ateratako argazkia. /Argazkia: Maria Lizarraga / Arrasate



SAHARAKO DUNETAN. Aurtengo udan ateratako argazkia. Aaiungo kanpalekuen ondoan dauden duna batzuetan aterata dago. Mohamed (hartzen dudana sahararra), Aisha (Mohameden arreba), Suado (Mohameden izeba) eta ni neu agertzen gara. /Argazkia: Haizea Fernandez Loiti



AHATEEKIN PASIATZEN. Udan Vietnamen ateratako argazkia. Aita eta semea ahateekin paseatzen. /Argazkia: Gaizka Untzueta Irasuegi / Arrasate



KATEZ LOTURIK, DESIOAK BETE EZINIK. Itsasontzi kateatu horiek itsasora hurbil ezin daitezkeen neurrian, milaka kate saiatsen dira eguneroko gure helburuetako bidea zapuzten, beti lortzen ez badute ere. /Argazkia: Aitor Oiarzabal / Eskoriatza



ARROKA GAINEAN. Joan den udan Galiziako Ribadeo herriko hondartzan egindako irudia. Argazkian, harri erraldoi bat ageri da itsasoaren ertzean eta goialdean persona ausart bat paisaiaz gozatzen. /Argazkia: Oihan Vitoria / Arrasate



FIORDOETAN. Norvegiako Geiranger fiordoaren goiko aldetik ateratako argazkia. Bertan, Gurutz eta Leire azaltzen dira, eta fiordoa atzean dute. /Argazkia: Leire Urgoitia / Antzuola



BIDEAN. Abuztuan ateratako argazkia. Bergaratik Kordobara bidean, Jaen aldean topatutako irudi benetan polita! /Argazkia: Yanire Mendoza Ayala / Bergara

VII. GOIENA LEHIAKETA



goiena.net/blogak/argazkiak



TXALUPAKILUNKERAN. Zanzibar, iazko udan ateratakoa. Bi txalupa itsasoan, ilunkeran. /Argazkia: Izar Gorroñogotia Uibarren



BEHIAK BEGIRA. Gorla aldean atera genuen argazkia, zaldian ibiltzera gindoazela. Ama txahala zaintzen, zelaian, lasai-lasai. Gu haiei begira eta haiek guri. /Argazkia: Rosa Gartzia / Bergara



PORTURAKO BIDEA. Aurten Mallorcan izan naiz eta argazkia Sa Calobran ateratakoa da. Bertan, porturako bidea, taberna baten terraza eta itsasoa agertzen dira. /Argazkia: Arrate Izquierdo / Arrasate



ANNECY. Aurtengo udan Annecy (Frantzia) Erdi Aroko hiribilduan ateratako argazkia. Kanalak eta lore ugari zituen. /Argazkia: Pedro Javier Barbero Sanchez / Aretxabaleta



VENTO. Portugalgo ipar haizeaz, harea eta zerua josten. /Argazkia: Eneritz Urrutia Arantzeta / Aretxabaleta



MILA ETA BAT BIZIKLETA. Valladoliderako noranzkoan atzeritar auto bati ateratako argazkia. /Argazkia: Olga Corrales Garcia / Oñati



LORA. Argazkia Ugaztegin dago aterata, 2011ko uztailean, Santiagotan. Bertan, Ugaztegi inguruan dagoen lore bat, uztaileko euri tantekin. /Argazkia: Amaia Lasaga Moyua




TXALUPAN. Portugalen 2011ko udan ateratako argazkia. Punta de la Piedad txalupan egindako gida. /Argazkia: Alazne Garcia Gabilondo, Arrasate



BUDISTA. Argazkia aurtengo uztailean atera dugu, Indonesiako Java irlako Borobudurko tenpluan. Munduko tenplu budista handiena. Bertan dauden 504 budetako bat da hori. /Argazkia: Madariaga Oteo / Bergara



BALEA. Argentinara egindako bidaiari balea bati ateratako argazkia. Valdes penintsula hegoaldeko baleen topalekua da, euren ugaltze-zikloa osatzeko joaten dira hara. Gizadiaren Ondare Naturala da. /Argazkia: Bittor Carballeas / Eskoriatza



EIFFEL DORREA. Eiffel dorrearen inguruko beste ikuspegi bat; dorreari baino gehiago, jendeari garrantzia emanda. Parisen aterata, 2011ko irailean. /Argazkia: Mikel Maidagan Setien / Arrasate

Facebookek eguneroko jarduera guztiak uneoro partekatzea bilatzen du

Spotify, Netflix edo egunkariak eskainita, irakurri, entzun edo ikusitakoa partekatu ahalko da uneoro

J.B. | ARRASATE


Garatzaileen biltzar handia egin berrikan daude Facebookekoak. *f8* ebentuan aldaketak, berrikuntzak eta erabilera berriak aurkeztu dituzte. Kexak ere zabaldu dituzte erabiltzaile askok, twitterren batez ere, baina Spotify-rekin emango duten zerbitzuak ere txaloak jaso ditu.

800 milioi erabiltzaile dauzka Facebookek eta horietatik 500 aldi berean konektatzen dira egunero egunaren uneren baten. Aurrerantzen erabiltzaileak Facebooken ikusten duen guztia lerro kronologiko baten aurkitu ahalko du baina albisteak eta lagunen eguneraketak ez zaizkio ordena horretan agertuko, baizik eta

"interesaren" arebera. Facebookek kalkulaturako interesa, alegia.

Spotify eta jokuak

Multimedia edukiak eta jokuak, aldi berean ikusi-entzun eta komenta daitezkeenak, etorriko dira aurki. Film eta telebista Netflixekin, musika Spotifyrekin edota egunkariak. Erabiltzaileek uneroro jakin dezakete laguna zertan dabilen, Facebooken egonez gero. *Atsegin dut* botoiak ere garapena izan du eta modu baten bano gehiagotan agertuko da eta erabiltzaileak zuzenean esan ahalko du zert dabilen *jaten, irakurtzen, ikusten edo entzuten* botoiekin. Bizitza osoa, uneoro, partekatzea, alegia.



Mark Zuckerberg, eguneneko aurkezpenean. | FB.GACEBOOK.COM



iPhone 5ak izan lezakeen itxura. | INFORMACIONIPHONE.COM

Urriaren 4an aurkeztekotan da iPhone 5a Tim Cook, CEO berria

Iragarpen ofizialik ez badago ere, modelo berria data horretan aurkeztuko dutela diote adituek

J.B. | ARRASATE

AllThingsDigital atariak eman du primizia, Applen albisteetan sarri asmatzen duen iturria, inondik inora, eta bestelako gezurtatzerik ez da egon. Tim Cookek aurkeztuko du, albistearen arabera, Steve Jobsi lekukoa hartuta eta aurki sagartxoarekin lotuko dugun aurpegia izango da bera.

Hedabide gehienak antzerako datekin zebiltzan espekulazioan, halere, gehienek urriaren 5ean izango zela zioten, modelo berriaren zenbakiarekin kointzidentzia aurkitu guran. Tim Cook CEO berriaren agerpen publiko eta ofiziala, lehena, izango da urriaren 5koa. Gailu berrian, Cookek eta Jobsen balizko ezusteko agerpena begien jomugan.

Zer da espero izatekoa?

Bost ezaugarri nagusitan labur daiteke telefono berriaz espero daitekeena. Lehena da telefono bat barik bi aurkez ditzaketela, esamesen artean baitago nano modelo bat, txikiagoa eta merkeagoa eta iPhone 5a barik iPhone 4 S edo Plus modeloa izan daiteke. Itxura aldetik finagoa eta atzekalde borobilduna izan daiteke. Pantaila bera handiagoa izango dela esaten duenik ere bada. Ahalmen aldetik prozesatzaile azkarragoa sartzea da normalena, iPad 2arena bera eta horrekin batera SIM txartela nolakoa izango den ere zalantza dago. Kamerari dagokionez, ia iturri guztiek konfirmatutzat ematen dute Sonyren 8 megapixelatoko kamera izango duela.

Googlen ordainketa sistema martxan da Estatu Batuetan

Googlen asmoa da hilabete batzuren buruan nazioartean ere erabilgarri egotea

J.B. | ARRASATE

Maiatzetik zenbait hiritan proban ibili eta gero, herrialde osoara zabaldu dute ordainketa sistema Visa, Mastercard American Express eta Discover konpainiekin elkarlanean. Datoren hilabeteetan nahi dute herrialde gehiagotara zabaltzea. Lehen urratsak Sprint telefonika konpainiarekin eta Nexus S 4G mugikorrarekin eman dituzte, terminal horretan soilik dago erabilgarri Google Wallet, baina berehala zabalduko dute zerbitzua mugikor modelo gehiagotara.

Telefonoak NFC delako gertuko irismeneko kaberik gabeko teknologia erabiltzen du; Android sistema eragilea eta

dendetan ordainketa egiteko terminala ere behar da. Komerztzuek ez diote Googlei kuota oraindik ordainduko zerbitzua izatearren, banketxeetako TPVetan ez bezala. Zuzenean kontu korrontera edo erositako prepago txartel batera lotu daiteke Google Walleta ordainketak egiteko eta PIN bat izango du erabiltzaile bakoitzak erosketa baimentzeko.

Teknologia berriak gainera, leialtasun beharpenak edota deskontuak eskuratzeko moduak erraztuko dizkio bezeroari, Googletik aurreratu dutenez. Gainera, Googlen bertan bilatu ahalko dira sustapen eta beharpenak eta zuzenean mugikorrera bidali, erosketa egiterako unean aplikatu daitezten.



Prototipoetako bat. | GOOGLE.COM

Google + sare soziala irekia da dagoeneko edonorentzat

Hiru hilabetez probatarako bertsioan eta gonbidapen bitartez soilik erabilgarri egon eta gero, dagoeneko publikoa eta irekia Google + sare soziala. Aurrerantzean edonork sortu ahal izango du bere profila bertan eta orain arte beta bertsioan gainontzeko erabiltzaileek izan dituzten zerbitzuak erabili.

Jakin-mina piztu du Windowsen sistema eragile berriak

Windowsen sistema aurkeztu berriak, tabletarako bereziki diseinatutakoak, jakin-min handia eragin duela. Aurreko asteko aurkezpenean kazetariari Samsung tableta bat eman zieten prototipo batekin (akreditazioak 3.000 dollar balio zituen, zenbait kasutan) eta dagoeneko sarean ipini dituzte salgai prototipook.

Propaganda politikoa onartuko du Twitterrek

Joan den eguaztenetik aurrera alderdi politikoei iragarki tarreak erosi ahal dituzte Twitterren. Momentuz Estatu Batuetan bakarrik erabiltzaileari mezu politikoa iradokizun moduan ala bilaketa baten emaitza moduan agertiko zaizkio. Eguneneko gai nagusi izatera ere iris daitezke, tuit normalak bezala.

TELE-BEGI

AINHOA VITORIA

Agur, 'Vaya Semanita'

Zazpi denboraldiz *Vaya Semanita*-n izan da Andoni Agirregomez-korta. Denbora horretan telebistaz dakien guztia ikasi duela esan du aktore eta aurkezleak. Facebookaren bitartez agurtu nahi izan ditu zale guztiak, *Vaya Semanita*-n aukerarik ez baitu izan. *Agur Vaya semanita* dioen gutun berezi batekin agurtu da aktorea eta saiotik at egotearen arrazoiak ez ditu zehaztu: "Hobe da zergatiak erabakia hartu dutenei galdetzea, neure bertsoia eman banezakeen ere".

Lankideak faltan igarriko dituela ere aipatu du. Hala ere, ez da izango bakarra, lantaldearen %90 ez baita egongo.

Plantilaren berrikuntzaz gain, saioa ere aldatuko dela iragarri dute. Ez da elkarrizketa tarterik egongo eta platoa ere desagertuko da. Esketxak izango dira protagonistak.

Orain, jende berriari ongietorria emateko ordua da, eta, noski, Andoni Agirregomez-korta eta gainontzeko lankideak agurtuko ditugu. Urte hauetan lan bikaina egin dute eta etorkizunean, beste proiektu batzuetan bada ere, ziur naiz telebistan ikusiko ditugula.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 26	MARTITZENA, 27	EGUAZTENA, 28	EGUENA, 29	EGUBAKOITZA, 30
 <p>Aretxabaletako San Migel jaiak 19:45</p> <p>Aretxabaletako San Migel jaiak asteburuan eman dutena jasoko dugu luze eta zabal asteleheneko <i>Magazinea</i> saioan.</p>	 <p>Basque Culinary Center 19:45</p> <p>Gaur, astelehena, inauguratu dute Basque Culinary Center; han izango gara, Joxe Mari Aizeagazuzendariarekin, besteak beste.</p>	 <p>Eibarko G Puntua saioa 20:45</p> <p>Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak, G Puntuak, Eibarren eman zuena eskainiko dizuegu eguaztenean iluntzeko 20:45ean.</p>	 <p>Felliniren erakusketa 22:15</p> <p>Federico Fellini Italiako zinemagileari buruzko erakusketa jarri dute Donostian. Hori bisitatuko dugu <i>Gipuzkoa kultura</i>-n.</p>	 <p>Oñatiko San Migel jaiak 19:45</p> <p>Oñatiko San Migel jaiak momentura arte emandakoa jasoko dugu; kaleko giroa eta herritarren adierazpenak, besteak beste.</p>
<p>12:25 Magazinea</p> <p>13:25 Marrazki bizidunak</p> <p>13:45 Kantari</p> <p>14:13 Bertso saioa</p> <p>14:43 Berriak</p> <p>15:13 Monzon pastoralak</p> <p>19:18 Marrazki bizidunak</p> <p>19:45 Magazinea</p> <p>20:45 Harmailatik</p> <p>21:30 Magazinea</p>	<p>12:30 Magazinea</p> <p>13:30 Marrazki bizidunak</p> <p>14:00 Onein</p> <p>14:20 Iruñeko hotsak</p> <p>14:48 Berriak</p> <p>15:18 Harmailatik</p> <p>15:58 Jaiak: Bermeoko jaiak</p> <p>16:32 Berriak</p> <p>17:02 Baratzeko loreak</p> <p>17:29 Bizitegia</p> <p>17:59 Gipuzkoa kultura</p> <p>18:29 Berriak</p> <p>18:59 Leku txiki bat</p> <p>19:14 Marrazki bizidunak</p> <p>19:42 Magazinea</p> <p>20:42 Baratzeko loreak</p> <p>21:32 Magazinea</p> <p>22:32 Bertso saioa</p> <p>23:00 Magazinea</p>	<p>12:30 Magazinea</p> <p>13:30 Marrazki bizidunak</p> <p>14:15 Onein</p> <p>14:45 Berriak</p> <p>15:15 Gipuzkoa kultura</p> <p>15:45 Iruñeko hotsak</p> <p>16:13 Leku txiki bat</p> <p>16:33 Berriak</p> <p>17:04 Bizitegia</p> <p>17:31 Baratzeko loreak</p> <p>18:21 Harmailatik</p> <p>19:06 Berriak</p> <p>19:36 Leku txiki bat</p> <p>19:46 Magazinea</p> <p>20:46 Bertso saioa</p> <p>21:16 Magazinea</p> <p>22:16 Gipuzkoa kultura</p> <p>22:46 Kirol saioa: herri kirolak</p>	<p>12:30 Magazinea</p> <p>13:30 Marrazki bizidunak</p> <p>13:55 Jaiak: Bermeoko jaiak</p> <p>14:29 Berriak</p> <p>14:59 Onein</p> <p>15:27 Iruñeko hotsak</p> <p>15:55 Bizitegia</p> <p>16:20 Kantari</p> <p>16:47 Berriak</p> <p>17:17 Ur eta lur</p> <p>17:44 Bertso saioa</p> <p>18:12 Berriak</p> <p>18:42 Marrazki bizidunak</p> <p>19:12 Kantari</p> <p>19:42 Magazinea</p> <p>20:42 Bertso saioa</p> <p>21:12 Magazinea</p> <p>22:12 Gipuzkoa kultura</p> <p>22:42 Magazinea</p>	<p>12:30 Magazinea</p> <p>13:30 Marrazki bizidunak</p> <p>13:50 Onein</p> <p>14:18 Iruñeko hotsak</p> <p>14:46 Berriak</p> <p>15:13 Baratzeko loreak</p> <p>16:03 Marrazki bizidunak</p> <p>16:48 Leku txiki bat</p> <p>17:03 Berriak</p> <p>17:36 Marrazki bizidunak</p> <p>18:06 Ipupomamua</p> <p>18:36 Leku txiki bat</p> <p>18:46 Berriak</p> <p>19:21 Marrazki bizidunak</p> <p>19:51 Magazinea</p> <p>20:51 Gipuzkoa kultura</p> <p>21:21 Magazinea</p> <p>22:21 Bertso saioa</p> <p>22:51 Magazinea</p> <p>23:51 Ur eta lur</p>

ARRASATE IRRATIA

Mondrako nesken denboraldi berriaren gainean gaurko saioan

Mondrako nesken 25. urteurrena eta denboraldi berriari buruz hitz egingo dugu 107.7ko uhinetan Jon Zuloaga entrenatzailearekin; hark kontatuko dizkigu xehetasun guztiak. Hori eta gehiago gaur, astelehena, 10:30ean, *Uda giroan* irratsaioan.

Igor Estankonaren diskoa dugu zozketan: parte har ezazue!

Aste honetan, besteak beste, Arrasate Irratiko zozketan parte hartzen dutenen artean Igor Estankonaren diskoa zozketatuko dugu. Diskoa irabazteko zozketan sartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Animatu, parte hartu, eta zorte on.

'Martin Larralde' liburu-diskoaz jardungo dugu

Hilaren 29an, eguenean, *Martin Larralde* liburu-diskoa aurkeztuko dute Arrasateko gaztetxean, 20:00etan. *Martin Larralde* 2008an hasitako proiektu bat da eta Eneko Barberenaren testuak ditu, besteak beste. Bada, Barberena 107.7ko uhinetara gonbidatuko dugu liburu-diskoaren berri emateko.

TELE-ALBISTEAK

Gaur hasiko da 'Goenkale'-ren denboraldi berria

German hilzorian dago bere buruaz beste egiten saiatu ostean; etorkizunaren berri, gaurko atalean

AMAI TXINTXURRETA | ARRASATE
ETBleko *Goenkale* telesailak XVIII. denboraldiari ekingo dio gaur, astelehena, gaueko hamarretan. Intriga, pertsonaia eta dekoratu berriak dakartza Pausokak ekoiztutako saioak.

Lapurtutako umeen istorioak eta iraganeko sekretu ilunak Arraldeko bizilagunen eguneroko jardunari gehituko zaizkie. Kurtso berrian zabalduko diren hari-muturren artean, Irureta familiaren etorrera, Sor Ines eta Sor Paresi mojen azpijoko eta sekretuak eta Ibi (Karlosen alaba)

gaztearen gorabeherak izango dira. Hala ere, aurreko denboraldian zintzilik geratutako hainbat kontuk ere jarraipena izango dute.

Germanen etorkizuna

Astelehenean ikusgai izango den lehendabiziko atalean, German (Asier Hernandez) hilzorian dago, bere buruaz beste egiten saiatu ondoren. Bizirik irauteko makina itzali edo ez erabaki behar du haren familia. Lukasek (Mikel Martinez) hartuko du Madariaga ontziolaren gidaritza eta Arral-



Denboraldi berriko aktoreak. | GOENKALE

Astelehen eta martitzenetan izango da ikusgai gaueko hamarretan

Maria Cruickshank oñatiarrak telesailan jarraituko du

dera iritsi berri den Malen gaztearekin bikote harremana hasiko du. Malenen aita, Ernesto Irureta, hain justu, enpresaria da eta Abelen aspaldiko laguna ere bai, eta enpresaren zati bat erosiko du.

Bestalde, Kandidok (Martxelo Rubio) eta Aliziak (Tessa Andonegi) bikote harremanari ekingo diote berriro. Baina diru arazo larriak izango dituzte eta elkarbizitza ez da erraza izango.

Leonoren eta Karlosen arteko harremana ere sendotu egingo da. Bere seme-alabak ezagutzeko gogoia adieraziko dio Leok Karlosi, euretako bat laster etxean izango dutela jakin gabe.


Goenkale astelehen eta martitzenetan egongo da ikusgai ETB1en, gaueko hamarretan.

Irureta familia berria


Irureta familia garrantzi handia izango du telesailan, madariagarrekin izango duten harreman estuagatik eta gordetzen duten sekretu ilunagatik.

Hori eta gehiago, astelehen eta martitzeneko, ETB1en.

ZORION AGURRAK




ARAMAIO
Iñaki Molero Altuna
Irailaren 29an, 10 urte.
Zorionak, *majete*, eta
muxu asko etxekoan
partetik.




ARRASATE
**Beñat Hernandez
Iturbe**
Irailaren 29an, 2 urte!
Zorionak, maitea. Etxeko
mutikote, urte
askotarako. Oso ongi
pasatu eguna. Muxu
potolo handi bat etxeko
guztien partetik.



OÑATI
**Nahia Eskarza
Vernaza**
Irailaren 29an, 4 urte.
Zorionak,
matxingorringo. Ondo
pasatu zure eguna eta
patxito asko etxekoan
partetik.



ARAMAIO
Nahia Regero Osinaga
Irailaren 29an, urtebete.
Zorionak Nahia zure
lehenengo
urtebetetzean. Patxo
handi bat etxekoan
partetik.



BERGARA
Naroa Larrea Zubia
Irailaren 28an, 3 urte.
Zorionak, printzesa!
Ondo pasatu zure
urtebetetze eguna.
Milaka muxu maite
zaitugun guztion
partetik.



ARRASATE
Aitor Urtubi
Irailaren 28an,
urtebetetzea. Zorionak
eta patxo handia Unax,
Malen, Iñigo, Goiatz,
Xabier, Silvia eta etxeko
guztien partetik.



ESKORATZA
Naroa Cabeza Jorge
Irailaren 28an, urtebete.
Zorionak eta muxu handi
bat familia guztiaren
partetik.



ARETXABALETA
**Izaro Hernandez
Urzelai**
Irailaren 28an. Zorionak,
Izaro! Gure pixpirrinak
bost urte bete ditu. Ondo
pasatu zure urtebetetze
eguna eta muxu potolo
bat etxekoan partetik,
bereziki aitaxo, amatxo,
Gari eta Oihan.




ANTZUOLA
Xuban G. Rodriguez
Irailaren 28an, 7 urte. Zorionak Danel, Aina, aitaxo eta
Antzuolako familiaren partetik. Aupa, txapeldun!



OÑATI
Ane Pelayo
Irailaren 28an, 6 urte.
Zorionak, printzesa!
Ondo pasatu zure
urtebetetzea eta muxu
handi bat etxeko danon,
baina bereziki Iratiren
partetik.



ARETXABALETA
Elaia Akizu Arenaza
Irailaren 27an, urtebete.
Zorionak, marisorgin!
Urtebete honezkerok.
Zelako aguro itten garen
handi... Patxo bat
aitatxo, amatxo eta
Oinatzen partetik.



ESKORATZA
**Maren Markaide
Alegria**
Irailaren 27an, 9 urte.
Zorionak familia eta
Xubanen partetik eta
ondo-ondo pasatu zure
eguna! Muxu potolo bat!



ARRASATE
Ane Delgado Ugarte
Irailaren 27an, 11 urte.
Zorionak, Ane!
Ondo-ondo pasatu zure
egunean aitaxo, amatxo
eta Erik partetik. Muxu
handi-handi bat!



ARETXABALETA
Oskitx Lagunilla Agirre
Irailaren 27an, 6 urte. Zein ondo pasatu ditugun
oporak, eta orain zer dator? Zorionak txapeldun, sei
urte beteko dituzu! Zenbat lagun gonbidatu dituzun!
Denok joango gara merendolara, eta ederto pasatuko
dugu. Mari Kanela ere gonbidatuko duzu? Eta iratxoa?
Muxu handi-handia etxeko danen partez, eta oraingoan
bereziki Liberen partetik.




OÑATI
Oier Igartua Urteaga
Irailaren 26an, 4 urte.
Zorionak, maitetxo, eta
oso ondo pasatu zure
urtebetetze egunean.
Patxo handi bana
etxekoan partetik.



ARETXABALETA
**Antonio eta Urko
Do Amaral**
Urkok irailaren 26an 3
urte beteko ditu, eta
aitaxo Antoniok,
urriaren 4an, 40 urte.
Zorionak etxeko guztien
eta batez ere amatxoren
partetik. Ondo-ondo
pasatu eta muxu potolo
bat.



ARRASATE
Haizea Osas Saiz
Irailaren 25ean, 7 urte.
Zorionak, bihurtito!
Etxeko guztien partetik.




ARRASATE
Ilargi Ortega Arrieta
Irailaren 25ean, 5 urte.
Zorionak, bihotza! Bost
urtetxo gure Ilargik!
Patxo erraldoi bat
Hondarribitik eta
Arrasatetik. Ilargiraino
eta buelta maite
zaitugu!



ARRASATE
**Noa Beltran de Gebara
Zabarte**
Irailaren 25ean, 5 urte.
Zorionak Maren, Izar eta
etxeko guztien partetik.



BERGARA
Martin Lete
Irailaren 25ean, 9 urte.
Zorionak eta ondo
pasatu zure
urtebetetzea. Familia
osoaren eta bereziki
Oierren partetik.



ESKORATZA
**Maitane
Garitaonandia**
Irailaren 24an, 10 urte.
Zorionak eta patxo
handia zure amaponteko
Toñiren partetik. Asko
maite zaitut.




ARAMAIO
Leire Vilches Beitia
Irailaren 24an, 10 urte.
Zorionak, *guapa*! Ondo
pasatu zure urtebetetze
eguna! Patxo
potolo-potolo bat
etxekoan partetik.



ARRASATE
Alain Rincon
Irailaren 24an, 3 urte.
Zorionak eta patxo
handia etxekoan eta
batez ere Aneren
partetik!




ARRASATE
Jokin Ayesa Martinez
Irailaren 24an, 6 urte.
Aupa, Jokin! Zu zara
erraldoia! Ederto pasatu
dugu traktoriaz Barrion!



BERGARA
**Aitana Mendiaraz
Paya**
Irailaren 24an,
urtebetetzea. Zorionak,
potxola eta ondo pasatu
zure eguna. Muxu handi
bat famili guztiaren
partetik.



ARETXABALETA
**Manex Arana
Usandizaga**
Irailaren 24an, 3 urte.
Zorionak, txikitxo, jada
hiru urtetxo! Ondo-ondo
pasatu eguna eta patxo
asko Arrasateko eta
Atxabaltako familiaren
partetik.



BERGARA
Aritz Oteiza
Irailaren 23an, 18 urte.
Zorionak, Tot! Ondo
pasatu eguna eta
disfrutatu juerga on
batekin! Muxutxo asko!
Ikasle lagunaren partetik
ere besarkada handi bat!



OÑATI
Izar Ugarte Muñoz
Irailaren 23an, 3 urte. Zorionak, potxola! Gure printzesak
hiru urtetxo! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean.
Muxu handi bat etxekoan eta bereziki, Ander, Jokin, Irati eta
Heleneren partetik.



BERGARA
Lander Osa
Irailaren 19an, 17 urte.
Zorionak, Lander!
Ondo-ondo pasatu
eguna eta disfrutatu,
guapa! Patxoak!



ARRASATE
**June Garaigordobil
Iglesias**
Irailaren 19an, urtebete.
Zorionak, laztana, Zure
lehendabiziko
urtebetetzean! Familia
guztiaren partetik, muxu
handi bat! Maite
zaitugu.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu GOIENAREN bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *goiena.net* atarian eta *Zorion agurra* bidali botoia sakatu.
Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra.

Posta elektronikoa

Mezu bat bidali *zorionagurra@goiena.com* helbidera, adieraziz:
izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz GOIENAKO ordezkari batzera.

Egubakoitz 11:00ak arte
jasotako zorion agurra
bakarrik iragarriko
ditugu.

Hortik aurrera
jasotako hurrengo
asteen argitaratuko
ditugu.

JAIOTAKOAK



Iraide Aldea Zubiaga

Arrasate 3,380 kilo. Irailaren 17a. Gurasoak: Maitane eta Josu. Argazkian, umea amarekin.



Kattalin Basabe corral

Elorrio 3,860 kilo. Irailaren 18a. Gurasoak: Beatriz eta Unai. Argazkian, umea amarekin.



Iraia Garcia Gonzalez

Aretxabaleta 3,250 kilo. Irailaren 18a. Gurasoak: Ana eta Unai. Argazkian, umea gurasoekin.



Iraitz Apraiz Basauri

Elgeta 3,400 kilo. Irailaren 20a. Gurasoak: Leire eta Ernesto. Argazkian, umea amarekin.



Anne Maillaut Beloki

Aretxabaleta 3,230 kilo. Irailaren 23a. Gurasoak: Ainhoa eta Frédéric. Argazkian, umea sehaskan.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI


Umeen paradisua



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Mea kristaldua Irudi islatzaile	Ematen du Burdinazko hagak	Hego Koreako hiria Europako estatua
	* Frantziako hiriburua Nagar-tanta		
Baizik eta	Elur zati txikia		
Ezpataren jabe da	Kontent		
Europako estatua			Presio unitate
Jatekoak			
		Nazio Batuak	
		Rutenioa	
Esaten du		Aezkoako udalerria	
Bakaikuko		lodoa	

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

R	A	U	K	I	A	K	B
A	R	I	A	O			
B	N	A	K	Z	K	A	B
	V	A	N	I	A	P	O
N							
A							
S							
U							
B							

A	V	A	O	T	X	E	L
A	V	A	A	V	A	A	A
A	V	A	A	V	A	A	A
A	V	A	A	V	A	A	A
A	V	A	A	V	A	A	A
A	V	A	A	V	A	A	A
A	V	A	A	V	A	A	A
A	V	A	A	V	A	A	A
A	V	A	A	V	A	A	A
A	V	A	A	V	A	A	A
A	V	A	A	V	A	A	A
A	V	A	A	V	A	A	A

4	7	9	1	5	3	8	2	6
3	5	8	6	9	2	7	1	4
2	6	1	7	4	8	5	3	9
9	6	3	7	2	8	4	1	5
8	4	2	5	1	9	3	6	7
1	9	5	3	7	6	2	4	8
9	2	4	8	3	7	6	5	1
7	1	3	4	6	5	9	8	2
5	8	6	9	2	1	4	7	3



Hieroglifikoak:
Bide estuak.

SUDOKUA

			9	2				
7	1	3		6				2
	2	4		3	7			5
	9	5						4
								6
6	3		2	8	4			
2			7			5		
3		8		9		7		
				5	3			

HIZKI SALDA

Topa itzazu bost musika tresna.

A	L	B	O	K	A	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A
A	F	A	A	A	B	A	A	A
S	A	S	O	F	O	I	A	A
A	G	A	A	A	N	A	A	A
A	O	A	A	A	B	A	A	A
A	T	A	A	A	O	A	A	A
A	A	A	A	A	A	A	A	A
T	X	E	L	O	A	A	A	A

HIEROGLIFIKOA

Zerk eramango gaitu urrutira?

DD

AI, ENE!

Hori bai zintzotasuna!

Sarri kexatzen gara zinemara joan 6 euro ordaindu eta filma gustatzen ez zaigunean; kasu horretan, ez dago kexarako tokirik.



El director de esta película, Terrence M muy odiado o muy admirado. Si la pel resulta aburrida, por favor, no moleste demás **y salga antes de transcurr minutos**. Le daremos gratuitamente entrada para cualquier otro título



AHOBERO

"Jainkoak munduan egin zuen gauzarik onena, emakumea izan zen"

LUIZ COSTA DE OLIVEIRA | 50 UMEREN AITA

Brasildar horrek dituen 90 urteetan, berak dakiela, 50 seme-alaba izan ditu. Zein den ama? Pluralean berba egin behar: lehenengo emaztea, bigarrena (aurrekoaren ahizpa), koinata bat eta amaginarreba. Ahoa baino gehiago, beste zerbait du Luizek bero...
www.abc.es

EGURALDIA



Max. 28°

Min. 12°

Goizaldean sorturiko behelainoa desegin ostean, zerua urdin agertuko da.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2011-09-26

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Itziar Alduntzin Goizetan Gaztea sintonizatuz gero, zaila izango zaizu irribarreari eustea. Zein den erantzulea? Itziar Alduntzin leitzarra, bitalismoaren adibide garbia. | TXOMIN MADINA

"Jendeak gutxien espero duzunarekin erreakzionatzen du"

1. Zer gosaltzen duzu goizero horrelako energia izateko?

Kafea utzi dut egunotan: egun baten, kafe barik geratu eta Cola Caora pasa nintzen. Hortaz, Cola Caoa zopa egindako ogi apur batekin.

2. Eta egun txarra izanez gero?

Horrelakoetan, lanera etorri eta mikroa irekitzean, egin beharkean asko zentratu eta atera egiten zait. Nire lana da, badakit animatzailea naizela. Egun oso txarretan ere ateratzen da: ez dakit nola, baina ahaztea lortzen dut.

3. Zenbat urte mikrofono aurrean?

Duela hamalau hasi nintzen Euskadi Irratian bekadun eta duela hamahiru, Gaztean. Aurkeztutako lehen kantua? Ez dut oroitzen; bai, ordea, probak egiteko aurkeztu beharreko kantueta bat zela Smash Mouthen *Why can't we be friends*.

4. Gaztea asko aldatu da urte hauetan guztietan?

Aldatu da eta aldatu beharra dago. Ezberdin pintxatzen da, errealizazio aldetik gehiago eskatzen da. Esatarien hizketa estandarizatzen ere saiatu dira; egia da nire hizketak ez direla inoiz oso estandarrik izan, baina botatzen nauten arte horretan jarraituko dut.

5. Inoiz pentsatu duzu... "oraingoan pasatu egin naiz"?

Bai, baina ohartu naiz pasatu naizela uste izan dudanean, jendeak horrekin erreakzionatzen duela; gutxien espero duzunarekin.



LEXURI DOYAGE

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Utzi egingo nuke"

"Txantxetan, esango nizuke lagun guztiak sekulako postuetan jarriko nituzkeela... Baina hori ez da politikoki oso zuzena! [Barre] Postua emango balidate, utzi egingo nuke, *marroi* hutsa iruditzen zait. Handia geratzen zaidan postu bat ez nuke sekula onartuko".

6. Sarri aurkeztu behar izaten duzu gustuko ez duzun musikarik?

Bai, noski! Baina ezberdina da gustatzen zaizuna entzutea eta Gaztea bezalako irratian lan egitea. Momentu honetan, pintxatzen dudana guztia gustatzen zait, denak ematen dit *subidoia*. Irratian ondo geratzen dena beti da aproposa.

7. "Irratiak xarma berezia du": topikoa ala egia?

Egia *berdadera*! Topikoa da, baina irratia engantxatu egiten du. Zuzenekoak *subidoia* ematen du, grabatutakoak inoiz emango ez dizuna. Erantzukizuna ere bada. Norbaitek zu entzunda ondo pasatu duela esateak dena balio du.

8. Telebistan lehen ibili arren, aspaldian ez zaitugu ikusi. Gogo ala aukera falta?

Hasieran, gogo falta, irratia uztea eskatzen zidaten gauzak zirelako. Orain, gustura egingo nuke, baina ez da aukerarik.

9. Emakume pinpirina ei zara. Zein izan da zure azken erosketa?

Zapata batzuk; ez nituen erosi behar, garestiegiak ziren eta... Gustatzen zait bai. Ez hainbeste moda jarraitzea; badakit zer gustatzen zaidan, eta listo! Baina pasatu gabe!

10. Facebooken talde batekin parrandan joan nahi du. Nolako da zure parranda ideala?

Aldatu egin da, orain egunez da: lagun onekin, bazkari eta arratsalde-pasa baten inguruan. Gaez irten bai, baina askorik luzatu gabe...

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



Krisiaz, berriro ere

Krisiak mila saihets gaizto ditu; Greziak, minetsia: zergak euliak baino ugariago, prezio guztiak izarretan eta milaka funtzionario kalean. Hala ere, Europa eta NDF gehiagoren eske dauzka. Hori da egoeraren zoroa!

Europar hauteskondeak non, agintedunak galdutan: Grezian bertan, Erresuma Batuan, Finlandian, Danimarkan... Grezian, gainera, eskumak kontabilitate-tranpak egin zituen. Alemanian ere Merkel super-mandataria gero eta ahulago dago. Espainian Rubalcabak Raxoi aurrean du inkestetan.

Egoera honetan, Islandiaren portaera da deigarria: bankuek eraman zuten estatua kiebrara eta estatuak, gobernu aldatuta, ez die bankuei erreskaterik ordaindu. Nazioarteko auzitegieta dago kontua, dena dela. Hego Korean aginteak zazpi aurrezki kutxa sei hilabeterako itxi ditu maileru garestiegiak emateagatik.

Euskadin, 2013ko martxoan izango dira hauteskunde autonomikoak. P. Lopezek ez du ezer esatekorik? Gustuko ez diren alderdiak lege kanporatzearen errezetak ez du parte txarreko krisi hau gainditzeko balio? Krisia ezin da debekatu? Asko da ba!

estetika zentroa

angela

PROMOZIO BEREZIA

FOTODEPILAZIOA

Hankak osorik eginez gero, izterondo eta besapeak

DOAN

Saio bakoitzeko 110 euro aurreztuko duzu!
Etorri irailan eta promozioa behar dituzun saio guztietara luzatuko dizugu!